# Samsung

## GT N7000




Euskaltelek itzulitako eta ekoiztutako eskuliburua

euskaltel

Baliteke eskuliburu honen edukia zure gailuarekin erabat bat ez etortzea, gailuaren softwarearen edo zure zerbitzu-hornitzailearen arabera.

## Kies (PCarekiko sinkronizazioa) instalatzeko

1. Deskargatu Kies-en azken bertsioa bere webgunetik (www.samsung.com/kies), eta instalatu zure ordenagailuan.

2. Konektatu gailua PCra USB kable baten bidez. Samsung Kies automatikoki irekiko da. Informazio gehiago nahi izanez gero, ikus Kies-en laguntza.

### Adostasun-deklarazioaren laburpena

SAMSUNGek adierazten du, bere ardurapean, tresna honek Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1999ko martxoaren 9ko 99/05/EE Direktiban finkatutakoa betetzen duela; Direktiba hori 2000ko azaroaren 20ko 1890/2000 Errege Dekretuaren bidez egokitu zen espainiar estatuko legeriara.

www.samsung.com

# Eskuliburuaren erabilera

Eskerrak ematen dizkizugu Samsung telefono mugikor hau aukeratzeagatik. Samsungen aparteko teknologian eta goi-mailako estandarretan oinarritutako kalitate handiko komunikazio mugikorra eta entretenimendua emango dizu gailu honek.

Zure gailuaren funtzioak eta ezaugarriak azaltzeko bereziki diseinatua da erabiltzailearen eskuliburu hau.

## Lehenengo irakurri beharrekoa

- Gailua erabiltzen hasi aurretik, irakurri arretaz eskuliburu hau, erabilera zuzena eta segurua bermatzeko.
- Gailuaren aurrez zehaztutako doikuntzetan oinarrituta daude eskuliburu honetako deskribapenak
- Gerta daiteke eskuliburu honetan erabiltzen diren irudiak eta pantailairudiak ez izatea produktu errealak dituen berak.
- Gerta daiteke eskuliburu honetako edukiak eta zerbitzu-hornitzaileak edo telefono-operadoreak emandako produktua edo softwarea bat ez etortzea. Gainera, aurrez abisatu gabe alda daiteke. Eskuliburu honen bertsio eguneratuena eskuratzeko, ikus http://www.samsung.com/.
- Erabilgarri dauden funtzioak eta zerbitzu osagarriak aldatu egin daitezke gailuaren, softwarearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.
- Erabiltzailearen eskuliburu honen formatua eta entrega Google Android sistema eragilean oinarritzen da, baina erabiltzailearen sistema eragilearen arabera alda daiteke.
- Aplikazioak eta funtzioak aldatu egin daitezke herrialdearen, eskualdearen edo hardware-zehaztapenen arabera. Samsungek ez ditu bere gain hartzen hirugarrenen aplikazioek sorrarazitako errendimenduarazoak.
- Samsungek ez du bere gain hartzen editatutako erregistroak doitzeagatik edo sistema eragileko softwarean aldaketak egiteagatik sor daitezkeen errendimendu- edo bateraezintasun-arazoen erantzukizunik. Sistema eragilea pertsonalizatzen saiatzeak gailuak edo aplikazioek oker funtzionatzea eragin dezake.
- Gailu mugikorraren softwarea eguneratzeko,

ikus http://www.samsung.com/.

- Gailu honek hornitzen dituen softwareak, soinu-iturriek, pantailaren atzealdeek, irudiek eta gainerako edukiek Samsungen eta haien jabeen lizentzia dute, erabilera mugaturako. Material horiek helburu komertzialekin edo beste helburu batzuekin erabiltzea egile-eskubideen legeak urratzea da. Samsung ez da egingo erabiltzailearen arau-hauste horien arduradun.
- Gorde eskuliburu hau behar duzunean kontsultatu ahal izateko.

# Jakinarazpenak egiteko ikonoak

Hasi aurretik, eskuliburu honetan agertzen diren ikonoak ezagutzea komeni da:

Oharra: zure telefonoa edo beste tresna batzuk kaltetu ditzaketen egoerak

Kontuz: zure gailua edo beste tresna batzuk kaltetu ditzaketen egoerak

Oharra: oharrak, erabilera-gomendioak eta informazio gehigarria

▶ Ikus: lotutako informazioa duten orrialdeak. Adibidez: ▶ 12. or (esan nahi du 12. orria ikusi behar duzula)

→ Ondoren: pauso bat emateko hautatu behar dituzun aukeren edo menuen ordena. Adibidez: Pantaila nagusian, ireki aplikazio-zerrenda, eta hautatu Ajustes > Acerca del teléfono (horrek esan nahi du Ajustes, eta, ondoren, Acerca del telefono hautatu behar duzula).

[ ] Kortxeteak: telefonoaren teklak; adibidez: [ ] (menuaren tekla adierazten du)

# Egile-eskubideak

Copyright © 2011 Samsung Electronics

Erabiltzailearen eskuliburu hau nazioarteko egile-eskubideen legeek babestuta dago.

Ezin da eskuliburu honen zatirik erreproduzitu, banatu, itzuli ez eta transmititu ere bitarteko elektroniko edo mekanikoak erabiliz (fotokopiatzea eta grabatzea barne), eta ezingo da gorde informazioa gordetzeko eta berreskuratzeko sistemetan Samsung Electronicsen aurretiazko idatzizko baimenik gabe.

# Marka komertzialak

- SAMSUNG eta SAMSUNGen logotipoa Samsung Electronicsen marka erregistratuak dira.
- Google, Inc.-en marka erregistratuak dira GoogleTM, Google Maps™, Google Mail™, YouTube™, Google Talk™ eta Android Market™-ren logotipoak.
- Bluetooth SIG, Inc.-en marka komertzial erregistratua da Bluetooth®, mundu osoan.
- Oracle eta Java Oracle-ren eta/edo haren bazkideen marka erregistratuak dira. Beste izen batzuk ere izan daitezke jabe horien marka erregistratuak.
- Microsoft Corporation-en marka erregistratua da Windows Media Player®.
- Wi-Fi Allianceren marka komertzial erregistratuak dira Wi-Fi®, Wi-Fi CERTIFIEDen logotipoa eta WiFi-ren logotipoa.
- DivX®, DivX Certified® eta horiei lotutako logotipoak Rovi Corporation-en edo horren subsidiarioen marka erregistratuak dira, eta lizentziapean erabiltzen dira.
- Gainerako marka komertzialak eta egile-eskubideak beren jabeenak dira.

0168

## DIVX VIDEO-RI BURUZ

DivX LLCk, Rovi Corporationen enpresa subsidiarioak, sortutako bideo digitaleko formatua da DivX®. DivX bideoak erreproduzitzen dituen gailua da hau, DivX Certified®-k modu ofizialean ziurtatua. Joan www.divx.com helbidera, zure fitxategiak DivX bideo-formatura bihurtzeko behar duzun informazio eta software-tresna gehiago jasotzeko.

DivX Certified®-k onartu du 720 p-ko HD-ko DivX® bideoak erreproduzitzeko, premium-edukiak barne.

## DIVX VIDEO-ON-DEMAND-i BURUZ

DivX®-ek ziurtatutako gailu honek DivX-en erregistratu behar du DivX VOD (Video-On-Demand) edukiak erreproduzitzeko. Erregistro-kodea sortzeko, bilatu DivX VOD atala gailuaren konfigurazio-menuan. Joan http://vod.divx.com helbidera, informazio gehiago jasotzeko zure erregistroa osatzeko moduari buruz.

# Edukiak


**Instalazioa ........ 10**
Bilgarria kentzea ........ 10
SIM edo USIM txartela eta bateria jartzea ........ 10
Bateria kargatzea ........ 12
Memoria-txartela sartzea (aukerakoa) ........ 14

**Nola hasi ........ 16**
Gailua piztea eta itzaltzea ........ 16
Gailuaren aurkezpena ........ 17
S erakuslea eta ukipen-pantaila erabiltzea ........ 21
Ukipen-pantaila eta teklak blokeatzea eta desblokeatzea ........ 23
Pantaila nagusiaren aurkezpena ........ 23
Aplikazioetara sartzea ........ 26
Gailua pertsonalizatzea ........ 28
Testua idaztea ........ 33
Android Marketetik aplikazioak deskargatzea ........ 37
Saretik fitxategiak deskargatzea ........ 38
Datuak sinkronizatzea ........ 38

**Funtzio bereziak erabiltzea ........ 40**
S erakuslearekin egin daitezkeen oinarrizko ekintzak ikastea ........ 40
S erakuslearekin egin daitezkeen ekintza aurreratuak ikastea ........ 41
Mugimenduak ikastea ........ 42
Eskuz idazteko modua erabiltzea ........ 46
S oharra erabiltzea ........ 51
Ohar azkarren panela erabiltzea ........ 54
S antolatzailea erabiltzea ........ 55
Voice talk erabiltzea ........ 57

**Komunikazioa ........ 59**
Deiak ........ 59
Mezuak ........ 65
Google Mail ........ 68
Posta elektronikoa ........ 70
Google Talk ........ 72
Social Hub ........ 73

**Denbora-pasak** ........ **74**
Kamera ........ 74
Bideoak ........ 85
Galeria ........ 86
Argazki-editorea ........ 89
Bideo-errealizadorea ........ 90
Musika ........ 93
Music Hub ........ 96
FM irratia ........ 96

**Informazio pertsonala** ........ **100**
Kontaktuak ........ 102
Egutegia ........ 105
S oharrak ........ 108
Ahots-grabagailua ........ 111

**Internet** ........ **112**
Nabigatzailea ........ 112
Mapak ........ 116
Latitudea ........ 117
Lekuak ........ 118
Nabigazioa ........ 118
YouTube ........ 119
Samsung Apps ........ 120
Market ........ 120
Readers Hub ........ 121
Albisteak eta eguraldia ........ 121

**Konektagarritasuna** ........ **123**
Bluetootha ........ 123
WiFia ........ 125
Wi-Fi Direct ........ 127
AllShare ........ 128
Sare mugikorra partekatzea ........ 131
GPSa ........ 132
PCra konektatzea ........ 133
VPNrako konexioak ........ 136

**Tresnak** ........ **138**
Erlojua ........ 138
Kalkulagailua ........ 141
Deskargak ........ 141
Googleko bilaketa ........ 142
Kies air ........ 142
Egunkari txikia ........ 143
Nire fitxategiak ........ 144
Polaris Office ........ 145
SIM tresna-kita ........ 146
Ataza-kudeatzailea ........ 147
Ahots bidezko bilaketa ........ 147
Voice talk ........ 148

**Doikuntzak** ........ **149**
Doikuntzen menura sartzea ........ 149
Haririk gabeko konexioak ........ 149
Deiak ........ 151
Soinua ........ 153
Pantaila ........ 154
Energia aurreztea ........ 155
Kokapena eta segurtasuna ........ 156
Aplikazioak ........ 158
Kontuak eta sinkronizazioa ........ 159
Mugimendua ........ 159
Pribatutasuna ........ 160
Biltegiratzea ........ 160
Teklatua eta hizkuntza ........ 160
Ahotsaren sarrera eta irteera ........ 163
Irisgarritasuna ........ 165
Dock-aren doikuntzak ........ 166
Eguna eta ordua ........ 166
Arkatzaren doikuntzak ........ 166
Telefonoari buruz ........ 166

**Arazoak konpontzea** ........ **167**

**Segurtasun-neurriak** ........ **173**

**Aurkibidea** ........ **186**

# Instalazioa

## Bilgarria kentzea

Bilatu elementu hauek produktuaren kaxan:

- Gailu mugikorra
- Bateria
- Bizkor hasteko gida

Samsungek onartutako softwarea soilik erabili. Software piratak kalteak edo arazoak eragin ditzake gailuaren funtzionamenduan, eta fabrikatzailearen bermeak ez ditu estaltzen kalte horiek.

- Litekeena da gailuarekin batera datozen elementuak eta osagarriak aldatzea herrialde batetik bestera edo hornitzaile batetik bestera.
- Osagarri gehiago eskuratu ditzakezu Samsungen tokiko hornitzailearen bidez.
- Terminalarekin batera ematen diren osagarriek funtzionatzen dute ondoen zure gailuarekin.
- Gerta daiteke gailuarekin batera eman ez diren osagarriak eta gailua bateraezinak izatea.

## SIM edo USIM txartela eta bateria jartzea

Zerbitzu zelular batean izena ematean, harpidedunaren identifikazio-zenbakia (SIM txartela) jasoko duzu; han daude izen-ematearen datu guztiak, hala nola identifikazio pertsonaleko zenbakia (PIN) eta aukerako

zerbitzuak. UMTS edo HSDPA zerbitzuak erabiltzeko, harpideduna-ren identifikazio-modulu unibertsalaren txartel bat (USIM) eskuratu dezakezu.

SIM edo USIM txartela eta bateria sartzeko:

1 Gailua piztuta badago, luze sakatu pizteko/itzaltzeko tekla, eta hautatu **Apagar > Aceptar**, telefonoa itzaltzeko.

2 Kendu atzeko estalkia.



Kontuz azazkalekin atzeko estalkia kentzean.

3 Sartu SIM edo USIM txartela urre-koloreko kontaktuak beherantz begira dituela.



Antena goiko aldean dago, gailuaren atzealdean. Ez kendu antena estaltzen duen zinta babeslea, hori egiteak antena kaltetu baitezake.

4 Sartu bateria.




5 Jarri berriro atzeko estalkia.




## Bateria kargatzea

Gailua lehen aldiz erabili aurretik, bateria kargatu behar duzu.

Gailua kargatzeko, kargagailua erabil dezakezu, edo PC batera konektatu USB kable baten bidez.

Erabili beti Samsungek onartzen dituen kargagailu eta kableak. Onartu gabeko kargagailuek eta kableek bateria leherrarazi dezakete, eta gailua kaltetu.

- Bateriaren maila baxua denean, gailuak ohartarazpen-tonua igortzen du, eta bateria baxu dagoela dioen mezua bistaratzen du. Gainera, bateriaren ikonoa hutsik agertuko da. Bateria-maila gailuak funtzionatzeko baxuegia bada, itzali egingo da automatikoki. Kargatu bateria gailua erabiltzen jarraitzeko.
- Bateria guztiz deskargatuta badago, ezingo duzu gailua piztu, ezta kargagailua konektatuta dagoela ere. Utzi bateria deskargatua ordu batzuez kargatzen, gailua berriro pizten saiatu aurretik.

## > Kargagailuarekin kargatzea

1 Konektatu kargagailuaren mutur txikia funtzio ugariko hargunera.



Kargagailua gaizki konektatuz gero, baliteke gailuari kalteak eragitea. Bermeak ez ditu barne hartzen okerreko erabileragatik sortutako kalteak.

2 Konektatu kargagailuaren mutur handia elektrizitate-hargune batera.

- Gailua erabil dezakezu kargatzen ari dela, baina baliteke guztiz kargatzeko denbora gehiago behar izatea.
- Gailuak, kargatzen ari dela, elikadura ezegonkorra jasotzen badu, gerta daiteke ukipen-pantailak ez funtzionatzea. Hori gertatzen bada, deskonektatu kargagailua gailutik.
- Kargatzen ari den bitartean, gerta liteke gailua berotzea. Hori normala da, eta du eraginik telefonoaren bizitza erabilgarrian edo errendimenduan.
- Gailua ez bada ongi kargatzen, joan Samsungen zerbitzu-zentro batera, gailua eta kargagailua hartuta.

3 Bateria erabat kargatuta dagoenean, deskonektatu kargagailua gailutik, eta, gero, korronte-hargunetik.

Ez kendu bateria aurrez kargagailua kendu gabe. Hala eginez gero, gailuak kalteak izan ditzake.

Kargagailuak ez du pizteko eta itzaltzeko etengailurik, eta, beraz, ez du elektrizitate-hornidura eteteko aukerarik; ondorioz, erabiltzaileak kendu behar du kargagailua saretik. Gainera, konektatuta dagoenean, entxufetik gertu egon behar du. Energia aurrezteko, deskonektatu kargagailua erabiltzen ari ez zarenean.

**> USB-kable baten bidez kargatzea**

Kargatu aurretik, egiaztatu PCa piztuta dagoela.

1 Konektatu USB kablearen mutur bat (mikro USBa) funtzio ugariko hargunean.

2 Konektatu USB kablearen beste muturra PCaren USB ataketako batean.

Erabiltzen duzun USB kablearen arabera, gerta liteke kargatzearen hasiera segundo batzuk atzeratzea.

3 Bateria guztiz kargatuta dagoenean, deskonektatu USB kablea gailutik, eta, gero, PCtik.

## Memoria-txartela sartzea (aukerakoa)

Multimedia-fitxategi gehiago biltegiratzeko, memoria-txartela sartu behar duzu. 32 GB-ra arteko ahalmena duten microSD® edo microSD-HC® memoria-txartelak onartzen ditu telefonoak (fabrikatzailearen eta memoria-txartel motaren arabera).

Samsungek industriak memoria-txartelentzat onartutako estandarrak erabiltzen ditu, baina baliteke marka batzuk ez izatea guztiz bateragarriak gailuarekin. Bateragarria ez den memoria-txartel bat erabiltzen baduzu, gailua edo memoria-txartela honda dezakezu, baita txartelean gordetako datuak ere.

- Memoria-txarteletan, FAT fitxategi-egitura soilik onartzen du gailuak. Fitxategi-egitura ezberdinarekin formateatu den txartel bat sartzen baduzu, berriz formateatzeko eskatuko dizu gailuak.
- Datuak sarri idazten eta ezabatzen arituz gero, memoria-txartelaren bizitza erabilgarria murriztu egiten da.
- Gailuan memoria-txartel bat sartzen duzunean, memoria-txartelaren fitxategi-direktorioa external_sd karpetan agertuko da, barne-memoriaren barruan.

1 Kendu atzeko estalkia eta bateria.

2 Sartu memoria-txartel bat urre-koloreko kontaktuak beherantz begira dituela.



3 Sartu memoria-txartela horretarako dagoen zirrikituan, dagokion tokian geratzen den arte.

4 Jarri berriro bateria eta atzeko estalkia.

### > Memoria-txartela kentzea

Memoria-txartel bat kendu aurretik, desmuntatu, seguru erauzteko.

1 Hasiera-pantailan, hautatu **Aplicaciones > Ajustes > Almacenamiento > Retirar tarjeta SD > Aceptar.**

2 Kendu atzeko estalkia eta bateria.

3 Sakatu leun memoria-txartelean, gailutik atera arte.

4 Atera memoria-txartela.

5 Jarri berriro bateria eta atzeko estalkia.

### > Memoria-txartela formateatzea

Memoria-txartela PC batean formateatzen baduzu, litekeena da gailuarekin bateragarria ez izatea. Gailuan bakarrik formateatu memoria-txartela.

Hasiera-pantailan, hautatu **Aplicación > Ajustes > Almacenamiento > Retirar tarjeta SD > Aceptar > Formatear tarjeta SD > Formatear tarjeta SD > Borrar todo.**

Memoria-txartela formateatu aurretik, gogoan izan gailuan gordetako datu garrantzitsu guztiek segurtasun-kopia egin behar dela. Fabrikatzailearen bermeak ez ditu estaltzen erabiltzaileen ekintzek eragindako datu-galerak.

# Nola hasi

## Gailua piztea eta itzaltzea

Gailua pizteko, luze sakatu pizteko tekla. Gailua lehen aldiz piztean, jarraitu pantailako argibideei gailua konfiguratzeko.

Telefonoa itzaltzeko, luze sakatu pizteko/blokeatzeko tekla, eta hautatu **Apagar > Aceptar > Sí**.

- Haririk gabeko gailuak debekatuta dauden eremuetan zaudenean (hegazkinetan eta ospitaletan, adibidez), bete langile ofizialek egindako ohar eta argibide guztiak.
- Gailuaren sarerik gabeko zerbitzuak bakarrik erabiltzeko, hegazkin-moduan jarri gailua. Luze sakatu pizteko/blokeatzeko tekla, eta hautatu Modo avión.

# Gailuaren aurkezpena

## > Gailuaren diseinua




1. Aktibatu, soilik, bozgorailuaren edo bideo-grabagailua erabiltzen duzunean.




## > Teklak

| Tekla | Funtzioa |
|---|---|
| Pizteko/ Berrabiarazteko[2]/ Blokeatzeko tekla | Gailua pizteko (luze sakatuta), menu bizkorretara sartzeko (luze sakatuta), gailua berrabiarazteko (luze sakatu 10-15 segundoz), ukipen-pantaila blokeatzeko. |
| Menu-tekla | Uneko pantailan dauden aukeren zerrenda irekitzeko, pantaila nagusian dauden aukerak irekitzeko, Googleren bilaketa-aplikazioa irekitzeko (luze sakatuta), zenbait aplikazio erabiltzean bilaketa-leihoa irekitzeko (luze sakatuta). |

1. Ez ukitu antenaren eremua eta ez estali eremu hori eskuekin edo bestelako objektuekin haririk gabeko funtzioak erabiltzen ari zarenean.
2. Zure gailuak errore larri bat bistaratzen badu, deia mozten bada edo irudia izozten bada, baliteke berrabiarazi egin behar izatea ondo funtzionatzeko.

| Tekla | | Funtzioa |
|---|---|---|
| | Hasiera | Pantaila nagusira itzultzeko, erabili berri diren aplikazioen zerrenda irekitzeko (luze sakatuta), ahots-aplikazioa irekitzeko (bi aldiz sakatuta). |
| | Atzeratekla | Aurreko pantailara itzultzeko. |
| | Bolumena | Gailuaren bolumena doitzeko. |

## > Ikono adierazleak

Pantailan bistaratzen diren ikonoak aldatu egin daitezke herrialdearen eta zerbitzu-hornitzailearen arabera.

| Ikonoa | Definizioa |
|---|---|
| | Ez dago seinalerik |
| | Seinalearen intentsitatea |
| | GPRS sarea konektatuta |
| | EDGE sarea konektatuta |
| | UMTS sarea konektatuta |
| | HSDPA sarea konektatuta |
| | AllShare abian |
| | WLAN irekiak erabilgarri |
| | WLAN konektatuta |
| | Zuzeneko WLAN konektatuta |
| | Bluetooth funtzioa aktibatuta |

| Ikonoa | Definizioa |
|---|---|
|  | Bluetooth entzungailua konektatuta |
|  | GPSa aktibatuta |
|  | Deia martxan |
|  | Deia zain |
|  | Bozgorailua aktibatuta |
|  | Dei galdua |
|  | Webarekin sinkronizatuta |
|  | Datuak kargatzen |
|  | Datuak deskargatzen |
|  | Deiak desbideratzeko aukera aktibatuta |
|  | PC batekin konektatuta |
|  | USB modema aktibatuta |
|  | WLAN sarbide-puntua aktibatuta |
|  | SIM edo USIM txartelik gabe |
|  | Testu-mezu edo multimedia mezu berria |
|  | Mezu elektroniko berria |
|  | Mezu berria ahots-postontzian |
|  | Alarma aktibatuta |
|  | Gertakizunen jakinarazpenak |
|  | Desplazamenduan (ohiko zerbitzu-eremutik kanpo) |
|  | Modu isila aktibatuta |
|  | Bibrazio modua aktibatuta |
|  | Hegazkin modua aktibatuta |
|  | Musika erreproduzitzen |
|  | Musikaren erreprodukzioa etenda |
|  | FM irratia piztuta bigarren mailan |
|  | Errorea gertatu da edo kontuz ibili behar da |
|  | Bateriaren karga-maila |
| 10:00 | Uneko ordua |

# S erakuslea eta ukipen-pantaila erabiltzea

Gailuko ukipen-pantailaren bidez, erraz hauta ditzakezu elementuak, bai eta funtzioak egin ere. Ikas itzazu ukipen-pantaila erabiltzeko oinarrizko ekintzak.

- Pantailan arrastorik ez egiteko, ez erabili tresna puntadunik.
- Ukipen-pantailak ez du ukitu behar beste gailu elektrikorik. Deskarga elektrostatikoek ukipen-pantailaren funtzionamenduan eragin dezakete.
- Ukipen-pantailak ez du ura ukitu behar. Litekeena da ukipen-pantailak ongi ez funtzionatzea ingurune hezeetan edo bustitzen denean.
- Ez tolestu S erakuslea.
- S erakuslearen muturra ezin da aldatu.

- Ukipen-pantaila ahalik eta ondoen erabiltzeko, kendu pantailaren geruza babeslea gailua erabili aurretik.
- Samsungen banatzaileari eros diezaiokezu ordezko S erakusle bat.
- S erakusleak ez badu ondo funtzionatzen, eraman ezazu Samsungen zerbitzu-zentro batera.
- Emaitza hobeak lortzeko, ukipen-pantailarekiko perpendikularrean jarri S erakuslea, eta saiatu angelu zorrotzegietan ez erabiltzen.

Ekintza hauen bidez kontrola dezakezu ukipen-pantaila:

- Sakatu: Hatzarekin edo emandako S erakuslearekin behin sakatu, menu bat, aukera bat edo aplikazio bat hautatzeko edo abiarazteko.
- Luze sakatu: Sakatu elementu bat 2 segundo baino luzaroago, aukeren zerrenda bat irekitzeko.
- Arrastatu: Sakatu eta arrastatu hatza gorantz, beherantz, ezkerrerantz edo eskuinerantz, zerrendetako elementuak mugitzeko.
- Arrastatu eta askatu: Luze sakatu elementu bat hatzarekin, eta, gero, arrastatu hatza elementua mugitzeko.

- Sakaldi bikoitza: Sakatu arin hatzarekin bi aldiz argazkiak edo webguneak ikusten ari zarela, haiek handitzeko edo txikitzeko.

- Funtzio gehigarriak egin ditzakezu gailuarekin batera datorren S erakuslearekin. ▶ 42. or.
- Gailuak desaktibatu egiten du ukipen-pantaila denbora-tarte jakin batean erabiltzen ez baduzu. Pantaila aktibatzeko, sakatu Pizteko tekla edo Hasierako tekla.
- Atzeko argiztapeneko denbora ere doitu dezakezu. Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **Ajustes > Pantalla > Pantalla tiempo de espera**.

## Ukipen-pantaila eta teklak blokeatzea eta desblokeatzea

Gailuarekin egin nahi ez dituzun eragiketarik ez egiteko, ukipen-pantaila eta teklak blokea ditzakezu.

Blokeatzeko, sakatu pizteko tekla. Desblokeatzeko, pizteko tekla edo hasierako tekla sakatu pantaila aktibatzeko, ukitu pantailaren edozein zati, eta, gero, arrastatu 🔒 zirkulu handitik kanpora.

Pantaila blokeatzeko funtzioa aktiba dezakezu, beste inor zure datu pertsonaletara eta gailuan gordetako informaziora sar ez dadin. ▶ 32. or.

## Pantaila nagusiaren aurkezpena

Gailua modu horretan dagoenean, pantaila nagusia ikusiko duzu. Pantaila nagusian, ikono adierazlean, widgetak, lasterbideak, aplikazioak eta beste zenbait elementu dituzu ikusgai.

Pantaila nagusiak hainbat panel ditu. Mugitu ezkerrera edo eskuinera, pantaila nagusiaren panel batera iritsi arte. Halaber, pantailaren beheko puntu bat hauta dezakezu dagokion panelera zuzenean joateko.

### › Pantaila nagusira elementuak eranstea

Pantaila nagusia pertsonaliza dezakezu, aplikazioei zuzeneko sarbideak erantsiz edo aplikazioei elementuak, widgetak edota karpetak gehituz. Pantaila nagusira elementuak eransteko:

1 Sakatu **Añadir** edo luze sakatu pantaila nagusiaren eremu hutsa.

2 Hautatu elementuaren kategoria > elementu bat:

- **Widgets:** pantaila nagusira widgetak erants ditzakezu.
- **Accesos:** elementuetarako (aplikazioak, gogokoak eta kontaktuak, besteak beste) lasterbideak gehitzeko.
- **Karpetak:** Karpeta berri bat sortzeko edo kontaktuentzako karpetak gehitzeko.
- **Pantaila-atzealdeak:** Atzeko irudia zehazteko.

> **Pantaila nagusian elementuak lekuz aldatzea**

1 Luze sakatu elementu bat.

2 Arrastatu elementua nahi duzun tokiraino.

> **Pantaila nagusitik elementuak kentzea**

1 Luze sakatu elementu bat.
Zakarrontzia pantaila nagusiaren beheko aldean agertuko da.

2 Arrastatu elementua zakarrontzira.

3 Elementua gorri azaltzen denean, askatu.

> **Jakinarazpen-panela erabiltzea**

Pantaila nagusian, edo aplikazio bat erabiltzen ari zarela, sakatu ikono adierazleen eremua eta arrastatu hatza beherantz, jakinarazpen-panela irekitzeko. Haririk gabeko konexioaren funtzioak aktiba edo desaktiba ditzakezu, eta jakinarazpenen zerrendara sartu, mezuak, deiak, gertaerak edo prozesaketaren egoera ezagutzeko. Panela ezkutatzeko, arrastatu zerrendaren beheko aldea gorantz.

Jakinarazpen-panelean, aukera hauek erabil ditzakezu:

- **WiFi**: WLAN konexioaren funtzioa aktibatzeko edo desaktibatzeko. ▶ 129. or.
- **Bluetooth**: haririk gabeko bluetooth funtzioa aktibatzeko edo desaktibatzeko. ▶ 126. or.
- **GPS**: GPS funtzioa aktibatzeko edo desaktibatzeko.
- **Modo Silencio**: bibrazio-profila aktibatu edo desaktibatzeko.
- **Rotación autom**: biraketa automatikoa aktibatzeko edo desaktibatzeko.

Eskuragarri dauden aukerak aldatu egin daitezke zerbitzu-hornitzailearen edo zu zauden eremuaren arabera.

### > Pantaila nagusian panelak jarri edo kentzea

Pantaila nagusian panelak jarri edo kendu ditzakezu, zure widgetak antolatzeko.

1 Pantaila nagusian, sakatu [≡] > **Editar.**

Hatzak pantailan jarri eta azkar elkartu ditzakezu, Editar modura igarotzeko.

2 Panelak gehitzeko, kentzeko edo berrantolatzeko:

- Panel bat kentzeko, luze sakatu panelaren miniatura, eta arrastatu zakarrontzira (pantailaren behealdean dago).
- Panel berri bat gehitzeko, hautatu ＋.
- Panelen ordena aldatzeko, luze sakatu panelaren miniatura, eta arrastatu kokapen berrira.

3 Amaitutakoan, sakatu [↩].

## Aplikazioetara sartzea

Gailuaren aplikazioetara sartzeko:

1 Pantaila nagusian, hautatu **Aplicación** aplikazioen zerrendara sartzeko.

2 Joan ezkerrera edo eskuinera, beste pantaila bateraino.

Halaber, pantailaren beheko puntu bat hauta dezakezu dagokion panelera zuzenean joateko.

3 Hautatu aplikazio bat.

- Googlek emandako aplikazioak erabiltzeko, Googlen kontu bat izan behar duzu.
- Aplikazio baterako lasterbidea gehitu dezakezu, aplikazio-zerrendan aplikazio horren ikonoa luze sakatzen baduzu. Zuzeneko sarbideen ikonoak pantaila nagusiaren edozein tokira mugi ditzakezu.

4 Sakatu [ ] aurreko pantailara itzultzeko; sakatu **Inicio** tekla pantaila nagusira itzultzeko.

Funtzio jakin batzuk erabiltzen dituzun bitartean gailua biratzen baduzu, interfazea ere automatikoki biratuko da. Interfazeak biratzerik nahi ez baduzu, ireki jakinarazpen-panela, eta aukeratu **Rotación autom.**

### > Aplikazioak antolatzea

Zerrendako aplikazioak berrantola ditzakezu, haien ordena aldatuta edo kategoriatan multzokatuta.

1 Aplikazioen zerrendan, sakatu [ ] > **Editar** > **Aceptar.**

2 Luze sakatu aplikazio baten ikonoa.

3 Arrastatu aplikazioaren ikonoa kokapen berrira. Beste pantaila batera mugi dezakezu aplikazio baten ikonoa. Halaber, gehien erabiltzen dituzun aplikazioak **Inicio** ondoan jar ditzakezu.

4 Sakatu [ ] > **Guardar.**

Pantaila nagusira karpeta bat edo panel bat gehitzeko,

1 Aplikazioen zerrendan, sakatu [▤] > **Editar.**

2 Luze sakatu aplikazio baten ikonoa.

3 Arrastatu aplikazioaren ikonoa **Añadir carpeta** edo **Añadir página** aukerara, pantailaren behealdean.

4 Arrastatu **Añadir carpeta** edo **Añadir página** pantaila nagusirantz-Karpeta edo panel berri bat gehituko da, aplikazioekin, pantaila nagusian.

5 Karpeta bat gehitu baduzu, jarri izena eta aukeratu **Aceptar**.

6 Sakatu [▤] > **Guardar.**

Panelen ordena aldatzeko,

1 Aplikazioen zerrendan, jarri bi hatz pantailaren gainean, eta elkartu itzazu azkar.

2 Luze sakatu panel baten irudi txikia eta arrastatu kokapen berrira.

**>Duela gutxi erabilitako aplikazioetara sartzea**

1 Luze sakatu hasierako tekla, duela gutxi erabili dituzun aplika-zioak ikusteko.

2 Hautatu aplikazio bat.

### > Ataza-kudeatzailea erabiltzea

Gailuak hainbat lan egin ditzake aldi berean; horrenbestez, aplikazio bat baino gehiago exekutatu dezakezu batera. Hala ere, lan asko aldi berean exekutatzeak etenak sor ditzake komunikazioan, blokeoak eragin, memoria-arazoak sortu edo ohikoa baino energia gehiago kontsumitu. Arazo horiek saihesteko, itxi behar ez dituzun programak ataza-kudeatzailearen bidez.

1. Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **Administr. de tareas > Aplicaciones activas.**
   Gailuan aktibo dauden aplikazio guztien zerrenda bat agertuko da.

2. Aplikazio bat ixteko, hautatu **Salir**.

Aplikazio aktibo guztiak ixteko, hautatu **Salir de todo**.

## Gailua pertsonalizatzea

Pertsonalizatu gailua zure lehenespenen arabera, ahalik eta gehien aprobetxatzeko.

### > Uneko data eta ordua definitzea

1. Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **Ajustes > Fecha y hora**.

2. Definitu data eta ordua, eta aldatu beste aukerak.

### > Tonu bidezko markaketa piztea edo itzaltzea

Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **Ajustes > Sonido > Selección audible.**

### > Melodiaren bolumena doitzea

Sakatu bolumen-tekla gorantz edo beherantz, melodiaren bolumena doitzeko.

### > Modu isilera aldatzea

Gailuaren soinua aktibatzeko edo desaktibatzeko, egin hauetako bat:

- Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, hautatu Teléfono > Teclado, eta luze sakatu #.
- Luze sakatu pizteko tekla, eta hautatu Modo Silencio.
- Ireki lasterbideen panela (pantailaren goiko aldean), eta hautatu Modo Silencio.

Zenbait gertaeratan modu isilean abisatzeko defini dezakezu gailua. Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **Ajustes > Sonido > Vibración > Siempre** edo **Solo en modo silencio.**

### > Melodia aldatzea

1. Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **Ajustes > Sonido > Melodía del teléfono.**
2. Hautatu zerrendako melodia bat, eta hautatu **Aceptar**.

### > Leihoak aldatzeko animazio bat aktibatzea

Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **Ajustes > Pantalla > Animación > Algunas animaciones** edo **Todas las animaciones.**

### > Pantaila nagusirako atzealdea hautatzeko

1. Pantaila nagusian, sakatu [≡] **> Fondos >** aukera bat.
2. Hautatu irudi bat.
3. Hautatu **Guardar** edo **Definir fondo de pantalla.**

Samsung ez da irudi lehenetsiak edo atzealdeko irudiak gaizki erabiltzearen arduraduna.

### > Pantailaren distira doitzea

1. Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **Ajustes > Pantalla > Brillo.**
2. Desaktibatu **Brillo automático**-ren ondoko egiaztapen-laukia.
3. Arrastatu kontrol lerragarria, distira doitzeko.
4. Hautatu **Aceptar**.

Definitzen duzun distira-mailak eragina du gailuak bateria kontsumitzeko abiaduran.

### > Pantaila-blokeo bat zehaztea

Pantaila blokea dezakezu, blokeatzeko funtzioa aktibatuta. Gailuak eredua, PINa edo desblokeatzeko pasahitza eskatuko dizu pizten duzun bakoitzean, edota ukipen-pantaila desblokeatzean.

- Desblokeatzeko kodea ahazten baduzu, joan Samsungen zerbitzu-zentro batera gailuarekin, berrezar dezaten.
- Legez kanpoko softwareak erabiltzearen ondorioz segurtasun-kodeak edo informazio pribatua galduz gero edo beste kalte bat jasanez gero, Samsung ez da egingo kalte horien arduradun.

#### Desblokeatzeko eredua zehaztea

1. Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **Ajustes > Ubicación y seguridad > Defin bloqueo de pantalla > Patrón.**
2. Irakurri pantailako argibideak, ikusi adibide gisa emandako ereduak, eta hautatu **Siguiente.**
3. Eredu bat marraztu, gutxienez lau puntu lotzeko, hatza arrastatuz, eta hautatu **Continuar.**
4. Marraztu berriro eredua, berresteko, eta hautatu **Confirmar.**

### Desblokeatzeko PINa zehaztea

1. Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **Ajustes > Ubicación y seguridad > Defin bloqueo de pantalla > PIN.**
2. Sartu PIN berria (zenbakizkoa), eta hautatu **Continuar**.
3. Sartu PINa berriro, eta hautatu **Aceptar**.

### Desblokeatzeko pasahitza zehaztea

1. Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **Ajustes > Ubicación y seguridad > Defin bloqueo de pantalla > Contraseña.**
2. Sartu beste pasahitz bat (alfanumerikoa), eta hautatu **Continuar.**
3. Sartu pasahitza berriro, eta hautatu **Aceptar**.

### > SIM edo USIM txartela blokeatzea

Gailua blokeatu dezakezu SIM edo USIM txartelak dakarren PINarekin.

1. Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **Ajustes > Ubicación y seguridad > Definir bloqueo de tarjeta SIM > Bloquear tarjeta SIM.**
2. Sartu PINa, eta hautatu **Aceptar**.

SIMa blokeatzeko funtzioa aktibatuta dagoela, PINa idatzi behar duzu gailua pizten duzun bakoitzean.

- PIN okerra gehiegitan idazten baduzu, SIM edo USIM txartela blokeatu egingo da. PINa desblokeatzeko kodea (PUKa) sartu behar duzu, SIM edo USIM txartela desblokeatzeko.
- PUK okerra idatzi eta SIM edo USIM txartela blokeatzen bada, eraman txartela zerbitzuen hornitzaileari desblokea dezan.

### > Mugikor-bilatzailearen funtzioa aktibatzea

Gailuan SIM edo USIM txartel berri bat sartzen denean, mugikor-bilatzailearen funtzioak kontaktu-zenbakia bidaltzen die bi hartzaileri, gailua kokatu eta berreskuratu ahal izateko.

Funtzio hori erabiltzeko, Samsungeko kontu bat behar duzu, gailua webgunearen bidez urrutitik kontrolatzeko.

1 Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta **hautatu Ajustes > Ubicación y seguridad > Alerta de cambio de SIM**.

2 Hautatu **Continuar.**

3 Sartu zure helbide elektronikoa eta Samsungeko kontuaren pasahitza, eta hautatu **Iniciar sesión.**
Samsungeko kontu bat sortzeko, hautatu **Crear cuenta.**

4 Hautatu **Enviar mensaje a.**

5 Sartu berriro Samsungeko zure kontuaren pasahitza, eta hautatu **Confirmar.**

6 Idatzi telefono-zenbaki bat, herrialdeko kodea barne *(+* sartuta*)*.

7 Idatzi hartzaileei bidali nahi zaien testu-mezua.

8 Hautatu **Finalizado**.

# Testua idaztea

Testua idazteko, teklatu birtualeko karaktereak hauta ditzakezu edo eskuz idatz dezakezu pantailan.

Zenbait hizkuntzatan ezingo dituzu testuak idatzi. Testua idazteko, bateragarria den hizkuntzetako batera aldatu behar duzu idazteko hizkuntza. ▶ 163. or.

## > Teklatu-mota aldatzea

Teklatu-mota alda dezakezu. Luze sakatu testua sartzeko eremua, eta hautatu **Método de introducción** > teklatu-mota bat (Swype edo Samsung teklatua).

## > Swype teklatuaren bidez testua sartzea

1 Ukitu hitz baten lehen karakterea, eta arrastatu hatza bigarren karakterera hatza pantailatik kendu gabe.

2 Jarraitu hitza idazten amaitu arte.



3 Kendu hatza.

4 Gailuak hitz zuzena ezagutzen duenean, hautatu (...) hutsune bat sartzeko. Gailuak hitza ezagutzen ez badu, hautatu agertzen den zerrendako beste hitz bat.

5 Errepikatu 1etik 4ra bitarteko pausoak testua osatzeko.

- Teklak ere saka ditzakezu testua sartzeko.
- Tekla bat luze sakatuta, goiko aldean agertzen diren karaktereak sartu ditzakezu. Tekla bat luze sakatzen baduzu karaktere-zerrenda agertu arte, karaktere bereziak eta ikurrak sar ditzakezu.

Tekla hauek ere erabil ditzakezu:




| Zenbakia | Funtzioa |
|---|---|
| 1 | Maiuskuletara eta minuskuletara aldatzeko. |
| 2 | Teklatuaren doikuntzetara sartzeko; hautatutako karaktereentzako aukerazko hitzen zerrenda bistaratzeko; laguntza-informazioa irekitzeko (luze sakatuta). |
| 3 | Zenbakizko moduaren, ikur-moduaren eta ABC moduaren artean aldatzeko. |
| 4 | Idazketa-hizkuntza aldatzeko; sarrera-hizkuntza hautatzeko (luze sakatuta). |
| 5 | Sarrera ezabatzeko. |
| 6 | Beste lerro bat hasteko. |
| 7 | Testua ahots bidez sartzeko.<br>Testua sartzeko hautatu den hizkuntzaren arabera, baliteke funtzio hori erabilgarri ez egotea. |
| 8 | Zuriune bat sartzeko. |

### › Samsung teklatuaren bidez testua sartzea

1. Hautatu ⚙ › **Tipos de teclados verticales**, eta hautatu testua sartzeko metodo bat (QWERTY teklatua edo tradizionala).
2. Hautatu tekla alfanumerikoak edo idatzi pantailan testua idazteko.

Tekla hauek ere erabil ditzakezu:




| Zenbakia | Funtzioa |
|---|---|
| 1 | Maiuskuletara eta minuskuletara aldatzeko. |
| 2 | Zenbakizko moduaren, ikurren moduaren eta ABC moduaren artean aldatzeko. |
| 3 | Testuak idazteko modua aldatzeko eta teklatuaren doikuntzetara sartzeko (luze sakatu). |
| 4 | Testua ahotsaren bidez sartzeko; Samsung teklaturen testua ahots bidez sartzeko funtzioa aktibatzen denean soilik dago erabilgarri ikono hau.<br>Testua sartzeko hautatu den hizkuntzaren arabera, baliteke funtzio hori erabilgarri ez egotea. |
| 5 | Sarrera ezabatzeko. |
| 6 | Eskuz idazteko modura aldatzeko. |
| 7 | Beste lerro bat hasteko. ▶ 48. or. |
| 8 | Zuriune bat sartzeko. |

### > Testua kopiatzea eta itsastea

Testu-eremu batean, kopiatzeko eta itsasteko funtzioa erabil dezakezu, testua beste aplikazio batzuetan erabiltzeko.

1. Kokatu kurtsorea kopiatu nahi duzun testuan.
2. Hautatu .
3. Hautatu **Seleccionar** ... edo **Seleccionar t**...
4. Arrastatu edo , testua hautatzeko.
5. Hautatu **Copiar** kopiatzeko, edo **Cortar** testu osoa ebaki eta arbelean jartzeko.
6. Beste aplikazio batean, jarri kurtsorea testua itsatsi nahi duzun tokian.
7. Hautatu **> Pegar** arbeleko testua testu-eremuan sartzeko.

# Android Marketetik aplikazioak deskargatzea

Zure gailuaren funtzionaltasuna zabaldu egin daiteke, Android plataforman oinarritutako aplikazio gehigarriak instalatuta.

Jokoak eta aplikazio mugikorrak erosteko modu erraza eta bizkorra da Android Market.

- Baliteke funtzio hori erabilgarri ez egotea, herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.
- Barne-memorian deskargatutako aplikazioen erabiltzaile-fitxategiak gordeko ditu zure gailuak.

### › Aplikazio bat instalatzea

1. Pantaila nagusian, ireki aplikazio-zerrenda, eta hautatu **Market**.
2. Aplikazio hau abiarazten duzun lehen aldia bada, irakurri baldintzak, eta hautatu **Aceptar**.
3. Bilatu fitxategi edo aplikazio bat, eta deskargatu.

### › Aplikazio bat desinstalatzea

1. Android Marketen pantaila nagusian, hautatu **Mis aplicaciones.**
2. Hautatu elementu bat.
3. Hautatu **Desinstalar > Aceptar.**

## Saretik fitxategiak deskargatzea

Baliteke saretik deskargatutako fitxategiek gailua kalte dezaketen birusak edukitzea. Arriskua murrizteko, iturri fidagarrietako fitxategiak bakarrik deskargatu.

Multimedia-fitxategi batzuek eskubide digitalen administrazioa dute (Digital Rights Management), jabetza intelektualeko eskubideak babesteko. Babes horri esker, zenbait fitxategi ezin dira deskargatu, kopiatu, aldatu edo transferitu.

Saretik fitxategiak deskargatzeko:

1 Pantaila nagusian, ireki aplikazio-zerrenda, eta hautatu **Navegador.**

2 Bilatu fitxategi edo aplikazio bat, eta deskargatu.

Android Market ez den webguneetatik deskargatutako aplikazioak instalatzeko, hautatu **Ajustes > Aplicaciones > Fuentes desconocidas > Aceptar.**

## Datuak sinkronizatzea

Sareko hainbat zerbitzarirekin sinkroniza ditzakezu datuak, haien segurtasun-kopiak egin eta datuak berrezar ditzakezu.

Sinkronizatzen amaitutakoan, sarera konektatuta egoten da gailua. Datuetan aldaketaren bat egiten bada, informazio eguneratua automatikoki sinkronizatuko da gailuaren eta web-zerbitzariaren artean.

Baliteke funtzio hori erabilgarri ez egotea, herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.

> **Zerbitzari-kontu bat konfiguratzea**

1. Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **Ajustes > Cuentas y sincronización.**
2. Hautatu **Añadir cuenta >** kontu-mota bat.
3. Jarraitu pantailan agertuko diren jarraibideei kontuaren konfigurazioa osatzeko.

> **Sinkronizazio automatikoa aktibatzea**

1. Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **Ajustes > Cuentas y sincronización.**
2. Hautatu **Sincronización automática.**
3. Hautatu kontu bat.
4. Hautatu sinkronizatu nahi dituzun aplikazioak.

Sinkronizazio automatikoko aplikazioak baztertzeko, kendu aplikazioen ondoko kontrol-laukitxoen markak.

> **Datuak eskuz sinkronizatzea**

1. Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **Ajustes > Cuentas y sincronización.**
2. Hautatu kontu bat.
3. Hautatu **Sincronizar ahora.** Sinkronizatzeko konfiguratu dituzun datuak sinkronizatzen hasiko da gailua.

# Funtzio bereziak erabiltzea

Gailua agenda ahaltsu gisa erabil dezakezu, testua idazten, irudiak hartzen eta mugimendu- edo ahots-kontrolak erabiltzen laguntzen dizuten hainbat funtziori esker.

## S erakuslearekin egin daitezkeen oinarrizko ekintzak ikastea

Gailuak S erakusle espezializatua dakar berekin. Ekintza hauek egiteko, atera S erakuslea gailuaren beheko aldean dagoen zirrikitutik.



Ukipen-teklak ezin dira S erakuslearekin sakatu.

- Sakatu: sakatu pantailako elementu edo eremu bat elementu bat hautatzeko, menu bat irekitzeko edo aplikazio bat abiarazteko.
- Luze sakatu: S erakuslea luze sakatu elementu baten gainean bi segundo baino luzaroagoan.
- Sakaldi bikoitza: Ukitu elementu bat edo pantailako eremu bat bi aldiz, azkar.
- Desplazatzea: ukitu pantailako eremu bat eta arrastatu S erakuslea gorantz, beherantz, ezkerrerantz edo eskuinerantz, zerrendetan edo pantailetan zehar mugitzeko.
- Marraztea: marraztu lerro edo forma bat marrazketa-panelean.
- Idaztea: idatzi testua eskuz idazteko panelean.

## S erakuslearekin egin daitezkeen ekintza aurreratuak ikastea

Luze sakatu S erakuslearen alde batean dagoen botoia, ekintza hauek egiteko:



**Atzera**

Arrastatu S erakuslea ezkerrerantz, aurreko pantailara itzultzeko.



**Menua**

Arrastatu S erakuslea gorantz, uneko pantailan eskura dauden aukeren zerrenda bat irekitzeko.



**Irudia hartzea**

Luze sakatu pantaila, irudia hartzeko.

Hartu ondoren, hori ebaki edo horren gainean marraztu edo idatz dezakezu. Irudi editatua hemen gordeko da: **Mis archivos > Screen capture > Capture_edited**

Ezingo duzu pantailan irudi bat hartu kamara erabiltzen ari zarela edo bideoa erreproduzitzen ari zarela.

## S erakuslearekin egin daitezkeen ekintza aurreratuak ikastea

Luze sakatu S erakuslearen alde batean dagoen botoia, ekintza hauek egiteko:



**Ohar azkarra**

Bi aldiz sakatu ohar azkarraren funtzioa abian jartzeko.

# Mugimenduak ikastea

Mugimendua ezagutzen duen sistema integratuak kontrol hobetuak eskaintzen ditu. Ekintzak egin ditzakezu gailua mugituta edo eskuekin keinuak eginda.

Funtzio horietako batzuk erabiltzeko, mugimenduaren ezagutza-funtzioa aktibatu beharko duzu lehendabizi. Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **Ajustes > Movimiento > Activación de movimiento.**

### Mugitzea

Mugitu gailua bluetootha darabilten gailuak bilatzeko.



### Bi aldiz sakatzea

Voice talk erabiltzen ari zarela, abiarazi ahotsa ezagutzeko aplikazioa, gailua bi aldiz azkar sakatuta.



### Okertzea

Gailua bi eskuekin eusten ari zarela, luze sakatu pantailako bi puntu eta okertu gailua aurrerantz edo atzerantz, zooma handitzeko edo murrizteko.



### Eskua gainetik pasatzea

Pasatu eskua pantailaren gainetik irudi bat hartzeko.

Irudia hemen gordeko da: **Mis archivos > ScreenCapture.**





Ezingo duzu pantailan irudi bat hartu kamara erabiltzen ari zarela edo bideoa erreproduzitzen ari zarela.

### Eskuarekin ukitzea

Ukitu pantaila eskuarekin, multimedia-erreprodukzioa eteteko edo irratia isilarazteko.



## Sakatzea eta biratzea

Jarri hatz bat pantailan eta biratu, irudia birarazteko.



## Desplazatzea

Luze sakatu elementu bat pantailan, eta mugitu gailua ezkerrerantz edo eskuinerantz elementua pantaila nagusiko beste orri batera edo aplikazio-zerrendara mugitzeko.



### Iraultzea

Jarri gailua buruz behera doinuak isilarazteko.



## Eskuz idazteko modua erabiltzea

Samsungen teklatuarekin, eskuz idazteko modua erabil dezakezu testua errazago sartzeko. Eskuz idazteko modura igarotzeko, hautatu .



Idatzi testua eskuz idazteko panelean. Gailuak hitz zuzena ezagutzen duenean, hautatu ⎵ testua idazteko eremuan hura sartzeko. Bestela, hautatu ordezko hitzen zerrendako hitz bat.




Eskuz idazteko moduan, hainbat keinu erabil ditzakezu testua editatzeko. Keinu horiei buruzko informazio gehiago izateko, hautatu ⚙ **> Configuración de escritura a mano > Guía de movimiento.**

Samsung teklatura aldatzeko, hautatu ⌨ .

## > Arkatza detektatzea

Gailuak S erakuslearekin egindakoak detektatu ditzake. S erakuslearekin eremu bat sakatzean, gailuak eskuz idazteko panela irekiko du. Funtzio hori erabiltzeko, hautatu ⚙ **> Detección de lápiz.**

## > Gida

Karaktere bat idatzi ondren, idatzi hurrengoa. Idatzi letra bakoitza aurreko karakterearen eskuinaldean. Aurreko karakterearen gainean irudi bat marrazten baduzu, beste karaktere baten gisa identifika daiteke.

- Adibidez; ez du ezagutzen.



• Karaktereak zuzen idatzi (ez okertu).

- Adibidez; ezagutzen du.




- Adibidez; ez du ezagutzen.




• Ez idatzi karaktereak bata bestearen gainean.

- Adibidez; ezagutzen du.




- Adibidez; ez du ezagutzen.



• Hizkuntza gehienetan, karaktere soilak ezagutzeaz gain lotuta idatzitako karaktereak ezagutu daitezke, hitzak sortzeko. (Hitzak eta esaldiak onartzea deritzo horri.) Hitzak eta esaldiak onartzen ez dituzten hizkuntzak gida honetan agertu behar dira. (SIP eskuz idazteko modua onartzen duten hizkuntza guztiek hitzak eta esaldiak onartu behar dituzte.)

- Hitzak eta esaldiak onartzen dituzten hizkuntzak: English UK, English US, Čeština, Български, Dansk, Deutsch, Ελληνικά, Español, Eesti, Suomi, Français, Hrvatski, Magyar, íslenska, Italiano, K,a3aK, th^-Oâ  Lietuvi ки , Latviešu, Norsk, Nederlands, Polski, Português, Romnă, PpaccW/i, Slovenčina, Slovenščina, Srpski, Svenska, Türkçe,yKáĭHCbKa
- Karaktereak ezagutzeko aukera ematen dute.




- Hitzak eta esaldiak ezagutzeko aukera ematen dute.




• Zenbait hizkuntzatan, idazkera etzana ezagutu daiteke. (Idazkera etzana ezagutzea.)

- Idazkera etzana ezagutzeko aukera ematen duten hizkuntzen kasuan, karaktere lotuak ere ezagutu beharko lirateke.
- Idazkera etzana ezagutzea onartzen ez duten hizkuntzen kasuan, karaktereak bereizita idatzi behar dira.
- Idazkera etzana onartzen ez duten hizkuntzak gida honetan agertu behar dira.
- Idazkera etzana onartzen duten hizkuntzak: English UK, English US, Deutsch, Español, Français, Italiano, Nederlands, Português
- Idazkera etzana onartzen ez duten hizkuntzak: Čeština, Български, Ελληνικά, Eesti, Hrvatski, Magyar, íslenska, K,a3aK, ^l^-Ol, Lietuvių, Latviešu, Polski, Română, Русский, Slovenčina, Slovenščina, Srpski, Türkçe, Українська, Dansk, Suomi, Norsk, Svenska

- Adibidez; idazkera etzana onartzen duen hizkuntza bat: English




- Adibidez; idazkera etzana onartzen ez duen hizkuntza bat: 한국어




• Lerro bat baino gehiago idaztean, egiaztatu nahikoa tarte utzi duzula.

  - Adibidez; ezagutzen du.




  - Adibidez; ez du ezagutzen.



## S oharra erabiltzea

S oharrarekin, eduki aberastua duten oharrak sor daitezke, zirriborroak marraztuta edo argazkiak edo soinu-fitxategiak gehituta.

1 Pantaila nagusian, ireki aplikazio-zerrenda, eta hautatu **S Memo**.

2 Aplikazio hori lehenengo aldiz abiarazi baduzu, markatu **No mostrar de nuevo** aukeraren ondoko egiaztapen-laukia, eta hautatu **Finalizado.**

3 Hautatu .
Testua teklatuaren bidez idazteko, hautatu .

4 Idatzi testua edo marraztu zirriborro bat.



Idazkera-mota, lerroaren lodiera edo kolorea aldatzeko, sakatu ✎ bi aldiz.




| Zenbakia | Funtzioa |
|---|---|
| 1 | Lerro-mota aldatzeko. |
| 2 | Lerroaren lodiera aldatzeko. |
| 3 | Lerroaren kolorea aldatzeko. |
| 4 | Ireki, kolore gehiago ikusteko edo tonua aldatzeko. Kolorearen tonua aldatzeko, nabarmentzeko tresna hautatzean. |

5 Hautatu , eta gehitu argazki bat edo soinu-fitxategi bat.




- Orrialde bat gehitzeko, hautatu . ▶ 110. or.
- Oharraren atzeko irudia ere alda dezakezu. Sakatu [≡] > **Cambiar fondo >** irudi bat.
- Zooma handitzeko, jarri bi hatz pantailan eta bereiz itzazu. Zooma txikitzeko, elkartu bi hatzak. Zooma handitu ondoren, arrastatu bi hatzak pantailan zehar mugitzeko.

6 Amaitzean, hautatu **Guardar.**
Oharrak ikusteko edo editatzeko moduari edo beste funtzio batzuk erabiltzeko moduari buruzko informazio gehiago izateko, joan 110. orrialdera.

# Ohar azkarren panela erabiltzea

Edozein pantailan sor dezakezu testua eta zirriborroak dituen ohar azkar bat.

1 S erakuslearen botoia sakatzen ari zarela, sakatu bi aldiz pantailan ohar azkarren panela irekitzeko.

2 Idatzi testua edo marraztu zirriborro bat.




3 Amaitzean, hautatu **Guardar.**

# S antolatzailea erabiltzea

Gailuak antolatzaile ahaltsu bat eskaintzen dizu zure ordutegiak eta lanak era egokienean eta eraginkorrenean antolatzen laguntzeko. Gertaerak sortu eta ikusi, elementuak gehitu eta ikuspegiaren moduak alda ditzakezu.

S antolatzailea abiarazteko, pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **Calendario.**

Egutegian gertaera edo lan bat gehitzeko.

Gaurko data hautatzeko.

Erakutsi nahi dituzun egutegiak zehazteko.




Ikuspegi-moduen fitxak gordetzeko edo bistaratzeko.

## > Gertaera edo lan bat sortzea

Sortzen dituzun lanak eta oharrak ezingo dira sinkronizatu Google CalendarTM-ekin.

Gertaera bat sortzeko,

1 Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **Calendario >** ➕.

2 Egutegiaren sinkronizazioari buruzko alerta-mezuak agertzen badira, hautatu **Aceptar.**

3 Hautatu **Añadir evento**, eta sartu xehetasunak.

- Kokapen berri bat bilatu eta gehitzeko, hautatu .
- Ohar bat gehitzeko, hautatu **Notas > Crear S Memo** edo **Vincular con S Memo.**
- Argazki bat gehitzeko, hautatu **Imagen > Hacer Foto** edo **Imágenes.**

4 Amaitzean, hautatu **Guardar.**

Zeregin bat sortzeko,

1 Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **Calendario >** ➕ .

2 Hautatu **Añadir tarea,** eta sartu xehetasunak.

- Ohar bat gehitzeko, hautatu **Notas > Crear S Memo edo Vincular con S Memo.**
- Argazki bat gehitzeko, hautatu **Imagen > Hacer Foto** edo **Imágenes.**

3 Amaitzean, hautatu **Guardar.**
Ohar batekin zeregin bat sortzeko,

Funtzionalitate hori ingelesez eta koreeraz soilik dago eskuragarri.

1 Pantaila nagusian, ireki ➕ likazioen zerrenda, eta hautatu **Calendario >** .

2 Hautatu **Quick add**, eta sartu xehetasunak.

3 Amaitzean, hautatu **Guardar**.

Gailuak testuaren xehetasunak sailkatuko ditu, eta automatikoki sartuko ditu dagozkien eremuetan.

**> Ohar bat gehitzea**

1 Pantaila nagusian, ireki aplikazio-zerrenda, eta hautatu **Calendario.**

2 Aldatu bistaratzeko modua, eta jarri hilabeteko bistaratze-modua (beharrezkoa bada).

3 Luze sakatu egun bat, ohar bat sortzeko zirriborro gisa.

4 Sartu xehetasunak, eta sakatu **Guardar**.

Bistaratze-modua nola aldatu edo zereginak nola ikusi jakiteko, ikus 107. orrialdea.

## Voice talk erabiltzea

Ahotsa ezagutzeko sistema integratuarekin, aplikazioak eta funtzioak martxan jartzeko modu azkarra eta erraza duzu. Eskuekin beste zerbait egiten ari bazara edo ezin baduzu begiratu gailuaren pantailara (adibide, gidatzen ari zarela), ekintza baten komandoa esan dezakezu.

Ahots-komandoaren funtzioa hasteko, sakatu azkar hasierako tekla bi aldiz. Aplikazio hau lehen aldiz jarri baduzu martxan, tutoretza eta laguntza-informazioa ikusiko dituzu. Gero, Voice talk aplikazioaren pantaila nagusia ikusiko duzu.

- Litekeena da hizkuntza batzuetan funtzio hau erabilgarri ez egotea.
- Baliteke funtzio hau erabilgarri ez egotea, herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.




### > Ahots-komandoak ikastea

Eskuragarri dauden ahots-komandoak ikusteko, hautatu , eta **¿Qué puedo decir?** barruko kategoria bat.

### > Ahots-komandoak erabiltzea

1 Voice talk pantailan, egin ekintza hauetako bat:

- Hautatu kategoria bat eskuragarri dauden komandoak ikusteko.
- Hautatu **Tocar y Hablar**, ahots-komandoaren funtzioa martxan jartzeko. Ahots-komando bat erabil dezakezu edozein funtzio-motatarako.

2 Esan komando bat mikrofonotik hurbil, eta hautatu **Acabar**.

3 Esan komando gehiago hautatutako funtzioaren ahots-gidari erantzuteko.

# Komunikazioa

## Deiak

Atal honetan, hauek egiten ikasiko duzu: deiaren funtzioak erabiltzen, deiak egiten eta jasotzen, hitz egiten ari zarela eskura dauden aukerak erabiltzen, deiekin erlazionatutako funtzioak pertsonalizatzen eta erabiltzen.

### > Deiak egitea eta deiei erantzutea

Botoiak edo ukipen-pantaila erabil ditzakezu deiak egiteko, onartzeko, amaitzeko edo errefusatzeko.

- Nahi gabe ezer ez idazteko, hurbiltasun-sentsoreak automatikoki blokeatzen du ukipen-pantaila gailua aurpegitik hurbil badaukazu. ▶155. or.
- Zure gorputzaren edo arroparen elektrizitate estatikoak hurbiltasun-sentsoreari eragin diezaioke dei bat egiten ari zarenean.

#### Dei bat egitea

1. Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, hautatu **Teléfono > Teclado,** eta sartu eremuko kodea eta telefono-zenbakia.
2. Hautatu ahots-dei bat egiteko. Bideo-dei bat egiteko, hautatu
3. Dei bat amaitzeko, hautatu **Fin. llam**.

- Erabili agenda maiz markatzen dituzun zenbakiak gordetzeko. ▶102. or.
- Egin diren azken zenbakiak berriz markatzeko deien erregistrora sartzeko, hautatu **Teléfono > Registros**.

## Dei bati erantzutea

1 Dei bat jasotzen duzunean, arrastatu  zirkulu handitik kanpora.

> Melodia isilarazteko, sakatu bolumen-tekla gailua jotzen ari dela.

2 Dei bat amaitzeko, hautatu Fin. llam.

## Dei bat ez onartzea

Dei bat jasotzen duzunean, arrastatu  zirkulu handitik kanpora.

Sarrerako dei bat ez onartzean mezu bat bidaltzeko, hautatu Rechazar **llamada con mensaje.**

> Lehenik eta behin, definitu dei-egileari bidali nahi diozun testu-mezua. Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **Ajustes —> Llamadas —> Definir mens. de rechazo.**

## Nazioarteko zenbaki batera deitzea

1 Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, hautatu **Teléfono > Teclado**, eta luze sakatu **0**, + karakterea sartzeko.

2 Idatzi markatu nahi duzun zenbaki osoa (herrialdearen kodea, eskualdeko kodea eta telefono-zenbakia), eta, gero, hautatu  markatzeko.

### > Entzungailuak erabiltzea

Entzungailuak gailura konektatuz gero, ondo erantzun eta kontrolatu ahal izango dituzu deiak:

- Dei bati erantzuteko, sakatu entzungailuen botoia.
- Dei bat ez onartzeko, luze sakatu entzungailuen botoia.
- Dei bat zain uzteko edo berreskuratzeko, luze sakatu entzungailuaren botoia.
- Dei bat amaitzeko, sakatu entzungailuen botoia.

### > Ahots-dei batean aukerak erabiltzea

Aukera hauek erabil ditzakezu ahots-dei bat egiten ari zarela:

- Ahotsaren bolumena doitzeko, sakatu bolumen-tekla gorantz edo beherantz.
- Dei bat zain uzteko, hautatu ⏸. Zain dagoen dei bat berreskuratzeko, sakatu ▶.
- Beste dei bat egiteko, hautatu **Añadir llamada**, eta, gero, markatu zenbaki berria.
- Bigarren dei bat erantzuteko, arrastatu 📞 zirkulu handitik kanpora zain dagoen dei baten tonua entzutean. Gailuak galdetuko dizu lehen deia amaitu edo atxiki nahi duzun. Zain dagoen deiaren zerbitzuan izena eman behar duzu, funtzio hori erabiltzeko.
- Telefonoaren markatze-pantaila irekitzeko, hautatu **Teclado.**
- Bozgorailuaren funtzioa aktibatzeko, hautatu **Altavoz.**

Zarata handia dagoen lekuetan, baliteke deiak ez entzutea bozgorailuaren funtzioarekin hitz egitean. Erabili telefonoaren modu arrunta audioak errendimendu hobea izan dezan.

- Mikrofonoa desaktibatzeko (beste solaskideak ez diezazun entzun), hautatu **Silencio.**
- Solaskidearekin bluetooth entzungailu baten bidez hitz egiteko, hautatu **Auricul.**
- Telefono-agenda irekitzeko, sakatu [☰] > **Contactos.**
- Ohar bat gehitzeko, sakatu [☰] **Notas.**
- Dei batetik bestera joateko, hautatu **Cambiar**.
- Dei anizkoitz bat egiteko (multikonferentzia), egin edo jaso bigarren deia, eta hautatu **Combinar** bigarren solaskidearekin konektatzean. Errepikatu prozesu hori solaskide gehiago gehitzeko. Dei anizkoitzen zerbitzuan izena eman behar duzu, funtzio hori erabiltzeko.

### > Bideo-deian dituzun aukerak erabiltzea

Aukera hauek erabil ditzakezu bideo-deia egiten ari zarela:

- Kameraren aurreko lentearen eta atzekoaren artean aldatzeko, sakatu **Cambiar cámara.**
- Mikrofonoa desaktibatzeko (beste solaskideak ez diezazun entzun), hautatu **Silencio.**
- Solaskideari zure irudia ez erakusteko, sakatu [≡] **> Ocultarme**.
- Solaskideari zurea ez den beste irudi bat erakusteko, sakatu [≡] **> Imagen saliente.**
- Markatze-pantaila irekitzeko, sakatu [≡] **> Teclado.**
- Solaskidearekin bluetooth entzungailu baten bidez hitz egiteko, hautatu [≡] **> Auricular.**
- Bozgorailuaren funtzioa aktibatzeko, hautatu [≡] **> Altavoz activado/ desactivado.**
- Solaskidearen irudia erabiltzeko, luze sakatu irudia. Pantailako irudi bat hartu edo bideo-dei bat graba dezakezu.

Leku askotan, legez kanpokoa da dei bat grabatzea baimenik gabe. Eskatu beti baimena solaskideari dei bat grabatu aurretik.

### > Dei galduak ikustea eta markatzea

Gailuko pantailan agertuko dira galdutako deiak. Deia itzultzeko, ireki jakinarazpen-panela, eta hautatu dei galdua.

### > Funtzio osagarriak erabiltzea

Deiekin erlazionatutako beste funtzioak erabil ditzakezu; besteak beste: automatikoki ez onartzeko funtzioa, FDN modua (markaketa finkoko zenbakiak) eta deien desbideratze- eta murrizte-funtzioak.

#### Deiak automatikoki ez onartzeko funtzioa zehaztea

Deiak automatikoki ez onartzeko funtzioa erabil dezakezu, zenbaki jakinen deiak automatikoki ez onartzeko. Deiak automatikoki ez onartzeko aukera aktibatzeko eta ez onartzeko zenbakien zerrendak sortzeko,

1. Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **Ajustes > Llamadas > Rechazo de llamada.**
2. Hautatu **Modo de rechazo automático >** aukera bat.

| Aukera | Funtzioa |
|---|---|
| Todos los números | Batere deirik ez onartzeko. |
| Núm. rechazo automático | Automatikoki ez onartzeko telefono-zenbakien zerrendakoen deiak ez onartzeko. |

3. Hautatu **Lista de rechazos autom**.
4. Hautatu **Añadir,** eta sartu telefono-zenbaki bat.
5. Hautatu **Coincidir criterios >** aukera bat (beharrezkoa bada).
6. Hautatu **Guardar.**
7. Zenbaki gehiago gehitzeko, errepikatu 4. pausotik 6.era bitartekoak.

#### FDN modua erabiltzea (markaketa finkoko zenbakia)

FDN moduan, irteerako deiak mugatzen ditu telefonoak. FDN zerrendan gordetako zenbakietara bakarrik deitu daiteke. FDN modua aktibatzeko,

Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **Ajustes > Llamadas > Ajustes adicionales > Números de marcación fija > Activar número de marcación directa.**

2 Sartu SIM edo USIM txartelarekin batera emandako PIN 2 kodea, eta hautatu **Aceptar.**

3 Hautatu **Lista FDN**, eta gehitu FDN moduan erabiliko diren kontaktuak.

### Deien desbideratzea zehaztea

Deiak desbideratzeko sare-funtzioari esker, sartzen diren deiak zehaztutako beste telefono-zenbaki batera bidal ditzakezu. Funtzio honi esker, konfigurazio jakin bat ezar dezakezu deiak erantzun ezin dituzun egoera bakoitzerako; adibidez, beste dei bat egiten ari zarenean, edo zerbitzu-eremutik kanpo zaudenean.

1 Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **Ajustes > Llamadas > Desvío de llamadas >** dei-mota bat.

2 Aukeratu egoera bat.

3 Sartu desbideratutako deiak jasoko dituen zenbakia, eta hautatu **Habilitar.** Doikuntza sarera bidaliko da.

### Deien murrizketa zehaztea

Deien murrizketaren bidez, dei-mota jakin batzuk murriztu daitezke, eta beste pertsonek zure gailuarekin deiak egitea galarazi.

1 Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **Ajustes > Llamadas > Ajustes adicionales > Restricción de llamadas >** dei-mota bat.

2 Hautatu deiak murrizteko aukera bat.

3 Sartu deiak blokeatzeko pasahitza, eta, ondoren, sakatu **Aceptar**. Doikuntza sarera bidaliko da.

### Zain dagoen deia zehaztea

Zain dagoen deia sareko funtzio bat da, eta dei bat martxan duzunean sarrerako deirik dagoen jakinarazten dizu. Funtzio hori ahots-deientzat soilik dago eskuragarri.

Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **Ajustes > Llamadas > Ajustes adicionales > Llamada en espera.** Doikuntza sarera bidaliko da.

### > Deien erregistroak ikustea

Deien erregistroak motaren arabera iragaz daitezke.

1. Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **Teléfono > Registro.**
2. Sakatu [≡] **> Ver por >** aukera bat, dei-erregistroak ordenatzeko.

Kontaktu bati deien erregistrotik zuzenean deitzeko edo mezu bat bidaltzeko, sakatu azkar kontaktu bat ezkerrera edo eskuinera.

3. Hautatu erregistro bat xehetasunak ikusteko.

Xehetasunen ikuspegian, zenbaki bat markatu dezakezu, zenbaki horri mezua bidali eta zenbakia kontaktuen helbide-liburura edo automatikoki ez onartzeko zerrendara sar dezakezu.

## Mezuak

Testu-mezuak (SMS) edo multimedia-mezuak (MMS) sortzeko eta bidaltzeko, edo bidalitako eta jasotako mezuak ikusteko edo kudeatzeko.

Gerta daiteke zure zerbitzu-eremutik kanpo zaudenean mezuak bidaltzeak edo jasotzeak gastu gehigarriak izatea. Xehetasun gehiago behar izanez gero, jarri harremanetan zerbitzu-hornitzailearekin.

### > Testu-mezu bat bidaltzea

1 Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **Mensajes.**

2 Hautatu [icon].

3 Gehitu hartzaileak:

- Sartu eskuz telefono-zenbakiak, eta bereiz itzazu koma batekin edo puntu eta koma batekin.
- Hautatu telefono-zenbakiak zure dei- eta kontaktu-zerrendetan, [icon] hautatuta.

4 Hautatu **Toque para escribir mensaje**, eta idatzi testu-mezua.

Aurpegierak txertatzeko, sakatu [≡] > **Insertar emoticono**.

5 Hautatu **Enviar**, mezua bidaltzeko.

### > Multimedia-mezuak bidaltzea

1 Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **Mensajes.**

2 Hautatu [icon].

3 Gehitu hartzaileak:

- Sartu telefono-zenbakiak edo helbide elektronikoak, eta bereiz itzazu koma batekin edo puntu eta koma batekin.
- Telefono-zenbakiak edo helbide elektronikoak deien, mezuen edo kontaktuen zerrendetatik hautatzeko, sakatu [icon].

Helbide elektroniko bat sartzean, gailuak mezua multimedia-mezu bilakatuko du.

4 Sakatu [≡] > **Añadir asunto**, eta erantsi mezuaren gaia.

5 Hautatu **Toque para escribir mensaje,** eta idatzi testu-mezua.
Aurpegierak txertatzeko, sakatu [≡] **> Insertar emoticono.**

6 Hautatu 📎, eta gehitu elementu bat.
Fitxategi-zerrendako fitxategi bat, zirriborro bat edo zeregin bat hauta dezakezu, edo, bestela, argazki bat, bideo bat, soinu bat edo zirriborro bat sortu.

7 Hautatu **Enviar** mezua bidaltzeko.

### > Testu-mezu bat edo multimedia-mezu bat bidaltzea

1 Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **Mensajes.**

Kontaktuen araberako hizketalditan elkartzen dira mezuak.

2 Hautatu kontaktu bat.

3 Hautatu multimedia-mezu bat xehetasun gehiago ikusteko.

### > Ahots-postako mezuak entzutea

Galdutako deiak ahots-postako zerbitzarira desbideratzeko doitu baduzu gailua, deitzen dutenek ahots-mezuak utz ditzakete sarrerako deiei erantzuten ez diezunean. Ahots-postako sarrerako postontzira sartu eta mezuak entzuteko:

1 Pantaila nagusian, ireki aplikazio-zerrenda, hautatu **Teléfono > Teclado,** eta luze sakatu **1.**

2 Jarraitu ahots-postaren zerbitzariaren argibideei.

Ahots-postaren zerbitzariaren zenbakia gorde behar duzu, zerbitzarira sartu aurretik. Zenbakia eskuratzeko, jarri harremanetan zure zerbitzu-hornitzailearekin.

# Google Mail

Google Maileko mezu elektronikoak zure sarrerako postontzian berreskura ditzakezu. Aplikazio horretara sartzean, sarrerako postontziaren pantaila agertzen da. Irakurri ez diren mezuen kopurua letra lodiz nabarmentzen du titulu-barrak.

- Baliteke funtzio hau erabilgarri ez egotea, herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.
- Menuak izen bat edo beste bat izan dezake, zerbitzu-hornitzailearen arabera.

**> Mezu elektronikoak bidaltzea**

1 Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **Google Mail.**

2 Aplikazio hau lehenengo aldiz abiarazten ari bazara, hautatu **Aceptar.**

3 Sakatu [≡] **> Redactar.**

4 Sartu izen bat edo helbide bat hartzaileen eremuan.
Hartzaile gehiago gehitzeko, sakatu [≡] **> Añadir Cc/CCO.**

5 Idatzi gai bat eta mezu bat.

6 Irudi-fitxategi bat eransteko, sakatu [≡] **> Adjuntar >** fitxategi bat.

7 Hautatu mezua bidaltzeko.

**> Mezu elektroniko bat ikustea**

1 Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **Google Mail.**

2 Hautatu mezu elektroniko bat.

Mezuen ikuspegian, aukera hauek erabili:

Eskuragarri dauden funtzioak desberdinak izan daitezke kontuaren arabera.

- Mezuari erantzuteko, hautatu .
- Hartzaile guztiei erantzuteko, hautatu **> Responder a todos.**
- Mezua beste lagun batzuei birbidaltzeko, hautatu **> Reenviar.**
- Mezua garrantzitsu gisa markatzeko, hautatu .
- Erantsitako fitxategi bat ikusteko, hautatu **Vista previa.** Gailua gordetzeko, hautatu **Descargar.**
- Mezua gordetzeko, hautatu **Archivar.**
- Mezua ezabatzeko, hautatu **Suprimir.**
- Aurreko mezura itzuli edo hurrengora igarotzeko, hautatu  edo .

### > Mezu elektronikoak etiketen arabera antolatzea

Mezuak etiketatuz, zure posta elektronikoa antola dezakezu. Etiketen iragazkien arabera sailka ditzakezu mezuak.

#### Mezu bati etiketa eranstea

1. Sarrerako postontziaren pantailan, luze sakatu mezu bat.
2. Hautatu **Cambiar etiquetas.**
3. Hautatu etiketa bat, eta, gero, hautatu **Aceptar**.

#### Mezuak iragaztea

1. Sarrerako postontziaren pantailan, sakatu [ ] **> Ir a etiquetas.**
2. Hautatu ikusi nahi dituzun mezuen etiketa.

# Posta elektronikoa

Ikas ezazu zure kontu pertsonaleko edo komertzialeko mezu elektronikoak bidaltzen eta ikusten.

## > Posta elektronikoko kontu bat konfiguratzea

1. Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **Email.**
2. Idatzi zure helbide elektronikoa eta pasahitza.
3. Hautatu **Siguiente** (Google Mail, Yahoo AOL eta antzeko posta elektronikoko kontu orokorren kasuan) edo **Config. manual** (beste kontu korporatibo batzuen kasuan).
4. Jarraitu pantailako argibideei.

Posta elektronikoko kontua konfiguratzean, mezu elektronikoak gailuan deskargatuko dira. Bi kontu baino gehiago sortu badituzu, txandakatzeko aukera duzu. Hautatu kontu baten izena pantailaren goiko ezkerreko aldean, eta hautatu zer kontutako mezuak berreskuratu nahi dituzun.

## Mezu elektroniko bat bidaltzea

1. Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **Email.**
2. Hautatu
3. Gehitu hartzaileak:
   - Sartu eskuz posta elektronikoko kontuak, eta bereiz itzazu koma batekin edo puntu eta koma batekin.
   - Hautatu deien, mezuen edo kontaktuen zerrendetako helbide elektronikoak, aukeratuta.
   - Hartzaile gehiago gehitzeko, sakatu [ ] **> Añadir Cc/CCO.**
4. Hautatu gaia sartzeko eremua, eta idatzi gaia.

5 Hautatu testua sartzeko eremua, eta idatzi mezua.

6 Hautatu **Adjuntar**, eta erantsi fitxategi bat.
Fitxategi-zerrendako fitxategi bat, zirriborro bat edo zeregin bat hauta dezakezu, edo, bestela, argazki bat, bideo bat, soinu bat edo zirriborro bat sortu.

Ezin da erantsi eskubide digitalen administrazioak (DRM) babestutako fitxategirik.

7 Hautatu **Enviar**, mezua bidaltzeko.

Konektatuta ez bazaude, edo zerbitzu-eremutik kanpo bazaude, mezu-elkarrizketen zerrendan geratuko da mezua konektatu arte eta zerbitzu-eremuaren barruan egon arte.

### > Mezu elektroniko bat ikustea

Posta elektronikoko kontu bat irekitzean, konexiorik gabe ikus ditzakezu aurrez berreskuratutako mezuak, edo, bestela, posta elektronikoko zerbitzarira konekta zaitezke mezu berriak ikusteko. Mezu elektronikoak berreskuratutakoan, konektatu gabe ere ikus ditzakezu.

1 Pantaila nagusian, ireki aplikazio-zerrenda, eta hautatu **Email >** posta elektronikoko kontu bat.

2 Sakatu [≡] > **Actualizar** mezuen zerrenda eguneratzeko.

3 Hautatu mezu elektroniko bat.

Mezuen ikuspegian, erabili aukera hauek:

- Aurreko mezura itzultzeko edo hurrengora igarotzeko, hautatu .
- Mezua beste karpeta batera eramateko, hautatu .
- Mezua ezabatzeko, hautatu .
- Mezuari erantzuteko, hautatu **> Responder.**
- Mezua beste lagun batzuei birbidaltzeko, hautatu **> Reenviar.**
- Fitxategi erantsi bat ikusteko, hautatu > fitxategi erantsia. Zure gailuan gordetzeko, hautatu .

# Google Talk

Txateatu lagunekin eta senitartekoekin, Google TalkTM berehalako mezularitzako zerbitzua erabilita.

Baliteke funtzio hori erabilgarri ez egotea, herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.

### › Lagunen zerrendara lagunak gehitzea

1 Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **Google Talk.**
   Lagunen zerrendan, begiratu bakarrean ikus ditzakezu mezularitzako kontaktu guztiak.

2 Sakatu [≡]**> Añadir amigo.**

3 Sartu lagun baten posta elektronikoko helbidea, eta hautatu **Enviar invitación.**

Zure lagunak gonbidapena onartzen duenean, zure lagunen zerrendari gehituko zaio.

### › Elkarrizketa bat hastea

1 Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **Google Talk.**

2 Hautatu lagun bat lagunen zerrendan. Elkarrizketa-pantaila irekiko da.

3 Idatzi mezua, eta hautatu **Enviar.**

Aurpegierak txertatzeko, sakatu[≡] **> Más > Insertar emoticono.**

4 Elkarrizketa aktiboak txandakatzeko, sakatu [≡]**> Cambiar de chat.**

5 Elkarrizketa amaitzeko, sakatu [≡]**> Finalizar chat.**

# Social Hub

Ikas ezazu Social HubTM-era sartzen. Komunikazio integratuko aplikazio horren bidez, sare sozialetako zerbitzuak, posta elektronikokoak eta mezuak izango dituzu. Xehetasun gehiago jakiteko, sartu hemen: socialhub.samsungapps.com.

1. Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **Social Hub.**
2. Aplikazio hau erabiltzen duzun lehen aldia bada, gehitu kontu bat, edo utzi pauso hori geroko.
3. Hautatu kategoria bat pantailaren goiko ezkerreko aldean.
4. Ikusi eta erabili Social Hub-ek eskaintzen dituen edukiak.

# Denbora-pasak

## Kamera

Ikas ezazu argazkiak eta bideoak egiten eta ikusten. Bereizmen hau duten argazkiak eta bideoak egin daitezke: argazkien kasuan, 3.264 x 2.448 pixel artekoak (8 megapixel) eta, bideoen kasuan, 1.920 x 1.080 pixel artekoak.

- Kamera automatikoki itzaltzen da denbora jakin batean erabiltzen ez bada.
- Memoriaren gaitasuna ezberdina izango da hartu nahi den irudiaren edo kondizioen arabera.

### > Argazkia ateratzea

1 Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **Cámara**, kamera pizteko.

2 Jarri lentea argazkia atera nahi diozun horri begira, eta egin egin beharreko doikuntzak.



| Zenbakia | Funtzioa |
|---|---|
| 1 | Kamerako doikuntzak aldatzeko. |
| 2 | Irudien bisorea irekitzeko, ateratako argazkiak ikusteko. |
| 3 | Kamerarako lasterbideak erabiltzea.<br>• Flasharen doikuntzak aldatzeko.<br>• Kameraren aurreko lentetik atzeko lentera aldatzeko, eta alderantziz.<br><br>Askotan erabiltzen dituzun aukeretarako lasterbideak gehitu edo kendu ditzakezu. ▶ 87. or. |
| 4 | Aurrez zehaztutako biltegiratze-tokia ikusteko. |
| 5 | Bideokamera-modura aldatzeko. |
| 6 | Argazki bat ateratzeko. |

3 Sakatu bolumen-tekla irudia hurbiltzeko edo urrutiratzeko. Bestela, jarri bi hatz pantailan, eta bereizi zooma handitzeko (elkartu zooma murrizteko).

4 Saka ezazu fokuratu nahi duzun tokian, aurretiko bistaren pantailan.

Fokuaren markoa sakatu duzun tokirantz mugituko da, eta, objektiboa fokuan dagoenean, berde jarriko da.

5 Hautatu argazki bat ateratzeko. Argazkia automatikoki gordetzen da.

Argazkiak atera ondoren, hautatu irudien bisorearen ikonoa, argazkiak ikusteko.

- Joan ezkerrera edo eskuinera argazki gehiago ikusteko.
- Zooma handitzeko, jarri bi hatz pantailan, eta bereiz itzazu. Zooma txikitzeko, elkartu bi hatzak.
- Argazkia beste pertsona batzuei bidaltzeko, hautatu **Compartir.**
- Argazki bat ezabatzeko, hautatu **Eliminar.**
- Argazki batekin funtzio gehigarriak erabiltzeko, hautatu **Más,** eta erabili aukera hauek:
  - **Definir como:** argazki bat atzealdeko irudi gisa edo kontaktu baten ID gisa definitzeko.
  - **Cambiar nombre:** argazki-fitxategi baten izena aldatzeko.

**> Argazki bat ateratzea aukera lehenetsiak erabiliz**

Zenbait eszenatarako doikuntza lehenetsiak ematen ditu kamerak. Argazkiko pertsonen eta argazkia ateratzeko baldintzen araberako modurik egokiena hauta dezakezu.

Adibidez, argazkiak gauez atera behar badituzu, hautatu gaueko modua (esposizio luzea erabiltzen du).

1. Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **Cámara**, kamera pizteko.
2. Hautatu  **> Modo Escena >** eszena bat.
3. Egin egin beharreko doikuntzak.
4. Hautatu  argazki bat ateratzeko.

> **Kliskatze automatikoaren bidez argazkiak ateratzea**

Zure buruaren argazkiak erraz har ditzakezu kameraren aurreko lentearekin.

1 Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu Cámara, kamera pizteko.

2 Hautatu ⚙ > **Autoretrato.**

3 Egin egin beharreko doikuntzak.

4 Hautatu 📷 argazki bat ateratzeko.

> **Irribarre bakoitzeko argazkiak ateratzea**

Kamerak pertsonen aurpegiak ezagut ditzake, eta aurpegi irribarretsuen argazkiak ateratzen lagundu.

1 Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **Cámara**, kamera pizteko.

2 Hautatu ⚙ > **Modo de disparo > Disp. sonrisa.**

3 Egin egin beharreko doikuntzak.

4 Enfokatu objektiboa kamerarekin, eta hautatu 📷.
Gailuak pertsonak ezagutzen ditu irudian, eta irribarreak detektatzen ditu. Pertsonak irribarre egiten duenean, gailuak argazki bat ateratzen du automatikoki.

> **Edertasun-argazkia ateratzea**

Aurpegiko akatsak ezkuta ditzakezu, argazkiak edertasun-moduan aterata.

1 Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **Cámara,** kamera pizteko.

2 Hautatu ⚙ > **Modo de disparo > Belleza.**

3 Egin egin beharreko doikuntzak.

4 Hautatu 📷 argazki bat ateratzeko.

### > Argazki panoramiko bat ateratzea

Argazki panoramiko zabalak atera ditzakezu argazki panoramikoen modua erabilita. Paisaiei argazkiak ateratzeko modu aproposa da.

1. Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **Cámara**, kamera pizteko.
2. Hautatu **> Modo de disparo > Panorámica.**
3. Egin egin beharreko doikuntzak.
4. Sakatu , lehen argazkia ateratzeko.
5. Mugitu gailua poliki nahi duzun norabidean, eta lerrokatu marko berdea bisorearekin.

   Marko berdea eta bisorea lerrokatzean, hurrengo argazkia automatikoki hartuko du kamerak.
6. Errepikatu 5. pausoa argazki panoramikoa osatzeko.

### > Argazki bat ateratzea partekatzeko moduan

Argazki bat atera eta lagunei automatikoki bidal diezaiekezu, partekatzeko moduarekin. Wi-Fi Direct funtzioa konektatuta badago soilik egoten da eskuragarri modu hori.

1. Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **Cámara,** kamera pizteko.
2. Hautatu **> Modo de disparo > Compartir disparo.**
3. Hautatu **Aceptar,** Wi-Fi Direct funtzioa aktibatzeko (beharrezkoa bada).
4. Hautatu erabiltzaileak zerrendan.
   Beste erabiltzaileek konexioa onartzen dutenean, nabarmenduta egongo dira erabiltzaile-zerrendan.
5. Hautatu argazki bat ateratzeko.
   Argazkia konektatutako erabiltzaileei bidaliko zaie.

## > Ekintza-argazki bat ateratzea

Mugitzen ari den zerbaiten irudiak hartu, eta, gero, ekintza erakusten duen argazki bakarrean konbina dezakezu.

1 Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **Cámara,** kamera pizteko.

2 Hautatu **> Modo de disparo > Toma de acción.**

3 Egin egin beharreko doikuntzak.

4 Hautatu lehen argazkia ateratzeko.

5 Mugitu gailua mugitzen ari denari jarraitzeko. Gailuak automatikoki aterako ditu hurrengo argazkiak.

6 Jarraitu mugitzen ari denari gailuak ekintza-argazkia osatzeko behar dituen argazki guztiak atera arte.

## > Argazkiak animazio-moduan ateratzea

Animazio-efektuak dituzten argazkiak atera ditzakezu.

1 Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **Cámara,** kamera pizteko.

2 Hautatu **> Modo de disparo > Animación.**

3 Egin egin beharreko doikuntzak.

4 Hautatu argazki bat ateratzeko.

### > Kameraren doikuntzak pertsonalizatzea

Argazki bat atera aurretik, hautatu ⚙ aukera hauetara sartzeko:

| Aukera | Funtzioa |
|---|---|
| Edit accesos directo | Sarri erabiltzen diren aukeretarako lasterbideak editatzeko. |
| Autoretrato | Kameraren aurreko eta atzeko lenteak elkarren artean aldatzeko. |
| Flash | Flasharen doikuntzak aldatzeko. Flasha eskuz pizteko edo itzaltzeko, edo kamera konfiguratzeko flasha automatikoki erabil dezan beharrezkoa denean. |
| Modo de disparo | Argazkia ateratzeko modua aldatzeko. |
| Modo Escena | Eszenaren modua aldatzeko. |
| Valor de exposición | Esposizioaren balioa doitzeko. |
| Modo de enfoque | Lehen planoen argazkiak ateratzeko, edo kamera pertsona fokatu dezan konfiguratzeko edo aurpegiak automatikoki fokatzeko. |
| Temporizador | Argazkia atera aurretik denbora-tarte jakin bat igarotzea konfiguratzeko. |
| Efectos | Argazkiari efektu berezia aplikatzeko, sepia kolorea edo zuri-beltzeko argazkia. |
| Resolución | Bereizmena aldatzeko. |
| Balance de blancos | Argiztapen-kondizioen arabera, koloreen balantzea doitzeko. |
| ISO | Kameraren irudiaren sentsorearen sentikortasuna doitzeko. |

| Aukera | Funtzioa |
|---|---|
| Medición | Esposizioaren neurgailu-mota aukeratzeko. |
| Visibilidad de exterior | Aktiba ezazu kanpoaldeetako ikusgaitasuna, argiztapen egokia hautatzeko. |
| Antivibración | Gailuaren bibrazioak edo mugimenduak eragindako itxura lausoa gutxitzeko. |
| Contraste automático | Pertsonaren eta hondoaren arteko kontrastea automatikoki doitzeko. |
| Detección de parpadeo | Pertsonek begiak ixtean kamerak alerta bat igortzeko aukera konfiguratzeko. |
| Instrucciones | Aurrebistaren pantailan argibideak bistaratzeko. |
| Calidad de imagen | Argazkien kalitate-maila ezartzeko. |
| Etiqueta GPS | Kamera argazkien kokapenari buruzko informazioa gordetzeko moduan konfiguratzeko.<br>GPS seinalea hobetzeko, ez atera argazkirik seinalea oztopatu litekeen tokietan edo egoeretan, besteak beste, eraikinen artean, eremu baxuetan edo eguraldi txarra egiten duenean. |
| Guardar como volteado | Kamera definitzeko automatikoki irudia biratu dezan aurreko kamerarekin argazki bat ateratzean. |
| Almacenamiento | Argazkiak gordetzeko memoria-kokalekua hautatzeko. |
| Restablecer | Menuak eta argazkia ateratzeko aukerak berrezartzeko. |

## > Bideo bat grabatzea

1 Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **Cámara**, kamera pizteko.

2 Arrastatu kontrol irristagarria bideokamerarantz, bideokamerara igarotzeko.

3 Jarri lentea argazkia atera nahi diozun horri begira, eta egin egin beharreko doikuntzak.




| Zenbakia | Funtzioa |
|---|---|
| 1 | Bideokamerako doikuntzak aldatzeko. |
| 2 | Irudien bisorea irekitzeko, grabatutako bideoak ikusteko. |
| 3 | Bideokamerarako lasterbideak erabiltzeko.<br>• Flasharen doikuntzak aldatzeko.<br>• Grabazio-modura igarotzeko edo kameraren aurreko lentetik atzeko lentera (eta alderantziz) igarotzeko aukera ematen du.<br>Askotan erabiltzen dituzun aukeretarako lasterbideak gehitu edo kendu ditzakezu. ▶ 87. or. |

| Zenbakia | Funtzioa |
|---|---|
| 4 | Bideokameraren egoera egiaztatzeko.<br>• 01:34:00 : Graba daitekeen bideoaren iraupena (eskura dagoen memoriaren arabera).<br>• : Biltegiaren kokapen lehenetsia |
| 5 | Kamera-modura igarotzeko. |
| 6 | Bideo bat grabatzeko. |

4 Sakatu bolumen-tekla irudia hurbiltzeko edo urrutiratzeko.

Bestela, jarri bi hatz pantailan, eta bereizi zooma handitzeko (elkartu zooma murrizteko).

Baliteke zoom-funtzio hori ez egotea erabilgarri bereizmen handiena erabiltzen duzunean.

5 Hautatu grabatzen hasteko.

6 Sakatu grabazioa geldiarazteko. Bideoa automatikoki gordetzen da.

Litekeena da bideokamerak bideoak zuzen ez grabatzea transferentzia-abiadura baxua duen memoria-txartel bat erabiltzen ez bada.

Bideoak grabatu ondoren, hautatu irudien bisorearen ikonoa, bideoak ikusteko.

- Joan ezkerrera edo eskuinera bideo gehiago ikusteko.
- Bideo bat erreproduzitzeko, hautatu ).
- Bideoa beste pertsona batzuei bidaltzeko, hautatu **Compartir.**
- Bideo bat ezabatzeko, hautatu **Eliminar**.
- Bideo batekin funtzio gehigarriak erabiltzeko, hautatu **Más,** eta erabili aukera hauek:
  - **Reprod:** bideo bat erreproduzitzeko.
  - **Cambiar nombre:** bideo-fitxategi baten izena aldatzeko.

### > Bideokameraren doikuntzak pertsonalizatzea

Bideo bat grabatu aurretik, hautatu ⚙ aukera hauetara sartzeko:

| Aukera | Funtzioa |
|---|---|
| Edit accesos directos | Sarri erabiltzen diren aukeretarako lasterbideak editatzeko. |
| Flash | Flasharen doikuntzak aldatzeko. Flasha eskuz piztu edo itzal dezakezu. |
| Modo de grabación | Grabazio-modua aldatzeko. |
| Valor de exposición | Esposizioaren balioa doitzeko. |
| Temporizador | Bideo bat grabatzen hasi aurretik denbora-tarte jakin bat igarotzea konfiguratzeko. |
| Efectos | Argazkiari efektu berezia aplikatzeko, adibidez, sepia kolorea edo zuri-beltzeko argazkia. |
| Resolución | Bereizmena aldatzeko. |
| Balance de blancos | Argiztapen-kondizioen arabera, koloreen balantzea doitzeko. |
| Visibilidad de exterior | Argiztapen egokia definitzeko. |
| Calidad de vídeo | Bideoen kalitate-maila ezartzeko. |
| Instrucciones | Aurrebistaren pantailan gida bistaratzeko. |
| Guardar como volteado | Kamera definitzeko automatikoki irudia biratu dezan aurreko lentearekin bideo bat grabatzean. |
| Almacenamiento | Bideoak gordetzeko memoria-kokalekua hautatzeko. |
| Restablecer | Menuak eta grabatzeko aukerak berrezartzeko. |

### > Lasterbideen ikonoak editatzea

Askotan erabiltzen dituzun aukeretarako lasterbideak gehitu edo kendu ditzakezu.

1 Aurrebista-pantailan, hautatu ⚙ > **Edit accesos directos**, edo sakatu [☰]> **Edit accesos directos.**

2 Luze sakatu aukeren zerrendako ikono bat, eta arrastatu lasterbideen eremura.

Lasterbideak ezabatzeko, luze sakatu ikono bat, eta arrastatu aukeren zerrendara.

3 Sakatu [↶]aurreko pantailara itzultzeko.

# Bideoak

Ikas ezazu bideo-erreproduzitzailea erabiltzen, bideo-mota ezberdinak erreproduzitzeko. Fitxategi-formatu hauek onartzen ditu bideo-erreproduzitzaileak: 3gp, mp4, avi, wmv, flv, mkv (Kodekak: MPEG4, H.263, Sorenson H.263, H.264, VC-1 eta DivX).

- Ez blokeatu gailuaren pantaila Video-On-Demand DivX bat erreproduzitzen ari zarela. Video-On-Demand DivX bat erreproduzitzen ari zarela pantaila blokeatzen duzun bakoitzean, errentan hartzeko dauden kontuetako bat ezabatu egingo da.
- Litekeena da zenbait fitxategi-formatu ez onartzea, gailuaren softwarearen arabera.
- Fitxategi batek eskuragarri dagoen memoria baino tamaina handiagoa badu, baliteke erroreren bat izatea erreproduzitzen saiatzean.
- Erreprodukzioaren kalitatea desberdina izan liteke eduki-motaren arabera.
- Zifratzearen arabera, baliteke fitxategi batzuk ondo erreproduzitzerik ez izatea.

1 Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **Vídeos.**

2 Hautatu erreproduzitu nahi duzun bideoa.

3 Erabili ikono hauek erreprodukzioa kontrolatzeko:

| Ikonoa | Funtzioa |
|---|---|
|  | Bideo-pantailaren itxura aldatzeko. |
|  | Erreprodukzioa hasierara eramateko; atzera egiteko (luze sakatuta 2 segundoan); fitxategi batean atzera egiteko (luze sakatuta). |
|  | Erreprodukzioa gelditzeko; hautatu (...) erreprodukzioa berriro martxan jartzeko. |
|  | Hurrengo fitxategira joateko eta fitxategi berean aurrera egiteko (luze sakatuta). |
|  | Entzungailua konektatzean 5.1 kanaleko soinu ingurat-zailearen sistema aktibatzeko. |
|  | Bolumena doitzeko. |

# Galeria

Ikas ezazu gailuaren memorian edo memoria-txartel batean gordetako argazkiak eta bideoak erreproduzitzen.

### > Fitxategi-formatu bateragarriak

| Mota | Formatua |
|---|---|
| Irudia | bmp, gif, jpg, png |
| Bideoa | 3gp, mp4, avi, wmv, flv, mkv (Kodekak: MPEG4, H.263, Sorenson H.263, H.264, VC-1, DivX). |

- Ez blokeatu gailuaren pantaila Video-On-Demand DivX bat erreproduzitzen ari zarela. Video-On-Demand DivX bat erreproduzitzen ari zarela pantaila blokeatzen duzun bakoitzean, errentan hartzeko dauden kontuetako bat ezabatu egingo da.
- Litekeena da zenbait fitxategi-formatu ez onartzea, gailuaren softwarearen arabera.
- Fitxategi batek eskuragarri dagoen memoria baino tamaina handiagoa badu, baliteke erroreren bat izatea erreproduzitzen saiatzean.
- Erreprodukzioaren kalitatea desberdina izan liteke edukimotaren arabera.
- Zifratzearen arabera, baliteke fitxategi batzuk ondo erreproduzitzerik ez izatea.

**> Argazkiak ikustea**

1 Pantaila nagusian, ireki aplikazio-zerrenda, eta hautatu **Galería.**

2 Aukeratu karpeta bat.

3 Ikuspegia aldatzeko, hautatu edo , pantailaren eskuineko goiko aldean.

4 Hautatu ikusi nahi duzun argazkia (ikono gabe).

Argazkia ikusten ari zarela, aukera hauek erabil ditzakezu:

- Joan ezkerrera edo eskuinera argazki gehiago ikusteko.
- Zooma handitzeko, jarri bi hatz pantailan, eta bereiz itzazu. Zooma txikitzeko, elkartu bi hatzak.

Inklinazio-mugimendua aktibatu baduzu, zooma handitu edo txikitu dezakezu zure hatzekin bi puntutan luze sakatuta, eta gero gailua atzera eta aurrera inklinatuta. Zooma azken mailaraino handituz gero segundo batez baino gehiagoz, pantaila zerrendara itzuliko da automatikoki.

- Argazkia beste pertsona batzuei bidaltzeko, hautatu **Enviar por.**

- Argazki bat ezabatzeko, hautatu **Eliminar > Confirmar eliminaciones.**
- Argazki bat beste pertsona batzuekin partekatzeko AllShare edo sare sozialen zerbitzuen bitartez, sakatu [≡] **> Compartir.**
- Argazki bat atzealdeko irudi gisa erabiltzeko, edo deitzen duen kontaktu bat identifikatzeko erabiltzeko, hautatu [≡] **> Definir como.**
- Argazki batekin funtzio gehigarriak erabiltzeko, hautatu [≡] **> Más**, eta erabili aukera hauek:
    - **Copiar:** argazki-fitxategi bat kopiatzeko.
    - **Imprimir:** argazki bat inprimatzeko USB edo WLAN konexio baten bidez. Zure gailua Samsung inprimagailu batzuekin soilik da bateragarria.
    - **Editar:** argazkiak editatzeko.
    - **Recortar:** argazki batetik irudi bat ebakitzeko.
    - **Movimiento:** zure gailuaren mugimendua ezagutzeko funtzioa kontrolatzen duten doikuntzetara sartzeko.
    - **Girar a la izquierda:** argazki bat ezkerrera biratzeko.
    - **Girar a la derecha:** argazki bat eskuinera biratzeko.
    - **Presentación de diapositivas:** aukeratutako karpetan diapositiba-aurkezpen bat egiteko.
    - **Cambiar nombre:** argazki-fitxategi baten izena aldatzeko.
    - **Detalles:** argazkiaren xehetasunak ikusteko.

**> Bideo bat erreproduzitzea**

1. Pantaila nagusian, ireki aplikazio-zerrenda, eta hautatu **Galería.**
2. Hautatu erreproduzitu nahi duzun bideoa – ▶ ikonoarekin–.
3. Erabili tekla birtualak erreprodukzioa kontrolatzeko. ▶87. or.

# Argazki-editorea

Argazkiak editatu eta zenbait efektu aplika ditzakezu.

1. Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **Editor de fotos.**
2. Hautatu **Seleccionar imagen >** irudi bat.
3. Hautatu **> Selección nueva > Aceptar.**
   - Hautatze-ertzean gehitu edo kentzeko, hautatu **> Añadir a la selección** edo **Eliminar de la selección.**
   - Itzultzeko, hautatu **> Selección inversa.**
   - Hautatutakoaren tamaina aldatzeko, hautatu .
   - Irudia biratzeko edo alderantzikatzeko, hautatu .
   - Irudia mozteko, hautatu .
   - Zure azken ekintza desegiteko edo berregiteko, hautatu edo .
4. Arrastatu hatza hautatu nahi duzun eremuan zehar.
5. Hautatu kolore efektua emateko, edo hautatu iragazki efektua emateko.

Argazkia kopiatzeko, tolesteko edo marrazteko, hautatu .

6. Hautatu aplikatu nahi duzun efektuaren bariazioa.
7. Beharrezkoa izanez gero, doitu irudia, eta hautatu **Hecho.**
8. Amaitutakoan, sakatu [ ] **> Guardar**.
9. Sartu izen bat, eta hautatu Ados.

## Bideo-errealizadorea

Bideoak editatu eta zenbait efektu aplika ditzakezu. Bideo-editoreak bereizmen eta kodek hauek onartzen ditu:

| Mota | Formatua |
|---|---|
| Bereizmenak | 176 x 144, 320 x 240, 640 x 480, 720 x 480, 1.280 x 720 |
| Kodekak | H.264, H.263, MPEG4 |

- Ez blokeatu gailuaren pantaila Video-On-Demand DivX bat erreproduzitzen ari zarela. Video-On-Demand DivX bat erreproduzitzen ari zarela pantaila blokeatzen duzun bakoitzean, errentan hartzeko dauden kontuetako bat ezabatu egingo da.
- Baliteke Galeriako bideo-fitxategi batzuk eskuragarri ez egotea, bereizmenaren eta kodekaren arabera.
- Erreprodukzioaren kalitatea desberdina izan liteke eduki-motaren arabera.
- Zifratzearen arabera, baliteke fitxategi batzuk ondo erreproduzitzerik ez izatea.

### > Bideo bat sortzea

1. Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **Realizador de vídeo.**
2. Biratu gailua, ikuspegi horizontala ikusteko.
3. Hautatu **Proyecto nuevo.**
4. Hautatu markoko gaia, eta aukeratu **Aplicar.**
5. Hautatu ikonoa pantailako ezkerreko panelean, multimedia fitxategiak gehitzeko.

6 Luze sakatu fitxategi bat, arrastatu pantailako beheko panelera, eta gero hautatu **Hecho.**

- Fitxategi gehiago gehitzeko, errepikatu 6. urratsa.
- Irudi bat erakutsi nahi duzun denbora hautatzeko, arrastatu irudia lerro gorrirantz, eta hautatu iraupenaren ikonoa aurretiko bistaren pantailan.
- Irudiak edo bideoak ezabatzeko, luze sakatu elementu bat, eta, gero, arrastatu zakarrontzirantz.
- Irudiak edo bideoak berrantolatzeko, luze sakatu elementu bat, eta, gero, arrastatu kokapen berrira.

7 Hautatu ⧓, eta gehitu irudien edo bideoen arteko igarotze-efektu bat.

8 Amaitutakoan, sakatu [☰] > **Exp película.**

9 Hautatu bereizmen-aukera bat > **Sí.**

**> Marrazki bat sartzea bideo batean**

1 Abiarazi bideo-editorea, eta gehitu multimedia fitxategiak.

2 Arrastatu irudi edo bideo bat lerro gorrira.

3 Hautatu ✎, eta, gero, marraztu pantailan, tresna hauek erabilita:

| Ikonoa | Funtzioa |
|---|---|
| ✎ | Zirriborro bat marrazteko; boligrafoaren doikuntzak aldatzeko (bi aldiz sakatuta). |
| ⌫ | Testua edo zirriborroa ezabatzeko; borragomaren lodiera aldatzeko edo sartutakoa ezabatzeko (bi aldiz sakatuta). |
| ↶ | Azken ekintza ezabatzeko. |
| ↷ | Azken ekintza berriz egiteko. |

4 Editatutako bideoa gordetzeko.

### > Bideo baten segmentu bat moztea

1. Abiarazi bideo-editorea, eta gehitu multimedia fitxategiak.
2. Hautatu .
3. Arrastatu irudi edo bideo bat lerro gorrira.
4. Mugitu hasierako kortxetea fitxategia hastea nahi duzun punturantz.
5. Mugitu bukaerako kortxetea fitxategia bukatzea nahi duzun punturantz.
6. Gorde editatutako bideoa.

### > Bideo bat zatitzea

1. Abiarazi bideo-editorea, eta gehitu multimedia fitxategiak.
2. Hautatu .
3. Arrastatu irudi edo bideo bat lerro gorrira.
4. Zoaz fitxategia bi klipetan banatu nahi duzun tokira, eta hautatu
5. Gorde editatutako bideoa.

### > Bideo bati efektu bat aplikatzea

1. Abiarazi bideo-editorea, eta gehitu multimedia fitxategiak.
2. Hautatu .
3. Arrastatu irudi edo bideo bat lerro gorrira.
4. Hautatu efektu-aukera bat.
5. Gorde editatutako bideoa.

# Musika

Ikas ezazu zure gogokoa musika entzuten musika-erreproduzitzailean, mugitzen zaren bitartean. Fitxategi-formatu hauek onartzen ditu musika-erreproduzitzaileak: mp3, m4a, mp4, 3gp, 3ga, wma, ogg, oga, aac eta flac.

- Litekeena da zenbait fitxategi-formatu ez onartzea, gailuaren softwarearen bertsioaren arabera.
- Fitxategi batek eskuragarri dagoen memoria baino tamaina handiagoa badu, baliteke erroreren bat izatea erreproduzitzen saiatzean.
- Erreprodukzioaren kalitatea desberdina izan liteke eduki-motaren arabera.
- Zifratzearen arabera, baliteke fitxategi batzuk ondo erreproduzitzerik ez izatea.

**> Gailuari musika-fitxategiak eranstea**

Hasteko, transferitu fitxategiak gailura edo memoria-txartelera:

- Deskargatu fitxategiak haririk gabeko saretik. ▶ 114. or.
- Deskargatu PC batetik Samsung Kies-ekin. ▶ 137. or.
- Jaso fitxategiak bluetooth bidez. ▶ 128. or.
- Kopiatu fitxategiak memoria-txartel batean. ▶ 138. or.
- Sinkronizatu Windows Media 11-ren erreproduzitzailearekin. ▶ 137. or.

**> Musika erreproduzitzea**

Fitxategiak gailura edo memoria-txartelera transferitu ondoren:

1. Pantaila nagusian, ireki aplikazio-zerrenda, eta hautatu **Música.**
2. Hautatu musika-kategoria bat.
3. Hautatu musika-fitxategi bat.

4 Erabili ikono hauek erreprodukzioa kontrolatzeko:

| Ikonoa | Funtzioa |
|---|---|
| | Entzungailua konektatzean 5.1 kanaleko soinu inguratzailearen sistema aktibatzeko. |
| | Bolumena doitzeko. |
| | Ausazko erreprodukzioaren modua aktibatzeko. |
| | Errepikapen-modua aldatzeko (desaktibatuta, fitxategi bat errepikatzea edo fitxategi guztiak errepikatzea). |
| | Erreprodukzioa hasierara eramateko; atzera egiteko (luze sakatuta 2 segundoan); fitxategi batean atzera egiteko (luze sakatuta). |
| | Erreprodukzioa gelditzeko; hautatu erreprodukzioa berriro martxan jartzeko. |
| | Hurrengo fitxategira joateko eta fitxategi berean aurrera egiteko (luze sakatuta). |

Entzungailu baten bidez kontrola dezakezu musika-erreproduzitzailea. Pantaila nagusian, luze sakatu entzungailuaren botoia musika-erreproduzitzailea martxan jartzeko. Sakatu entzungailuaren botoia, erreprodukzioa hasteko edo geldiarazteko.

**> Erreprodukzio-zerrenda bat sortzea**

1 Pantaila nagusian, ireki aplikazio-zerrenda, eta hautatu **Música.**

2 Hautatu **Listas de reproducción.**

3 Sakatu [ ] **>Crear.**

4 Idatzi izenburu bat erreprodukzio-zerrendarentzat, eta sakatu **Guardar.**

5 Hautatu erreprodukzio-zerrenda berri bat, eta sakatu [☰]> **Añadir.**

6 Hautatu nahi dituzun fitxategiak, eta gero, hautatu **Añadir.**

Erreproduzitzen ari dela, fitxategiak gehi ditzakezu zerrendara, hau sakatuta: [☰]> **Añadir a lista de reproducción.**

Musika-erreproduzitzailearen ezarpenak pertsonalizatzea

1 Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **Música.**

2 Sakatu [☰] **> Ajustes.**

3 Definitu doikuntza hauek musika-erreproduzitzailea pertsonalizatzeko:

| Zenbakia | Funtzioa |
|---|---|
| Ecualizador | Ekualizadore-mota lehenetsi bat hautatzeko. |
| Efectos sonido | Soinu-efektua aukeratzeko. |
| Menú de música | Musika-liburutegiaren pantailan agertuko diren musika-kategoriak hautatzeko. |
| Visualización | Erreproduzitzen ari dela irudi animatu bat bistaratzeko. |
| Letra | Abestien letra bistaratzeko erreproduzitu bitartean. Musika-erreproduzitzaileak ID3v2 etiketak dituzten letrak soilik onartzen ditu. |
| Música automática desactivada | Musika-erreproduzitzailea definitzeko automatikoki itzal dadin denbora-tarte jakin bat igaro ondoren. |

## Music Hub

On line musika-dendara sartu, eta zure gogoko abestiak bilatu eta eros ditzakezu.

Baliteke funtzio hori erabilgarri ez egotea, herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.

1 Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **Social Hub.**

2 Aplikazio hori lehenengo aldiz abiarazi baduzu, aukeratu **No mostrar durante 90 días** aukeraren ondoko egiaztapen-laukia, eta hautatu **Confirmar.**

3 Bilatu abestiak, eta entzun edo erosi zure gogoko abestiak.

## FM irratia

Ikas ezazu musika eta berriak FM irratian entzuteko modua. FM irratia entzuteko, entzungailua konektatu behar da, irrati-antena gisa funtzionatzen baitu.

### > FM irratia entzutea

1 Konektatu entzungailu bat gailuan.

2 Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **Radio FM.**

FM irratiak automatikoki bilatzen eta gordetzen ditu eskuragarri dauden irrati-kateak.

FM irratia lehen aldiz pizten duzunean, sintonizazio automatikoa hasiko da.

3 Irrati-kateen zerrendatik, hautatu nahi duzun irrati-katea, eta sakatu [↩], FM Irratiaren pantailara itzultzeko.

4 Erabili tekla hauek FM irratia kontrolatzeko:




| Zenbakia | Funtzioa |
|---|---|
| 1 | FM irratitik abestiak grabatzeko. |
| 2 | Eskura dagoen irrati-kate bat bilatzeko |
| 3 | Maiztasuna sintonizatzeko. |
| 4 | Uneko irrati-katea gogokoen zerrendara gehitzeko. |
| 5 | Bolumena doitzeko. |
| 6 | FM irratia pizteko edo itzaltzeko. |

> **Irrati-kate bat automatikoki gordetzeko**

1 Konektatu entzungailu bat gailuan.

2 Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **Radio FM.**

3 Hautatu [≡] **> Buscar >** bilaketarako aukera bat.

FM irratiak automatikoki bilatzen eta gordetzen ditu eskuragarri dauden irrati-kateak.

4 Irrati-kateen zerrendatik, hautatu nahi duzun irrati-katea, eta sakatu [↩] FM Irratiaren pantailara itzultzeko.

> **Uneko irrati-kanala gogokoen zerrendara gehitzea**

1 Konektatu entzungailu bat gailuan.

2 Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **Radio FM.**

3 Hautatu ⏻ FM irratia pizteko.

4 Joan irrati-kate batera.

5 Hautatu + irrati-katea gogokoen zerrendari gehitzeko.

### > FM irratiaren doikuntzak pertsonalizatzea

1. Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **Radio FM.**
2. Sakatu [≡] > **Ajustes.**
3. Egin doikuntza hauek FM irratia pertsonalizatzeko:

| Aukera | Funtzioa |
|---|---|
| Reproducción en 2º plano | FM irratia bigarren mailan exekutatzeko, beste aplikazio batzuk erabili bitartean. Funtzioa piztuta badago, jakinarazpen-paneletik kontrolatu ahal izango duzu FM irratia. |
| Mostrar ID de estación | FM irratiaren pantailan irrati-katearen IDa bistaratu nahi den edo ez zehazteko. Informazio hori ematen duten irrati-kateen IDak soilik daude eskuragarri. |
| Frecuencia alternativa | Seinalea ahula denean FM irratiak irrati-kanala berriz sintonizatzen saiatzea nahi den edo ez zehazteko. |
| FM automática desactivada | Denbora-tarte jakin bat igaro ondoren FM irratia automatikoki desaktibatzea zehazteko. |

# Informazio pertsonala

## Kontaktuak

Ikasi kontaktu pertsonalen edo laneko kontaktuen zerrenda bat sortzen eta administratzen. Aukera izango duzu izenak, telefono mugikorretako eta finkoetako zenbakiak, helbide elektronikoak, urtebetetzeak eta kontaktuei buruzko informazio gehiago gordetzeko.

**> Kontaktu bat sortzea**

1 Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **Contactos.**

2 Hautatu ⊕.

3 Hautatu memoriako atal bat.

Kontu bat baino gehiago badituzu, hautatu kontaktua gehitu nahi duzun kontua.

4 Idatzi kontaktuaren informazioa.

5 Hautatu **Guardar**, memorian kontaktu bat gehitzeko.

Markatzeko pantailatik ere sor dezakezu kontaktu bat.

1 Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **Teléfono > Teclado.**

2 Sartu telefono-zenbaki bat.

3 Hautatu **Agregar a Contactos > Crear contacto.**

4 Hautatu memoriako atal bat.

Kontu bat baino gehiago badituzu, hautatu bat.

5 Idatzi kontaktuaren informazioa.

6 Hautatu Guardar kontaktua memoriara gehitzeko.

### > Kontaktu bat bilatzea

1 Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **Contactos.**

2 Mugitu gora edo behera kontaktuen zerrendan. Bestela, hatza arrastatu dezakezu aurkibidearen eskuinaldetik, zerrendan azkar mugitzeko.

3 Hautatu kontaktu baten izena.

Kontaktua aurkitzen duzunean, aukera hauek izango dituzu:

- Mezuari erantzuteko, hautatu  > .
- Mezu bat bidaltzeko, aukeratu .
- Mezu elektroniko bat bidaltzeko, aukeratu .
- Kontaktuaren informazioa editatzeko, sakatu [] **> Editar.**
- Kontaktua gogoko gisa definitzeko, aukeratu 

### > Bizkor markatzeko zenbaki bat zehaztea

1 Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **Contactos.**

2 Sakatu [] **> Más > Ajuste de marcación rápida.**

3 Hautatu kokaleku-zenbaki bat > kontaktu bat.

4 Hautatu telefono-zenbaki bat (beharrezkoa bada).

Zenbakia azkar markatzeko, sakatu luze kokaleku-zenbakia markatzeko pantailan.

**> Kontaktu-txartel bat sortzea**

1 Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **Contactos.**

2 Sakatu [ ] **> Mi perfil.**

3 Sakatu [ ] **> Crear.**

4 Idatzi zure informazio pertsonala.

5 Hautatu **Guardar.**

Zure kontaktu-txartela bidaltzeko, erantsi mezu bati edo mezu elektroniko bati, edo bidali Haririk gabeko bluetooth funtzioaren bidez.

**> Sare sozialetako kontaktuak berreskuratzea**

Zure sare sozialetako kontuen zerrenda ikusi eta webguneko kontaktu bat zure agendara gehitu dezakezu.

1 Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **Contactos.**

2 Sakatu [ ] **> Más > Ver amigos.**

3 Hautatu kontu bat.

4 Hautatu kontaktuak, eta, gero, hautatu **Añadir.**

Zure kontaktuek jarritako mezuei iruzkinak gehitu eta haien argazki partekatuak ikus ditzakezu. Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **Contactos >** kontaktu bat **> Actividades** edo **Multimedia.**

### > Kontaktu-talde bat sortzea

Kontaktu-taldeak sortzen badituzu, aukera izango duzu zenbait kontaktu kudeatzeko eta mezuak edo mezu elektronikoak talde oso bati bidaltzeko. Hasteko, sortu talde bat.

1. Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **Contactos.**
2. Joan ezkerrera edo eskuinera, **Grupos**-era.
3. Sakatu [≡]**> Crear**.
4. Sartu izen bat taldearentzat, eta hautatu melodia bat.
5. Hautatu **Añadir miembro,** hautatu taldera gehitzeko kontaktuak, eta hautatu **Añadir.**
6. Hautatu **Guardar.**

### > Kontaktuak kopiatzea

SIM edo USIM txarteleko kontaktuak zure gailura kopiatzeko:

1. Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu[≡].
2. Sakatu [≡] **> Importar/exportar > Importar desde tarjeta SIM.**
3. Hautatu memoriako atal bat.

   Kontu bat baino gehiago badituzu, hautatu bat.
4. Hautatu kontaktuak, eta, gero, hautatu **Importar.**

SIM edo USIM txarteleko kontaktuak zure gailura kopiatzeko:

1 Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **Contactos.**

2 Sakatu [☰]**> Importar/exportar —> Exportar a tarjeta SIM.**

3 Hautatu contactos, eta, gero, hautatu **Exportar > Sí.**

**> Kontaktuak esportatzea edo inportatzea**

Memoria-txarteletik kontaktu-fitxategiak zure gailura inportatzeko (vcf formatuan):

1 Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **Contactos.**

2 Sakatu [☰] **> Importar/exportar > Importar desde tarjeta SD.**

3 Hautatu memoriako atal bat.

Kontu bat baino gehiago badituzu, hautatu bat.

4 Hautatu kontaktu-fitxategi bakarra, fitxategi bat baino gehiago edo fitxategi guztiak inportatzeko aukera bat, eta hautatu **Aceptar.**

5 Hautatu inportatu nahi dituzun kontaktu-fitxategiak, eta hautatu **Aceptar.**

Kontaktuak zure gailutik memoria-txartel batera inportatzeko:

1 Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **Contactos.**

2 Sakatu [☰] **> Importar/exportar —> Exportar a tarjeta SD.**

3 Hautatu **Aceptar,** berresteko.

# Egutegia

Ikasi zure kronogramak eta zereginak ahalik eta modu eraginkorrenean ikusten eta administratzen, S planifikatzailea erabilita.

### Gertaera edo lan bat sortzea

1. Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **Calendario >** ➕.
2. Egutegiaren sinkronizazioari buruzko alerta-mezuak agertzen badira, hautatu **Aceptar.**
3. Hautatu aukera bat.
   - Egunaren edo astearen araberako bistaratzean, zeregin bat sor dezakezu xehetasun sinplifikatuekin, eremu huts bat hautatuta.
   - Hilabetearen araberako bistaratzean, ohar bat sor dezakezu data bat luze sakatuta.
4. Sartu xehetasunak, eta hautatu **Guardar.**

Zereginak sortzeari buruzko informazio gehiago eskuratzeko, ikus 58. orrialdea.

Ikuspegiaren modua aldatzea

Egutegiaren ikuspegiaren modua aldatzeko, hautatu › > bistaratze-fitxa bat. Horrez gain, pantaila bi hatzekin ukitu eta elkartu edo bereizi egin ditzakezu, ikuspegiaren modua aldatzeko.

### Urtearen ikuspegia

- Hautatu ◀edo▶, beste urte batzuk ikusteko. Bestela, ukitu pantaila ezkerrera edo eskuinera.
- Aukeratu hilabete bat hilabeteko ikuspegira aldatzeko.

### Hilabeteko ikuspegia

Aukeratu pantailaren ezkerreko eta eskuineko aldean dauden hilabeteen ikonoak beste hilabete batzuk ikusteko.

### Asteko ikuspegia

- Hautatu ◀ edo ▶ beste aste batzuk ikusteko. Bestela, ukitu pantaila ezkerrera edo eskuinera.
- Zeregin bat mugitzeko, luze sakatu elementu bat, eta arrastatu beste kokapen batera. Zereginaren data eta ordua automatikoki doituko dira.

### 3 eguneko ikuspegia

- Hautatu ◀ edo ▶ aurreko edo ondorengo hiru egunak ikusteko. Bestela, ukitu pantaila ezkerrera edo eskuinera.
- Zeregin bat mugitzeko, luze sakatu elementu bat, eta arrastatu beste kokapen batera. Zereginaren data eta ordua automatikoki doituko dira.

### Eguneko ikuspegia

- Hautatu ◀ edo ▶, beste egun batzuk ikusteko. Bestela, ukitu pantaila ezkerrera edo eskuinera.
- Zeregin bat mugitzeko, luze sakatu elementu bat, eta arrastatu beste kokapen batera. Zereginaren data eta ordua automatikoki doituko dira.

### Agenda-ikuspegia

- Hautatu **Pulse para buscar más** data jakin batetik aurrera edo data batera arte programatutako zereginak ikusteko.
- Zeregin bat gauzatutzat emateko, hautatu alboan duen kontrol-laukia.

### Zereginen ikuspegia

Zeregin bat gauzatutzat emateko, hautatu alboan duen kontrol-laukia.

### > Zereginak ikustea

1 Pantaila nagusian, ireki aplikazio-zerrenda, eta hautatu **Calendario.**

2 Sakatu [▤] **> Buscar** zeregin bat bilatzeko (beharrezkoa bada). Bilaketa-aukera murrizteko, hautatu ▦ > aukera bat.

3 Hautatu data bat egutegian.

- Uneko data hautatzeko, aukeratu [▤] **> Hoy.**
- Egun jakin batera eskuz joateko, sakatu [▤] **> Ir a,** sartu data + edo – sakatuta, eta hautatu **Definir.**

4 Hautatu ekitaldi bat xehetasunak ikusteko.

- Kontaktuaren informazioa editatzeko, sakatu [▤] **> Editar.**
- Zeregina kopiatzeko, sakatu [▤] **> Copiar.**
- Zeregina ezabatzeko, sakatu [▤] **> Eliminar.**
- Gertaera beste pertsona batzuei bidaltzeko, sakatu [▤] **> Enviar por >** aukera bat.
- Ohar bat edo argazki bat gehitzeko, sakatu [▤] **> Vinc. memos** edo **Vinc. imág. >** aukera bat.

### > Gertaera baten alarma geldiaraztea

Egutegiko gertaera baterako alarma zehazten baduzu, gertaeraren alarma-ikonoa agertuko da adierazitako ordutegian.

1 Ireki lasterbideen panela; pantailaren goiko aldean dago.

2 Hautatu gogorarazle bat, ekitaldiaren xehetasun gehiago ikusteko.

3 Gogorarazlea errepikatzeko edo baztertzeko, hautatu **Repetir todo** edo **Rechazar todo.**

# S oharrak

Ikasi efektu bereziak dituzten oharrak sortzen, ikusten eta editatzen. Hainbat multimedia-eduki sar ditzakezu ohar batean, hala nola irudiak, mapak eta etiketak.

### > Ohar bat sortzea

1 Pantaila nagusian, ireki aplikazio-zerrenda, eta hautatu **S Memo**.

2 Aplikazioa abiarazten duzun lehen aldia bada, markatu **No mostrar de nuevo** aukeraren ondoko egiaztapen-laukia, eta hautatu Finalizado.

3 Hautatu .

Testua teklatuaren bidez idazteko, hautatu .

4 Sartu testua, marraztu zirriborro bat edo gehitu argazki bat edo soinu-fitxategi bat.

Oharrak sortzeari buruzko informazio gehiago izateko, ikus 53. orrialdea.

Orrialde ugariko ohar bat sortzeko,

1 Pantaila nagusian, ireki aplikazio-zerrenda, eta hautatu **S Memo.**

2 Hautatu .

Testua teklatuaren bidez idazteko, hautatu .

3 Sartu testua, marraztu zirriborro bat edo gehitu argazki bat edo soinu-fitxategi bat.

4 Hautatu  beste orrialde bat gehitzeko eta ohar bat sortzeko.

5 Orrialde gehiago gehitzeko, errepikatu 4. urratsa.

6 Amaitzean, hautatu **Guardar.**

7 Sartu izen bat, eta hautatu **Aceptar.**

## > Karpeta bat sortzea

1. Pantaila nagusian, ireki aplikazio-zerrenda, eta hautatu S Memo.
2. Sakatu [≡] > **Más** > **Crear carpeta.**
3. Sartu izen bat, eta hautatu **Aceptar.**
4. Hautatu karpeta berria, eta aukeratu ✎.
Testua teklatuaren bidez idazteko, hautatu T.
5. Orrialde gehiago gehitzeko, hautatu ⊞, eta sortu ohar bat.

## > Oharrak ikustea

1. Pantaila nagusian, ireki aplikazio-zerrenda, eta hautatu **S Memo.**
2. Sakatu [≡] > **Buscar**, ohar bat bilatzeko (behar izanez gero).
3. Hautatu ohar bat xehetasunak ikusteko.
Karpeta baterako, hautatu karpeta bat eta ohar bat.

Oharra ikusten ari zarela, aukera hauek erabil ditzakezu:

- Edizio-modura aldatzeko, ukitu pantaila.
- Ohar bat PINarekin blokeatzeko, sakatu [≡]> **Bloquear.**
- Ohar bat pantaila-atzealde gisa edo widget baten irudi gisa definitzeko, sakatu [≡] > **Definir como.**
- Oharra beste pertsona batzuei bidaltzeko, hautatu [≡] > **Compartir.**
- Ohar bat inprimatzeko, sakatu [≡] > **Imprimir.** Zure gailua Samsung inprimagailu batzuekin soilik da bateragarria.

## > Oharrak editatzea

1. Pantaila nagusian, ireki aplikazio-zerrenda, eta hautatu **S Memo.**
2. Hautatu ohar bat edo karpeta bat > ohar bat.
3. Ukitu pantaila, edizio-modura aldatzeko.

4 Editatu oharra, pantailako ikonoen bidez ▶ 53. or.

- Oharraren atzealdeko kolorea aldatzeko, sakatu [≡] > **Cambiar fondo.**
- Etiketa bat gehitzeko, sakatu [≡] > **Añad etiq.**
- Egutegiari ohar bat gehitzeko zeregin gisa, sakatu [≡] > **Más > Vincular con planificador S.**

5 Hautatu ➕ edo **Guardar.**

**> Ohar bat esportatzea irudi-fitxategi gisa**

1 Pantaila nagusian, ireki aplikazio-zerrenda, eta hautatu **S Memo.**

2 Sortu edo hautatu ohar bat.

3 Sakatu [≡] > **Guardar en galería.**

Zure oharra **Galeria**ra esportatuko da, irudi-fitxategi gisa.

**> Ohar bat testu bihurtzea**

1 Pantaila nagusian, ireki aplikazio-zerrenda, eta hautatu **S Memo.**

2 Sortu ohar bat, karaktereak marraztuta, edo hautatu ohar bat.

3 Sakatu [≡] > **Escritura a mano a texto.**

Eskuz idatzitako zure oharra testu bihurtuko da.

Oharra hizkuntza batean baino gehiagotan idatzita badago, testura bihurtzeak huts egin dezake.

# Ahots-grabagailua

Ikas ezazu zure gailuko ahots-grabagailua erabiltzen.

### > Ahots-ohar bat grabatzea

1. Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **Grabadora de voz.**
2. Sakatu **Grabar** grabazioa hasteko.
3. Mikrofonotik hurbil hitz egin.
4. Amaitzean, hautatu **Parar.**
   Ahots-oharra automatikoki gordeko da.
5. Ahots-ohar gehiago grabatzeko, hautatu berriro **Grabar.**

### > Ahots-ohar bat erreproduzitzea

1. Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **Grabadora de voz.**
2. Hautatu ahots-ohar bat.

Ahots-oharra beste pertsona batzuei bidaltzeko, sakatu [≡] **> Compartir >** aukera bat.

# Internet

Web-zerbitzuak erabiltzeko, datu-konexioa behar da. Jarri zure operadorearekin harremanetan, datu-planik onena hautatzeko.

## Nabigatzailea

Ikas ezazu webguneetara sartzen eta gogokoei gehitzen.

- Baliteke kargu gehigarriak ordaindu behar izatea Interneten sartu edo multimedia-fitxategiak deskargatuz gero. Xehetasun gehiago behar izanez gero, jarri harremanetan zerbitzu-hornitzailearekin.
- Eskuragarri dauden ikonoak aldatu egin daitezke zerbitzu-hornitzailearen edo zu zauden eremuaren arabera.

### > Webguneetan nabigatzea

1 Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu Navegador, pantaila nagusia jakin bat irekitzeko.

Web-orri jakin batera sartzeko, hautatu URL helbidea sartzeko eremua, idatzi web-orriaren helbidea, eta hautatu ➔.

2 Erabili tekla hauek webean nabigatzeko:




Nabigatzailearen pantaila aldatu egin daiteke lurraldearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.

| Zenbakia | Funtzioa |
|---|---|
| 1 | Historiako web-orrietan aurrera edo atzera egiteko. |
| 2 | Uneko web-orriak berriro kargatzeko; gailua web-orriak kargatzen ari denean, ikonoa aldatu, eta (...) agertuko da. |
| 3 | Gordetako gogokoen zerrendara, maiz bisitatutako orrietara eta Interneteko historiaren azkeneko orrietara sartzeko. |
| 4 | Leiho berri bat irekitzeko edo irekita dauden leiho batetik bestera joateko. |

Web-orri batean nabigatu bitartean, aukera hauek erabil ditzakezu:

- Zooma handitzeko, jarri bi hatz pantailan, eta bereiz itzazu. Zooma txikitzeko, elkartu bi hatzak. Bestela, sakatu pantaila bi aldiz.

Inklinazio-mugimendua aktibatu baduzu, zooma handitu edo txikitu dezakezu zure hatzekin bi puntutan luze sakatuta, eta gero gailua atzera eta aurrera inklinatuta.

- Leiho berria irekitzeko, sakatu [≡] > **Nueva ventana.**
- Web-orrian testua bilatzeko, sakatu [≡] > **Buscar en página.**
- Uneko web-orria markatzeko, sakatu [≡] > **Añadir elemento favorito.**
- Pantailaren distira doitzeko, sakatu [≡] > **Brillo del navegador.** Baliteke funtzio hori erabilgarri ez egotea, une horretan zauden herrialdearen arabera.
- Nabigatzailearen doikuntzak pertsonalizatzeko, sakatu [≡] > **Ajustes.**

- Deskargen historia bistaratzeko, sakatu [☰] > **Más** > **Descargas.**
- Uneko web-orria konektatuta dagoen inprimagailu baten bidez inprimatzeko, sakatu [☰] > **Más** > **Imprimir.** Zure gailua Samsung inprimagailu batzuekin soilik da bateragarria.
- Web-helbide bat (URLa) beste pertsona batzuei bidaltzeko, hautatu [☰] > **Más** > **Compartir página.**
- Uneko webgunearen lasterbidea gehitzeko pantaila nagusian, sakatu [☰] > **Más** > **Añadir acc dir a inicio.**
- Web orriaren xehetasunak ikusteko, sakatu [☰] > **Más** > **Info pág.**

### > Informazioa ahotsaren bidez bilatzea

Baliteke funtzio hori erabilgarri ez egotea, herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.

1 Pantaila nagusian, ireki aplikazio-zerrenda, eta hautatu **Navegador.**

2 Sakatu URLa sartzeko eremua.

3 Hautatu 🎤, eta esan gako-hitz bat gailuaren mikrofonoan.

Gailuak gako-hitzarekin loturiko informazioa eta web-orriak bilatuko ditu.

### >Web-orriak gogoko gisa markatzea

Web-orri baten helbidea ezagutzen baduzu, gogoko bat eskuz sar dezakezu. Gogokoak gehitzeko:

1 Pantaila nagusian, ireki aplikazio-zerrenda, eta hautatu **Navegador.**

2 Hautatu 🔖 > **Favoritos.**

3 Hautatu Añadir, edo sakatu [≡]> **Marcar como favorita la última página visitada.**

Ikusten ari zaren web-orria gogoko moduan markatzeko, joan 5. urratsera.

4 Idatzi orri baten izenburua eta web-helbidea (URL).

5 Hautatu **Aceptar.**

Gogokoen zerrendan, luze sakatu gogoko helbidea, eta erabili aukera hauek:

- Web-orria uneko leihoan irekitzeko, hautatu **Abrir.**
- Web-orri bat beste leiho batean irekitzeko, hautatu **Abrir en nueva vent.**
- Gogokoaren xehetasunak aldatzeko, hautatu **Editar elemento favorito.**
- Pantaila nagusiari zuzeneko sarbidea gehitzeko, hautatu **Añadir acc dir a inicio.**
- Web-helbide bat (URLa) beste pertsona batzuei bidaltzeko, hautatu **Comp vínculo.**
- Web-helbidea (URLa) kopiatzeko, hautatu **Cop URL de vínc.**
- Elementu gogokoa ezabatzeko, hautatu **Borrar favorito.**
- Web-orria nabigatzailearen hasierako orri gisa definitzeko, hautatu **Definir como página de inicio.**

**> Maiz bisitatutako orrietara edo historia berrienera sartzea**

1 Pantaila nagusian, ireki aplikazio-zerrenda, eta hautatu **Navegador**.

2 Hautatu [icon] **> Más visitados** edo **Historial.**

3 Hautatu web-orri bat, hara sartzeko.

Web-orri bat gogokoen zerrendan gehitu dezakezu, [icon] hautatuta.

# Mapak

Ikas ezazu Google Maps®-en mapa-zerbitzua erabiltzen zure kokapena edo beste leku batzuk bilatzeko eta argibideak eskuratzeko.

**> Kokapen bat bilatzea**

1 Pantaila nagusian, ireki aplikazio-zerrenda, eta hautatu **Maps.**

Aplikazio hau lehenengo aldiz abiarazten ari bazara, hautatu **Aceptar.**

2 Zure uneko kokapena erakutsiko dizu mapak.

3 Sakatu [] > **Buscar.**

4 Sartu gako-hitza, eta hautatu . Kokapen bat ahotsaren bidez bilatzeko, hautatu .

5 Hautatu nahi duzun kokapena, xehetasunak ikusteko.

- Zure bilaketaren emaitza guztien zerrenda ikusteko, hautatu .
- Argazkiak handitzeko edo txikitzeko, hautatu , .
- Gertuko toki bat bilatzeko, hautatu .
- Mapari geruzak gehitzeko, hautatu .
- Zure uneko kokapena ikusteko, sakatu .
- Kokapenari izar bat gehitzeko, hautatu kokapenaren izena duen puxika > .

**> Helmuga jakin baten helbidea lortzea**

1 Pantaila nagusian, ireki aplikazio-zerrenda, eta hautatu **Maps.**

2 Sakatu [] > **Indicaciones.**

3 Idatzi hasierako kokapenaren eta amaierako kokapenaren helbidea.

Kontaktuen zerrendatik helbide bat sartzeko edo mapan kokapena zehazteko, hautatu  > **Contactos, Punto en el mapa** edo **Mis sitios.**

4 Hautatu garraiobide bat (autoa, autobusa edo oinez), eta hautatu **Cómo llegar.**

Mapan adierazten da bidea. Hautatzen den bidaia-metodoaren arabera, baliteke bide bat baino gehiago ikustea. Hautatu bide bat bidaiaren xehetasunak ikusteko, eta hautatu bidea mapan ikusteko.

5 Hautatu edo bidearen zati bakarra ikusteko.

6 Amaitzean, sakatu [] > **Limpiar mapa.**

# Latitudea

Ikas ezazu zure lagunekin zure kokapena partekatzen eta haien kokapena bistaratzen Google LatitudeTM-rekin.

Baliteke funtzio hori erabilgarri ez egotea, herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.

1 Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **Latitud.**

Gailuak automatikoki bat egingo du Latituderekin.

2 Hautatu > **Seleccionar entre los contactos** edo **Añadir mediante dirección de correo electrónico.**

3 Hautatu lagun bat edo sartu posta elektronikoko helbide bat, eta hautatu **Añadir amigos.**

4 Hautatu **Sí.**

Zure lagunek gonbidapena onartzen dutenean, kokapenak partekatu ahal izango dituzu haiekin.

5 Sakatu [] > **Ver mapa.**

Zure lagunen kokapena haien argazkiekin markatuko dira mapan.

## Lekuak

Ikasi zugandik gertu dagoen toki bat bilatzen.

Baliteke funtzio hori erabilgarri ez egotea, herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.

1 Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **Sitios.**

2 Hautatu kategoria bat.

Kategoria horrekin loturik zure kokapenetik gertu dauden lekuak bilatuko ditu gailuak.

3 Hautatu leku baten izena, xehetasunak ikusteko.

4 Informazioa ikusten ari zarela, aukera hauek erabil ditzakezu:

- Leku horretako mapa ikusteko, hautatu **Mapa.**
- Leku horretarako bidea ikusteko, hautatu **Indicaciones.**
- Tokiaren telefono-zenbakia ikusteko, hautatu **Llamar.**

## Nabigazioa

Ikasi GPS nabigazio-sistema erabiltzen, zure norakoa ahots-gidekin bilatzeko eta erakusteko.

- Baliteke nabigazio-mapak, zure uneko kokapena eta beste nabigazio-datu batzuk bat ez etortzea informazio errealarekin. Gidatzen ari zarela, jarri arreta beti errepidearen egoerari, zirkulazioari eta gidatzeari eragin diezaioketen gainerako faktoreei. Horrez gain, bete beti segurtasun-oharrak eta -araudiak.
- Baliteke funtzio hau erabilgarri ez egotea herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.

1 Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **Navigation.**

2 Aplikazio hau lehenengo aldiz abiarazten ari bazara, hautatu **Aceptar.**

3 Sartu zure norakoa hauetako metodo baten bidez:

- **Di el destino:** esan zure norakoa; esaterako, "Navegar hacia norakoa".
- **Teclear destino:** norakoa teklatu birtualarekin sartzeko.
- **Contactos:** zure kontaktuen helbideetatik zure norakoa hautatzeko.
- **Sitios destacados:** leku gogokoen zerrendan zure kokapena hautatzeko.

4 Jarraitu pantailako jarraibideei nabigazio-zerbitzua erabiltzeko.

# YouTube

Ikasi bideoak ikusten eta partekatzen, YouTube®-ren bideo partekatuen zerbitzuaren bidez.

Baliteke funtzio hori erabilgarri ez egotea, herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.

### > Bideoak ikustea

1 Pantaila nagusian, ireki aplikazio-zerrenda, eta hautatu **YouTube.**

2 Aplikazio hau lehenengo aldiz abiarazten ari bazara, hautatu **Aceptar.**

3 Hautatu bideo bat zerrendan.

4 Biratu gailua, ikuspegi horizontala ikusteko.

5 Kontrolatu erreprodukzioa pantailako ikonoen bidez.

### > Bideoak partekatzea

1 Pantaila nagusian, ireki aplikazio-zerrenda, eta hautatu **YouTube.**

2 Hautatu bideo bat.

3 Hautatu **Más > Compartir >** aukera bat.

### > Bideoak kargatzea

1 Pantaila nagusian, ireki aplikazio-zerrenda, eta hautatu **YouTube.**

2 Sakatu [≡]**> Subir,** eta hautatu bideo bat. Zoaz 7. urratsera.

Bideo berriak kargatu nahi badituzu, hautatu kamera pizteko.

3 Fokatu objektiboa kamerarekin, eta egin egin beharreko doikuntzak.

4 Hautatu grabatzen hasteko.

5 Sakatu grabazioa geldiarazteko.

6 Hautatu **Guardar,** grabatutako bideoa kargatzeko.

7 Idatzi zure erabiltzaile-izena eta pasahitza, eta hautatu **Acceder** (beharrezkoa bada).

8 Idatzi kargatzearen xehetasunak, eta hautatu **Subir.**

## Samsung Apps

Samsung Appsekin, aplikazio ugari deskarga ditzakezu zuzenean zure gailuan. Samsung Appsek hainbat aplikazio ditu (jokoak, albisteak, erreferentziak, sare sozialak, nabigazioa eta osasuna); hala, mugikorreko hainbat esperientzia dituzu eskuragarri unean bertan.

Gailua gero eta adimentsuagoa bilakatuko da Samsung Appsen aplikazio guztiz optimizatuekin. Ezagut itzazu aplikazio harrigarriak, eta hobetu zure bizitza mugikorra.

- Baliteke zerbitzu hori erabilgarri ez egotea, herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.
- Xehetasun gehiago eskuratzeko, ikusi www.samsungapps.com.

1 Pantaila nagusian, ireki aplikazio-zerrenda, eta hautatu **Samsung Apps**.

2 Aplikazio hau abiarazten duzun lehen aldia bada, irakurri baldintzak, eta hautatu **Aceptar**.

3 Bilatu eta deskargatu zuk nahi dituzun aplikazioak.

## Market

Jokoak, melodiak eta bestelako aplikazioak deskarga ditzakezu Android Marketetik.

Baliteke funtzio hori erabilgarri ez egotea, herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.

1 Pantaila nagusian, ireki aplikazio-zerrenda, eta hautatu **Market**.

2 Bilatu fitxategi bat, eta deskargatu gailuan. ▶ 39. or.

## Readers Hub

Ikasi Readers Hub funtzio integratua erabiltzen, irakurketa-materialetara sartzeko.

Baliteke funtzio batzuk erabilgarri ez egotea.

1 Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **Readers Hub.**

2 Aplikazio hori lehenengo aldiz abiarazi baduzu, markatu **No mostrar durante 90 días** aukeraren ondoko egiaztapen-laukia, eta hautatu **Confirmar.**

3 Hautatu irakurketa-material baten miniaturako ikuspegia.

4 Bilatu eta deskargatu irakurketa-materiala Interneteko dendan.

## Albisteak eta eguraldia

Ikasi nola ikus dezakezun eguraldiari buruzko informazioa, albiste nagusiak eta beste zenbait artikulu.

**> Eguraldiari buruzko informazioa eguneratzea**

1 Pantaila nagusian, ireki aplikazio-zerrenda, eta hautatu **Noticias y tiempo.**

2 Aukeratu **Tiempo** (pantailaren goialdean dago). Gailuak uneko kokapena bilatu eta eguraldiari buruzko informazioa erakusten du.

Kokapena alda dezakezu beste eskualde bateko eguraldiari buruzko informazioa ikusteko. Sakatu [≡] **> Ajustes > Ajustes de Tiempo,** eta kendu **Utilizar Mi ubicación** aukeraren ondoko kontrol-laukia. Gero, hautatu kokapen bat **Establecer ubicación** aukeran.

### > Albiste-artikuluak irakurtzea

1. Pantaila nagusian, ireki aplikazio-zerrenda, eta hautatu **Noticias y tiempo.**
2. Mugitu ezkerrera pantailaren goiko aldean, albiste-kategoria bateraino.
3. Hautatu artikulu bat, irekitzeko.

Albiste-gaiak eransteko, sakatu [≡] > **Ajustes** > **Ajustes de Noticias** > **Seleccionar temas de noticias.**

# Konektagarritasuna

## Bluetootha

Irismen laburreko haririk gabeko komunikazio-teknologia bat da bluetootha. Hari esker, 10 metro inguruko distantzian informazioa truka daiteke, konexio fisikorik izan gabe.

Bluetooth teknologiarekin, ez da beharrezkoa gailuak lerrokatzea informazioa transmititzeko. Gailuak irismen-tartean badaude, haien artean informazioa truka dezakete, guztiak gela berean egon beharrik gabe.

- Samsungek ez du bere gain hartzen haririk gabeko bluetooth funtzioaren bidez bidalitako edo jasotako datuak galtzearen, bidean atzematearen edo modu desegokian erabiltzearen ardura.
- Ziurta ezazu beti segurtasun egokia duten gailu fidagarriekin partekatzen dituzula datuak. Gailuen artean oztopoak badaude, litekeena da distantzia operatiboa murriztea.
- Gerta daiteke gailu batzuk (Bluetooth SIG-ek probatu edo baimendu gabekoak batez ere) gailuarekin bateragarriak ez izatea.

**› Bluetooth haririk gabeko funtzioa aktibatzea**

1. Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **Ajustes › Conexiones inalámbricas › Ajustes de Bluetooth.**
2. Hautatu **Bluetooth**, haririk gabeko bluetooth funtzioa aktibatzeko.

### > Bluetootherako gaitutako beste gailu batzuk bilatzea eta haiekin konektatzea

1. Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **Ajustes > Conexiones inalámbricas > Ajustes de Bluetooth > Buscar dispositivos.**
2. Hautatu gailu bat.
3. Sartu haririk gabeko bluetooth funtzioaren PINa edo beste gailuaren bluetootharen PINa (baldin badu), eta hautatu **Aceptar.** **Aceptar** ere hauta dezakezu, gailuen PINek bat egin dezaten. Beste gailuaren jabeak PIN bera sartzen duenean, edo konexioa onartzen duenean, biak lotuta egongo dira. Lotura zuzen egiten bada, gailuak automatikoki bilatuko ditu eskura dauden zerbitzuak.

Zenbait gailuk –batez ere, entzungailuek eta autorako esku libreko kitek– bluetootherako PIN finko bat izan lezakete; adibidez, 0000. Beste gailuak PINa badu, sartu egin beharko duzu.

### > Haririk gabeko bluetooth funtzioaren bidez datuak bidaltzea

1. Hautatu fitxategi edo elementu bat (kontaktu bat, egutegiko gertaera bat, ohar bat edo multimedia fitxategi bat, adibidez) aplikazio batetik edo **Mis archivos** ataletik.
2. Hautatu datuak bluetooth bidez bidaltzeko aukera bat.

   Baliteke aukera bat hautatzeko metodoa aldatzea datu-motaren arabera.
3. Bilatu bluetootherako gaitutako gailu bat, eta konektatu hari.

### › Bluetooth haririk gabeko funtzioaren bidez datuak jasotzea

1. Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **Ajustes › Conexiones inalámbricas › Ajustes de Bluetooth › Visible.** Bluetootha darabilten beste gailu batzuek zehaztutako denboran detekta dezakete zure gailua. Bluetootha darabilten beste gailu batzuentzat zure gailua zenbat denboran egongo den ikusgai defini dezakezu, **Tiempo de espera visible** hautatuta.
2. Hala eskatzean, idatzi haririk gabeko bluetooth funtziorako PINa, eta sakatu **Aceptar (**beharrezkoa bada).
3. Hautatu **Aceptar** datuak gailuan jaso nahi dituzula baieztatzeko.

Bluetooth karpetan gordetzen dira jasotzen diren datuak. Kontaktu bat jasotzen baduzu, agendan gordeko da automatikoki.

## WiFia

Ikas ezazu gailuaren haririk gabeko sarearen gaitasunak erabiltzen, IEEE-ren 802.11 a/b/g/n estandarrekin bateragarria den tokiko haririk gabeko sarea aktibatzeko eta hari konektatzeko.

Internetera edo sareko beste gailu batzuetara konekta zaitezke sarbide puntu bat edo haririk gabeko sarbide puntu mugikor bat dagoen edozein tokitan.

Bateratu gabeko maiztasuna erabiltzen du gailuak, eta Europako herrialde guztietan erabiltzeko diseinatuta dago. WLAN sarea mugarik gabe erabil daiteke Europako Batasuneko eraikinen barruan; Frantzian, berriz, legearen arabera, ezin da kanpoaldean erabili.

### > WLAN funtzioa aktibatzea

Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **Ajustes > Conexiones inalámbricas > Ajustes Wi-Fi > Wi-Fi**.

WLANa bigarren mailan aktibatuta uzten baduzu, bateria kontsumituko du. Bateria gordetzeko, behar denean bakarrik aktibatu WLAN sarea.

### > WLAN bat bilatzea eta hara konektatzea

1 Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **Ajustes > Conexiones inalámbricas > Ajustes Wi-Fi**.

Gailuak eskura dauden WLAN sareen bilaketa automatikoa egingo du.

2 Hautatu sare bat **Redes Wi-Fi** eremuan.

3 Sartu pasahitz bat sarerako (beharrezkoa bada).

4 Hautatu **Conectar**.

### > WLAN bat eskuz gehitzea

1 Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **Ajustes > Conexiones inalámbricas > Ajustes Wi-Fi > Añadir red Wi-Fi**.

2 Sartu sarerako SSIDa, eta hautatu segurtasun-mota.

3 Ezarri segurtasun-doikuntzak, hautatutako segurtasun-motaren arabera.

4 Hautatu **Guardar**.

**> WLAN bati konektatzea, babestutako WiFi konfigurazioaren (WPS) bidez**

WPS funtzioarekin, sare seguru batera konektatu zaitezke. WLAN bati WPS botoi bat konektatzeko,

1. Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **Ajustes > Conexiones inalámbricas > Ajustes Wi-Fi.**
2. Hautatu **Conexión del botón de WPS**.
3. Sakatu WPS botoi bat sarbide-puntuan, 2 minuturen barruan.

WLAN bati WPS PIN bat konektatzeko,

1. Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **Ajustes > Conexiones inalámbricas > Ajustes Wi-Fi.**
2. Hautatu WPS ikonoarekin adierazitako sare bat, eta hautatu **PIN DE WPS.**
3. Sarbide-puntuan, sartu PINa, eta sakatu Iniciar botoia.

## Wi-Fi Direct

Ikas ezazu WLAN Direct erabiltzen, bi gailu WLAN baten bidez konektatzeko sarbide-puntu baten beharrik gabe.

**> Zure gailua beste WLAN gailu batera konektatzea**

1. Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **Ajustes > Conexiones inalámbricas > Ajustes Wi-Fi Direct > Aceptar.**
2. Hautatu **Aceptar** (beharrezkoa bada).
3. Hautatu **Wi-Fi Direct.**

4 Sakatu [≡] > **Buscar.**

5 Aukeratu gailu bat, eta hautatu **Conectar.** Beste gailuaren jabeak konexioa onartzen duenean, gailuak konektatuta egongo dira.

### > Datuak WLAN bidez bidaltzea

1 Hautatu fitxategi bat edo elementu bat (adibidez, multimedia fitxategi bat edo web-helbide bat) aplikazio batetik edo **Mis archivos**-etik.

2 Hautatu datuak WLAN bidez bidaltzeko aukera bat.

Baliteke aukera bat hautatzeko metodoa aldatzea datu-motaren arabera.

3 Bilatu eta hautatu WLAN gailu bat.

### > Datuak WLAN bidez jasotzea

Eskatzen zaizunean, hautatu **Aceptar**, datuak jaso nahi dituzula baieztatzeko. ShareViaWifi karpetan gordetzen dira jasotzen diren datuak.

## AllShare

Ikas ezazu DLNA (Digital Living Network Alliance) zerbitzua erabiltzen. Zerbitzu horren bidez, DLNArako gaitutako gailuen artean multimedia-fitxategiak partekatu ditzakezu zure etxetik WLAN baten bidez.

Horretarako, WLAN funtzioa aktibatu behar duzu, eta WLAN profila gehitu. ▶ 129. or.

- Baliteke onartutako fitxategi-formatuak desberdinak izatea gailuaren softwarearen arabera.
- Baliteke fitxategi batzuk DLNArako gaitutako gailuetan erreproduzitzerik ez izatea.

### > DLNAren doikuntzak pertsonalizatzea, multimedia-fitxategiak partekatzeko

DLNArako gaitutako gailuak zure gailuko multimedia-fitxategietara sartzeko aukera izan dezaten, multimedia-edukiak partekatzeko aukera aktibatu behar duzu.

1 Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **AllShare.**

2 Sakatu [≡] > **Ajustes.**

3 Egin doikuntza hauek DLNA funtzioa pertsonalizatzeko:

| Aukera | Funtzioa |
|---|---|
| Nombre de dispositivo | Multimedia-zerbitzari gisa gailuak duen izena sartzeko. |
| Compart vídeo | Bideoak beste DLNA gailu batzuetara transferitzeko aukera aktibatzeko. |
| Compartir imagen | Irudiak beste DLNA gailu batzuetara transferitzeko aukera aktibatzeko. |
| Compartir audio | Musika beste DLNA gailu batzuetara transferitzeko aukera aktibatzeko. |
| Cargar desde otros dispositivos | Beste gailu batzuetatik kargak onartuko diren zehazteko |
| Memoria predeterminada | Deskargatutako multimedia-fitxategiak gordetzeko aurrez zehaztutako memoria-kokapena hautatzeko. |
| Subtítulos | Azpitituluak erakusteko. |

> **Fitxategiak erreproduzitzea DLNArako gaitutako beste gailu batean**

1 Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **AllShare.**

2 Hautatu **Mi dispositivo.**

3 Hautatu multimedia-kategoria bat eta fitxategi bat.

4 Hautatu erreproduzitzaile bat. Erreprodukzioa hasiko da hautatutako erreproduzitzailean.

5 Kontrolatu erreprodukzioa, gailuko ikonoen bidez.

Erreprodukzioa bufferrean gorde daiteke, gailua konektatuta dagoen sareko konexioaren eta zerbitzariaren arabera.

> **Fitxategiak gailu batetik bestera erreproduzitzea**

1 Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **AllShare.**

2 Hautatu **Disp. remoto.**

DLNArako gaitutako gailuen bilaketa automatikoa egiten du gailuak.

3 Hautatu multimedia fitxategiak dituen gailu bat, eta ezarri multimedia-zerbitzari gisa.

4 Hautatu multimedia-kategoria bat eta fitxategi bat.

5 Hautatu multimedia-fitxategia erreproduzituko duen erreproduzitzailea.

Erreprodukzioa hasiko da hautatutako erreproduzitzailean.

6 Kontrolatu erreprodukzioa, gailuko ikonoen bidez.

# Sare mugikorra partekatzea

Ikasi zure gailua hari gabeko modem gisa edo PCrako nahiz beste gailu batzuetarako sarbide-puntu gisa definitzen, eta partekatu zure gailuaren sare mugikorraren konexioa.

**› Zure gailuaren sare mugikorra WLAN bidez partekatzea**

1 Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **Ajustes > Conexiones inalámbricas > Módem USB y Mi zona Wi-Fi**.

2 Hautatu **Ajustes de AP móvil > Aceptar**.

3 Hautatu **AP movil WLAN** sarbide-puntua aktibatzeko.

4 Hautatu **Sí** *(beharrezkoa bada)*.

5 Hautatu **Configurar AP movil** WLAN sarbide-puntua pertsonalizatzeko.

| Aukera | Funtzioa |
|---|---|
| Red SSID | Kanpoko gailuei agertuko zaien gailu-izena ikusteko eta aldatzeko. |
| Segurtasuna | Segurtasun-mota hautatzeko. |

6 Amaitzean, hautatu **Guardar**.

7 Beste gailu batetik, jarri zure gailuaren izena erabilgarri dauden konexioen zerrendan, eta konektatu sarera. Zure gailuak beste gailu batekin partekatzen du sare mugikorreko konexioa.

**> Zure gailuaren sare mugikorra USB bidez partekatzea**

1 USB-kable baten bidez, konektatu gailuaren funtzio anitzeko hargunea PC batekin.

2 Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu A**justes > Conexiones inalámbricas > Módem USB y Mi zona Wi-Fi**.

3 Hautatu **Modem USB**, USBra ainguratzeko funtzioa aktibatzeko.

Zure gailuak ordenagailuarekin partekatzen du sare mugikorreko konexioa.

Sareko konexioa partekatzeari uzteko, desaktibatu **Modem USB** aukeraren ondoko kontrol-laukia.

Sareko konexioa partekatzeko erabiltzen den metodoa desberdina izan daiteke ordenagailuaren sistema eragilearen arabera.

# GPSa

Zure gailuak kokapen sistema globalaren (GPS) hargailua du. Ikasi kokapen-zerbitzuak aktibatzen.

GPS seinale hobeak jasotzeko, saiatu baldintza hauetan gailua ez erabiltzen:

- eraikinen artean, tuneletan, lur azpiko pasabideetan edo eraikinen barruan
- eguraldi txarra egiten duenean
- eremu elektromagnetikoetatik edo tentsio garaiko eremuetatik gertu
- eguzki-izpien aurkako babes-filma duen ibilgailu batean

Ez ukitu barruko antena, eta ez estali eremu hori eskuekin edo bestelako objektuekin GPSaren funtzioak erabiltzen ari zarenean.

Baliteke funtzio hori erabilgarri ez egotea, herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.

## > Kokapen-zerbitzuak aktibatzea

Kokapen-zerbitzuak aktibatu behar dituzu informazioa jasotzeko eta mapan bilatzeko.

1. Pantaila nagusian, ireki aplikazio-zerrenda, eta hautatu **Ajustes > Ubicación y seguridad.**
2. Egin doikuntza hauek kokapen-zerbitzuak aktibatzeko:

| Aukera | Funtzioa |
|---|---|
| Utilizar redes | WLAN sareak edo sare mugikorrak erabiltzeko kokapena bilatzeko. |
| Usar satélites GPS | GPS satelitea erabiltzeko kokapena bilatzeko. |
| Usar ayuda de sensor | GPS seinaleak oztopoak dituenean, oinezkoaren kokapena hobetzeko sentsoreak erabiltzeko. Baliteke aldea egotea sentsorearen kalkuluen eta kokapen errealaren artean |

# PCra konektatzea

Ikas ezazu gailua PC batera konektatzen USB kable bat erabiliz. Gailua PC batera kontatuz gero, aukera duzu fitxategiak Windows Media erreproduzitzailearekin sinkronizatzeko, datuak zure gailutik edo zure gailura zuzenean bidaltzeko eta Samsung Kies programa erabiltzeko.

### > Samsung Kies-ekin konektatzea

Egiaztatu Samsung Kies PCan instalatua duzula. Samsungen webgunetik "http://www.samsung.com/kies" deskarga dezakezu programa.

Samsung Kiesek Windows eta Macintosh ordenagailuekin funtzionatzen du.

1 USB kable baten bidez, konektatu gailuaren funtzio anitzeko hargunea PC batekin.
Samsung Kies automatikoki irekiko da.
Samsung Kies ez bada abiatzen, egin klik bi aldiz zure ordenagailuko Samsung Kiesen ikonoan.

2 Kopiatu PCko fitxategiak gailura.

Informazio gehiago nahi izanez gero, ikus Samsung Kiesen laguntza.

### > Windows Mediaren erreproduzitzailearekin sinkronizatzea

Egiaztatu zure PCan Windows Media erreproduzitzailea instalatuta daukazula.

1 PCrako USB kable batekin, konektatu gailuaren funtzio anitzeko hargunea Windows Media Player instalatua duen PC batera.

Konektatzean, leiho bat bistaratuko da ordenagailuan.

2 Ireki Windows Media Player, musika-fitxategiak sinkronizatzeko.

3 Editatu edo idatzi zure gailuaren izena bistaratuko den leihoan (beharrezkoa bada).

4 Hautatu nahi dituzun musika-fitxategiak, eta arrastatu sinkronizazio-zerrendara.

5 Hasi sinkronizatzen.

### > Gailua biltegiratze masiboko gailu gisa konektatzea

Gailua PC batera konektatu, eta disko aldagarri gisa erabil dezakezu. Memoria-txartel bat sartuz gero, gailuak irakurgailu gisa funtzionatzen du, eta direktoriora eta fitxategietara sartzeko aukera ematen du.

Memoria-txartelaren fitxategien direktorioa disko aldagarri gisa agertuko da, barruko memoriatik aparte.

1. Memoria-txarteletik edo txartelera fitxategiak transferitu nahi badituzu, sartu memoria-txartel bat gailuan.
2. Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **Ajustes > Conexiones inalámbricas > Utilidades de USB > Conectar almacenamiento a PC.**
3. USB kable baten bidez, konektatu gailuaren funtzio anitzeko hargunea PC batekin.
4. Konektatuta zaudenean, hautatu **Conectar almacenamiento USB.**
5. Ireki karpeta fitxategiak ikusteko.
6. Kopiatu PCko fitxategiak memoria-txartelean.
7. Amaitzean, hautatu **Desconecte el almacenamiento del equipo.**

Gailua PCtik deskonektatzeko, egin klik Windowsen ataza-barran agertzen den USB gailuen ikonoan, eta, gero, klik egin biltegiratze masiborako gailua modu seguruan kentzeko aukeran. Ondoren, deskonektatu USB kablea PCtik. Hala egin ezean, memoria-txartelean gordetako datuak galdu edo honda daitezke.

## VPNrako konexioak

Sare pribatu birtualak (VPN) sortu, eta zure sare pribatura konekta zaitezke modu seguruan sare publiko baten bidez, kasurako, Internet bidez.

Zure gailuak Interneteko sarbidea konfiguratuta eduki behar luke. Internetera sartzeko arazoak baldin badituzu, konexioak aldatu beharko dituzu. Jarri beharreko konexio-informazioari buruzko zalantzak badituzu, galdetu zerbitzu-hornitzaileari.

**> VPNrako konexioak konfiguratzea**

1 Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **Ajustes > Conexiones inalámbricas > Ajustes de VPN > Añadir VPN.**

2 Hautatu VPN-mota bat.

3 Pertsonalizatu konexioari buruzko informazioa.

Erabilgarri dauden funtzioak aldatu egin daitezke VPN-motaren arabera.

| Aukera | Funtzioa |
|---|---|
| Nombre de VPN | VPN zerbitzarirako izen bat jartzeko |
| Definir servidor de VPN | VPNaren zerbitzariaren IP helbidea idazteko |
| Activar Cifrado | VPNaren zerbitzariaren enkriptatzea konfiguratzeko |
| Definir clave IPsec compartida previamente | Aldez aurretik partekatutako gakoa jartzeko |
| Activar L2TP secreto | L2TP pasahitz sekretua erabiltzeko. |
| Definir L2TP secreto | L2TP pasahitz sekretua erabiltzeko. |

| Aukera | Funtzioa |
|---|---|
| Definir certificado de usuario | VPNaren zerbitzariak erabiltzailea definitzeko erabiltzen duen erabiltzaile-ziurtagiria definitzeko. VPNaren zerbitzariaren ziurtagiriak inportatzeko edo Internetetik deskargatzeko |
| Definir certificado de CA | VPNaren zerbitzariak identifikatzeko erabiltzen duen ziurtagiriaren baimen-ziurtagiria (CA) aukeratzeko. VPNaren zerbitzariaren ziurtagiriak inportatzeko edo Internetetik deskargatzeko |
| Dominios de búsqueda DNS | Domeinu-izena (DNS) duen zerbitzariaren helbideak ezartzeko. |

Amaitutakoan, sakatu [≡]> **Guardar.**

**> Sare pribatu batera konektatzea**

1. Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **Ajustes > Conexiones inalámbricas > Ajustes de VPN.**
2. Hautatu konektatu nahi duzun sare pribatua.
3. Idatzi zure erabiltzaile-izena eta pasahitza, eta hautatu **Conectar.**

# Tresnak

## Erlojua

Ikas ezazu alarmak eta munduko erlojuak konfiguratzen eta kontrolatzen. Halaber, kronometroa eta mahaigaineko erlojua ere erabil ditzakezu.

### › Alarma berri bat zehaztea

1. Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **Reloj › Alarma.**
2. Hautatu **Crear alarma**, edo sakatu [≡] **› Crear.**
3. Definitu alarmaren xehetasunak.

Aktibatu **Alarma inteligente** aukeraren ondoko kontrol-laukia, natura simulatzen duten soinuak gaitzeko alarmaren pantailan, alarma nagusiaren aurretik entzun daitezen.

4. Amaitzean, hautatu **Guardar.**

### › Alarma bat geldiaraztea

Alarmak jotzean:

- Alarma geldiarazteko, arrastatu ✕ zirkulu handitik kanpora.
- Denbora jakin bat igaro ondoren alarma errepikatzeko, arrastatu zZ zirkulu handitik kanpora.

### › Alarma bat ezabatzea

1. Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **Reloj › Alarma.**
2. Sakatu [≡] **› Eliminar.**
3. Hautatu desaktibatu nahi dituzun alarmak.
4. Hautatu **Eliminar.**

> **Munduko erloju bat sortzea**

1 Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **Reloj > Reloj mundial.**

2 Hautatu **Añadir ciudad** edo sakatu[ ] **> Añadir.**

3 Idatzi hiri baten izena edo aukeratu bat zerrendatik.

Munduko maparen bistan, hiri bat aukeratzeko, hautatu .

4 Munduko erloju gehiago gehitzeko, errepikatu aurreko pausoak, 2.etik 3.era.

Erlojuei udako ordutegia aplikatzeko, luze sakatu erlojuan, eta hautatu **Ajustes de horario de verano.**

> **Kronometroa erabiltzea**

1 Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **Reloj > Cronómetro.**

2 Hautatu **Iniciar,** kronometroa martxan jartzeko.

3 Hautatu **Vuelta,** itzulien denborak grabatzeko.

4 Amaitzean, hautatu **Detener.**

5 Hautatu **Restablecer,** grabatutako denborak ezabatzeko.

> **Atzerako kontaketaren tenporizadorea erabiltzea**

1 Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **Reloj > Temporizador.**

2 Konfiguratu atzerako kontaketaren iraupena.

3 Hautatu **Iniciar** atzerako kontaketa martxan jartzeko.

4 Denbora amaitzean eta alarmak jotzean, arrastatu zirkulu handitik kanpora.

### > Mahaigaineko erlojuaren erabilera

Mahaigaineko erlojuak uneko data eta ordua ematen ditu, eta eguraldia ere bai.

1. Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **Reloj > Despertador**.
2. Hautatu erloju inaktibo bat definitzeko.
3. Sakatu [ ] > **Ajustes.**
4. Aldatu aukera hauek:

| Aukera | Funtzioa |
|---|---|
| Ocultar barra de estado | Pantailaren goiko aldean egoera-barra bistaratu nahi duzun ala ez definitzeko. |
| Fondos | Erloju inaktiborako atzealde bat aukeratzeko. |
| Visual de Hora / Calendario | Erlojua edo egutegia bistaratzeko. |
| AccuWeather | Zure uneko kokapeneko eguraldia erakusteko. Mahaigaineko erlojua defini dezakezu automatikoki eguneratu dadin azken informazioarekin, eta tenperatura-unitate bat hauta dezakezu. |
| Brillo | Pantailaren distira zehazteko. |
| Restab valores predeterm | Mahaigaineko erlojuaren doikuntzak aurrez zehaztutako balioen arabera berrezartzeko. |
| Dock | Konektatutako dock-aren entzungailua erabiltzeko, auto batera edo zure mahaigaineko dock batera konektatuta dagoenean. |

# Kalkulagailua

Ikas ezazu kalkulu matematikoak gailuan zuzenean egiten, kalkulagailu eramangarria edo mahai gainekoa balitz bezala.

### > Kalkuluak egitea

1 Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **Calculadora**.

2 Erabili pantailako kalkulagailuaren teklak oinarrizko matematika-eragiketak egiteko.

Biratu gailua ikuspegi horizontala izateko eta kalkulagailu zientifikoa erabiltzeko. Orientazioaren aldaketa automatikoa desaktibatzen baduzu, sakatu [≡] > **Calculadora científica**.

### > Ikusi kalkulagailuaren historia

1 Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **Calculadora**.

2 Egin kalkulua.

3 Hautatu ▼ kalkulagailuaren teklatua ixteko. Kalkulagailuaren historia agertuko da.

4 Historiako zerrenda ezabatzeko, sakatu[≡] > **Borrar historial**.

# Deskargak

Ikasi Internetetik deskargatutako fitxategien erregistroak administratzen.

1 Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **Descargas**.

2 Hautatu deskargatzeko karpeta bat.

3 Deskargatutako fitxategi bat irekitzeko, hautatu erregistroa.

Erregistro bat ezabatzeko, hautatu kontrol-laukia eta, gero, hautatu **Eliminar**.

# Googleko bilaketa

Gailuan, aplikazioak eta gordetako datuak bila ditzakezu, eta, Interneten, datu zehatzak.

1 Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **Búsqueda de Google**.

2 Aplikazio hau lehen aldiz abiarazi baduzu, definitu zure Google kontuko bilaketa-historia ikusi nahi duzun ala ez.

3 Idatzi bilatu nahi duzun informazioaren letra bat edo hitz bat.

Datuak ahots bidez bilatzeko, hautatu 🎙 hitz gako bat, eta esan mikrofonotik hurbil.

4 Hautatu sartu nahi duzun elementuaren izena.

# Kies air

Kies air aplikazioaren bidez, zure gailua beste gailu batera konektatu ahalko duzu WLAN baten bidez. Nabigatzaile batetik, multimedia fitxategiak, kontaktuak, mezuak eta zure gailuan gordetako beste edozein datu ikusi eta kontrolatu ahal izango duzu.

**> Kies airen doikuntzak pertsonalizatzea**

1 Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu Kies air.

2 Sakatu [☰]**> Ajustes.**

3 Aldatu aukera hauek:

| Aukera | Funtzioa |
|---|---|
| Solicitud de acceso | Kies air erabili bitartean beste gailu batzuen baimen-eskaerak jasotzeko. |
| Activar visibilidad | Gailua beste gailu batzuek ikusteko moduan definitzeko. |

| Aukera | Funtzioa |
|---|---|
| Tiempo agotado | Konexioa bukatu aurretik gailuak itxarongo duen denbora hautatzeko. |
| Bloquear contenido | Beste gailu batzuetan agertuko ez diren datu-motak hautatzeko. |
| Restablecer ajustes | Doikuntzak aurrez zehaztutako balioen arabera berrezartzeko. |

### › Konektatu zure gailua beste gailu batera WLAN bidez

Kies air funtzioa erabiltzeko, gailu guztien sarbide-puntu berera konektatuta egon behar dute.

1 Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **Kies air** › **Iniciar**.

2 Jar ezazu Kies air-en azaltzen den web-helbidea beste gailuaren nabigatzailean.

Konektatzen zarenean, zure gailuaren datuak beste gailuaren nabigatzailean ikusiko dituzu.

3 Konexioa amaitzeko, hautatu **Detener**.

## Egunkari txikia

Ikas ezazu argazki-egunkari bat sortzen.

### › Egunkari txiki bat sortzea

1 Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **Minidiario**.

2 Aplikazio hau lehenengo aldiz abiarazten ari bazara, hautatu **Sí**.

3 Egunkari bat gordeta baldin badago, hautatu **Crear diario**, beste sarrera bat sortzeko.

4 Aldatu gaurko data, eta zehaztu eguraldia (beharrezkoa bada).

5 Hautatu **Pulsar añad foto**, eta gehitu irudi bat, edo atera argazki bat.

6 Hautatu **Pulsar para añadir texto**, idatzi testua, eta hautatu **Hecho**.

7 Hautatu **Guardar.**

### > Egunkari txiki bat ikustea

1 Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **Minidiario.**

2 Hautatu egunkari bat.

Egunkari txiki bat zure sare sozialera kargatzeko, sakatu [≡] **> Más > Publicar.**

## Nire fitxategiak

Ikas ezazu gailuan edo memoria-txartelean gordeta dituzun irudi, bideo, musika, soinu-fitxategi eta bestelako fitxategietara azkar eta erraz sartzen.

1 Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **Mis archivos.**

2 Aukeratu karpeta bat.

- Fitxategi-direktorioan maila bat igotzeko, hautatu **Arriba.**
- Direktorio nagusira itzultzeko, hautatu **Inicio.**

3 Hautatu ireki nahi duzun fitxategia.

Karpeta batean, sakatu [≡] aukera hauek erabiltzeko:

- Fitxategia beste pertsona batzuei bidaltzeko, hautatu **Compartir.**
- Karpeta berri bat sortzeko, hautatu **Crear carpeta.**
- Fitxategiak edo karpetak ezabatzeko, hautatu **Eliminar.**
- Ikusteko modua aldatzeko, hautatu **Ver por.**
- Fitxategiak edo karpetak ordenatzeko, hautatu **Ordenar por.**
- Fitxategi bat mugitzeko, kopiatzeko edo izena aldatzeko, hautatu **Más.**

# Polaris Office

Ikas ezazu Polaris Officen dokumentuak sortzen eta ikusten.

## > Dokumentu bat sortzea

1 Pantaila nagusian, ireki aplikazio-zerrenda, eta hautatu **Polaris Office.**

2 Irakurri erregistro-informazioa, eta hautatu **Más tarde** edo **Registrar.**

3 Hautatu [icon] > dokumentu-mota bat.

4 Sortu dokumentua.

5 Amaitutakoan, sakatu [≡] **> Guardar.**

6 Sartu izen bat dokumentuarentzat, eta hautatu helmuga bat.

7 Hautatu **Guardar.**

## > Dokumentu bat irekitzea

1 Pantaila nagusian, ireki aplikazio-zerrenda, eta hautatu **Polaris Office.**

2 Hautatu **Mis archivos** edo **Documentos recientes** > dokumentu-fitxategi bat.

3 Ikusi dokumentua.

- Zooma handitzeko, jarri bi hatz pantailan, eta bereiz itzazu. Zooma txikitzeko, elkartu bi hatzak. Bestela, sakatu [≡] **> Zoom >** aukera bat.
- Ediziorako tresna-barra irekitzeko, sakatu [≡] **> Modo de edición.**
- Dokumentu batean testua bilatzeko, sakatu [≡] **> Buscar.**
- Uneko orria markatzeko, sakatu [≡] **> Marcador.**

- Dokumentu bat doitzeko pantailara egokitu dadin, sakatu [≡] > **Reacomodar texto.**
- Fitxategi bat beste pertsona batzuei bidaltzeko, hautatu [≡] > **Más** > **Enviar archivo.**
- Ohar bat inprimatzeko, sakatu [≡] > **Más** > **Imprimir.** Zure gailua Samsung inprimagailu batzuekin soilik da bateragarria.
- Dokumentu bat Texto para pronunciar funtzioarekin, sakatu [≡] > **Más** > **Texto a voz.**
- Nabigatzailearen doikuntzak pertsonalizatzeko, sakatu [≡] > **Más** > **Ajustes.**

**> Dokumentuak on line kudeatzea**

1 Pantaila nagusian, ireki aplikazio-zerrenda, eta hautatu **Polaris Office.**

2 Hautatu **Archivos Web >** zerbitzu bat.

3 Sartu zure helbide elektronikoa eta pasahitza zure kontura sartzeko, eta, gero, hautatu **Añadir.**

4 Zerbitzarian, dokumentuak ikusi eta administra ditzakezu.

## SIM tresna-kita

Zerbitzu-hornitzaileak eskainitako zerbitzu gehigarriak erabiltzeko. Litekeena da menu honek beste izen bat izatea, USIM edo SIM txartelaren arabera. Modu inaktiboan, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **Kit herramientas SIM.**

## Ataza-kudeatzailea

Ataza-kudeatzailearekin, martxan dauden aplikazioak eta memoriaren informazioa ikus ditzakezu.

1 Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **Administr de tareas.**

2 Erabili aukera hauek:

- **Aplicaciones activas:** gailuan exekutatzen ari diren aplikazio guztien zerrenda ikusteko.
- **Descargado:** zure gailuan instalatutako aplikazioetarako erabiltzen den memoria-kantitatearen guztizkoa ikusteko.
- **RAM:** zure gailuaren RAM memoria ikusteko eta administratzeko.
- **Almacenamiento:** gailuan eta memoria-txartelean erabilita eta libre dagoen memoria-kopurua ikusteko.
- **Ayuda:** bateriaren balio-bizitza luzatzeko informazioa ikusteko.

## Ahots bidezko bilaketa

Ikas ezazu kokapenak eta informazioa ahots bidez bilatzen.

Baliteke funtzio hori erabilgarri ez egotea, herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.

1 Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **Búsqueda por voz.**

2 Hautatu **Hablar ahora** (beharrezkoa bada).

3 Esan agindu bat mikrofonotik hurbil.

4 Hautatu elementu baten izena.

# Voice talk

Ikas ezazu Voice talkek eskaintzen duen ahots-komandoaren funtzioa erabiltzen. Zenbaki bat markatu, mezu bat bidali, ohar bat idatzi edota beste lan batzuk egin ditzakezu mugitzen ari zaren artean.

1 Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda, eta hautatu **Convers. de voz**.

2 Aplikazio hau lehenengo aldiz abiarazten ari bazara, osatu tutoriala.

3 Hautatu **Tocar y Hablar**.

Bestela, mugimendua ezagutzeko funtzioa erabiltzen ari zarela, ukitu gailua azkar bi aldiz ahots-ezagutza martxan jartzeko. ▶ 167. or.

4 Esan agindu bat mikrofonotik hurbil.

# Doikuntzak

## Doikuntzen menura sartzea

1 Pantaila nagusian, ireki aplikazio-zerrenda, eta hautatu **Ajustes.**
2 Hautatu doikuntza-kategoria bat, eta, gero, aukera bat.

## Haririk gabeko konexioak

Haririk gabe konexioen konfigurazioa aldatzeko.

**> Hegazkin-modua**

Gailuko haririk gabeko funtzio guztiak desaktibatzeko. Haririk gabeko zerbitzuak soilik erabil daitezke.

**> WiFi doikuntzak**

- **Wi-Fi**: WLAN funtzioa pizteko edo itzaltzeko. ▶ 129. or.
- **Notificación de red**: sare ireki bat erabilgarri dagoenean jakinaraz diezazun konfiguratzeko gailua.
- **Conexión del botón de WPS**: WiFi Konfigurazio Babestua (WPS) botoiaren bidez WLAN batera konektatzeko.
- **Añadir red Wi-Fi**: WLAN sarearen APa eskuz sartzeko.

**> Wi-Fi Direct doikuntzak**

- **Wi-Fi Direct**: WLAN Direct funtzioa aktibatzeko bi gailu WLAN baten bidez konekta daitezen, sarbide-puntu baten beharrik gabe. ▶ 130. or.
- **Nombre del disp.**: gailuaren izena ikusteko edo editatzeko.
- **Estado**: konexioaren egoera ikusteko.
- **Desconectar Wi-Fi Direct**: konektatutako gailua deskonektatzeko.

**> Kies WiFi bidez**

Zure gailua Samsung Kiesera WLAN bidez konektatzeko balio du.

**> Bluetootharen doikuntzak**

- **Bluetooth:** haririk gabeko bluetooth funtzioa aktibatzeko edo desaktibatzeko. ▶126. or.
- **Nombre de dispositivo:** gailuarentzako bluetootherako izen bat zehazteko.
- **Visible:** bluetootha darabilten beste gailu batzuek gailua ikus dezaten konfiguratzeko.
- **Tiempo de espera visible:** gailua ikusgai egongo den denbora definitzeko.
- **Buscar dispositivos:** erabilgarri dauden eta bluetootha darabilten gailuak bilatzeko.

**› USB utilitateak**

Zure gailua PC batera biltegiratze masibo gisa konektatzeko aukera ematen du. ▶ 138. or.

**> Módem USB eta Mi zona Wi-Fi**

- **Modem USB:** USBra ainguratzeko funtzioa aktibatzeko, gailuaren sare mugikorreko konexioa ordenagailu batekin partekatu dezan USB bidez. Ordenagailu batera konektatzen denean, gailua PCrako haririk gabeko modem gisa erabiltzen da. ▶135. or.
- **AP movil:** WLAN eremu aktiboko funtzioa gailuaren sare mugikorreko konexioa ordenagailu batekin edo beste gailu batzuekin partekatzeko WLAN funtzioaren bidez. ▶134. or.
- **Ajustes de AP móvil:**
  - **AP movil:** WLAN eremu aktiboko funtzioa gailuaren sare mugikorreko konexioa ordenagailu batekin edo beste gailu batzuekin partekatzeko WLAN funtzioaren bidez. ▶ 134. or.
  - **Configurar AP movil:** sareko doikuntzak zure WLAN sarbide-punturako konfiguratzeko.
- **Ayuda:** USB eta WLAN sareetarako ainguratzeei buruz gehiago jakiteko.

**> VPNen doikuntzak**

Sare pribatu birtualak (VPN) konfiguratzeko eta haietara konektatzeko balio du. ▶ 139. or.

**> Sare mugikorrak**

- **Usar datos de paquete:** sare-zerbitzuetarako aldatutako datu-paketeen sareak erabiltzeko.
- **Itinerancia de datos:** atzerrian zaudenean edo zure sare lokala erabilgarri ez dagoenean gailua beste sare batera konekta dadin konfiguratzeko.
- **Nombres de punto de acceso:** sarbide-puntuaren izenak (APN) konfiguratzeko.
- **Modo de red:** sare-mota bat hautatzeko.
- **Operadores de red:** atzerrian zaudenean erabilgarri dauden sareak bilatzeko eta sare bat hautatzeko.

## Deiak

Dei-funtzioetako doikuntzak pertsonalizatzeko.

- **Rechazo de llamada:** zenbaki jakin batzuen deiei automatikoki uko egiteko. Telefono-zenbakiak erants ditzakezu uko egiteko zerrendan. ▶ 65. or.
- **Definir mens. de rechazo:** dei bati uko egitean bidaliko den mezua eransteko edo editatzeko.
- **Alerta llamada:**
  - **Vibración de respuesta:** gailua konfiguratzeko solaskideak dei bati erantzutean dar-dar egin dezan.
  - **Tonos de estado de llamada:** deiaren konexio-tonua, minutuen ohar-tonua edo deiaren deskonexio-tonua aktibatzeko edo desaktibatzeko.
  - **Alertas durante llamada:** dei batean gertaeren alertak aktibatzeko.
- **Resp./fin. llamada:**
  - **Tecla de respuesta:** gailua konfiguratzeko, hasierako tekla sakatuta deiei erantzun diezaien.

- **Respuesta automática**: denbora jakin bat igarotakoan automatikoki erantzuteko (entzungailu bat konektatzean soilik dago erabilgarri aukera hau).
- **Tecla encen. fin. llamada**: gailua konfiguratzeko pizteko tekla sakatzean deiak buka ditzan.

- **Activar sensor proximidad**: dei batean hurbiltasun-sentsorea aktibatzeko.
- **Desvío de llamadas**: sarrerako deiak beste zenbaki batera desbideratzeko.
- **Ajustes adicionales**:
  - **Identificador de llamadas**: irteerako deietan besteei erakusteko lineako identifikazioa.
  - **Restricción de llamadas**: sarrerako edo irteerako deiak blokeatzeko.
  - **Llamada en espera**: dei bat abian dela dei-alertak sartzeko.
  - **Rellamada automática**: konektatu ezin diren edo mozten diren deiei berriro automatikoki deitzeko aukera aktibatzeko.
  - **Números de marcación fija**: FDN modua aktibatzeko edo desaktibatzeko, FDN zerrendako zenbakietarako deiak murrizteko. SIM edo USIM txartelarekin batera emandako PIN2 zenbakia sartu behar duzu.
- **Imagen de videollamada**: irudi bat hautatu eta zure solaskideari erakusteko.
- **Vídeo propio en llamada recibida**: solaskideari zuzeneko irudia edo aurretik zehaztutako irudia bistaratuko zaion zehazteko.
- **Usar opciones de fallo de llamada**: bideo-dei bat konektatu ezin denean ahots-dei bat berriro egiten saiatuko den edo ez hautatzeko.
- **Servicio de buzón de voz**: zure zerbitzu-hornitzailea hautatzeko edo definitzeko.
- **Buzón de voz**: ahots-postontzira sartzeko zenbakia idazteko. Zure zerbitzu-hornitzaileak emango dizu zenbaki hori.

## Soinua

Zure gailuko soinuen doikuntzak aldatzeko balio du.

- **Modo Silencio***:* modu isila aktibatzeko, soinu guztiak isilaraz daitezen, multimedia soinuak eta alarma-melodiak izan ezik.
- **Vibración***:* gailuak zenbait gertaeratan dar-dar egingo duen ala ez zehazteko.
- **Volumen***:* dei-doinu, musika, bideo, sistema-soinu eta jakinarazpenen bolumen-maila doitzeko.
- **Intensidad de la vibración***:* bibrazioaren intentsitatea doitzeko.
- **Melodía del teléfono***:* doinu bat hautatzeko, sarrerako deiak ezagut ditzazun.
- **Melodía de notificación***:* doinu bat hautatzeko gertakizunetarako *(*adibidez, sarrerako deiak, galdutako deiak eta alarmak*)*.
- **Tonos táctiles audibles***:* gailua definitzeko markaketa-pantailan teklak sakatzean soinua emititzeko moduan.
- **Selección audible***:* gailua definitzeko ukipen-pantailan aplikazio bat edo aukera bat hautatzen duzun bakoitzean soinu bat egin dezan.
- **Sonidos de bloqueo de pantalla***:* gailua definitzeko ukipen-pantaila blokeatzen edo desblokeatzen duzunean soinu bat egin dezan.
- **Vibración al pulsar***:* teklak sakatzean telefonoak dar-dar egin dezan definitzeko.

# Pantaila

Pantailako doikuntzak aldatzeko balio du.

- **Pantalla**:
  - **Tipo de fuente**: testuak pantailan duen letra-mota aldatzeko. Letra-tipoak deskargatu ditzakezu Android Marketetik. Horretarako, sakatu **Obtener fuentes en línea.**
  - **Pantalla de inicio**:
    **Fondos**: pantaila nagusirako atzealde bat aukeratzeko.
  - **Bloquear pantalla**:
    - **Fondos**: pantaila blokeatuta dagoenean agertuko den irudia hautatzeko.
    - **Reloj**: blokeatutako pantailan erlojua bistaratzeko.
    - **Clima**: blokeatutako pantailan eguraldiari buruzko informazioa bistaratzeko.
    - **Ajustes del tiempo**: eguraldiaren pantailaren doikuntzak aldatzeko balio du.
    - **Posición reloj y tiempo**: blokeatutako pantailan erlojuak eta eguraldiari buruzko informazioak izango duten kokapena hautatzeko balio du.
- **Brillo**: pantailaren distira zehazteko.
- **Modo de pantalla**: pantaila-modu bat hautatzeko.
- **Girar automáticamente la pantalla**: gailua biratzean edukia ere automatikoki biratzea nahi duzun ala ez zehazteko.
- **Animación**: gailua zehazten du animazio bat bistaratu dezan leiho batetik bestera aldatzen denean.
- **Pantalla tiempo de espera**: pantailaren atzeko argiztapena itzali aurretik zenbat denbora igarotzea nahi duzun zehazteko.
- **Duración de iluminación de teclas del panel táctil**: ukipen-teklen atzeko argiaren iraupena zehazteko.

- **Auto ajust energía pant***:* pantailaren distira doitu eta energia aurrezteko.
- **Calibración horizontal***:* azelerometroa kalibratzeko, gailuaren ardatz horizontala doitu eta keinuak hobeto ezagutzeko.
- **Calibrar sensor giroscópio***:* giroskopioa kalibratzeko, gailuak biraketa behar bezala ezagut dezan.

- Jarri gailua gainazal egonkor batean kalibrazioa egiteko. Baliteke kalibrazio-prozesuak huts egitea gailuak kalibrazioan dar-dar egiten badu edo mugitzen bada.
- Kalibratu giroskopioa nahi gabeko mugimenduak edo inklinazio-mugimenduak egitean inklinazio-funtzioak, mugimendu horizontalekoak edo mugimendu-jokoak erabiltzean.

## Energia aurreztea

- **Ahorro energía sistema***:* energia aurrezteko modua aktibatzeko, bateriaren kontsumoa murrizteko.
- **Ahorro de energía personalizado***:* bateria deskargatuta dagoenean energia aurrezteko modua automatikoki aktibatzeko.
- **Ajustes de ahorro de energía personalizado***:*
  - **Modo ahorro energía en***:* energia aurrezteko modua automatikoki aktibatzeko gailuak zer bateria-mailatara iritsi behar duen hautatzeko.
  - **Desactivar Wi-Fi***:* gailua WLAN sarbide-puntu batekin konektatua ez dagoenean WLAN funtzioa desaktibatzeko.
  - **Desactivar Bluetooth***:* bluetooth funtzioa erabiltzen ari ez garenean desaktibatzeko.

- **Desactivar GPS:** GPS funtzioa erabiltzen ari ez garenean desaktibatzeko.
- **Desactivar sincronización:** gailua webgune batekin sinkronizatzen ari ez denean sinkronizazioa desaktibatzeko.
- **Brillo:** energia aurrezteko modurako distira-maila aktibatzeko.
- **Brillo:** pantailaren distira zehazteko.
- **Pantalla tiempo de espera:** pantailaren atzeko argiztapena itzali aurretik zenbat denbora igarotzea nahi duzun zehazteko.

• **Más información sobre ahorro de energía:** bateriaren kontsumoa nola txikitu jakiteko.

## Kokapena eta segurtasuna

Doikuntzak aldatzeko balio du, eta, hala, gailua eta SIM edo USIM txartela eta GPSaren funtzioak babesteko.

• **Utilizar redes:** WLAN sareak edo sare mugikorrak erabiltzeko kokapena bilatzeko.

• **Usar satélites GPS:** GPS satelitea erabiltzeko kokapena bilatzeko.

• **Usar ayuda de sensor:** GPS seinaleak oztopoak dituenean, oinezkoaren kokapena hobetzeko sentsoreak erabiltzeko. Baliteke aldea egotea sentsorearen kalkuluen eta kokapen errealaren artean.

• **Defin bloqueo de pantalla:** gailua desblokeatzeko segurtasun-kodea zehazteko. Segurtasun-kodea zehaztutakoan, aukera hau jarriko da aurrekoaren ordez: Cambiar bloq. de pantalla.

- **Ninguno:** pantailaren blokeoa desaktibatzeko.
- **Patrón:** pantaila desblokeatzeko eredu bat definitzeko.
- **PIN:** pantaila desblokeatzeko zenbakizko PIN bat definitzeko.
- **Contraseña:** pantaila desblokeatzeko pasahitz bat (alfanumerikoa) definitzeko.

- **Desactivar modo de depuración USB**: USBa arazteko modua desaktibatzeko pantaila desblokeatuta dagoela.
- **Definir bloqueo de tarjeta SIM**:
  - **Bloquear tarjeta SIM**: gailua erabili aurretik PINa eskatzeko moduan PINaren blokeoa aktibatzeko nahiz desaktibatzeko.
  - **Cambiar PIN de la tarjeta SIM**: SIM nahiz USIM datuetara sartzeko erabiltzen den PINa aldatzeko.
- **Alerta de cambio de SIM**: gailua galdu edo lapurtuz gero, hura aurkitzen lagunduko dizun mugikor-bilatzailearen funtzioa aktibatzeko zein desaktibatzeko. ▶34. or.
- **Enviar mensaje a**: alerta-mezuaren hartzaileak erantsi eta editatzeko.
- **Controles remotos**: galdutako gailua web bidez kontrolatzeko. Gailua Internetetik kontrolatzeko balio du, eta galdu edo lapurtuz gero erabiltzeko da. Funtzio hau automatikoki aktibatuko da Samsung eta Google kontuetan saioa hastean.
- **Contraseñas visibles**: gailuak, lehenespenez, ezkutatu egiten du zure pasahitza, seguruagoa izan dadin. gailua konfiguratzeko, sartu ahala pasahitza bistaratu dezan.
- **Selec. admin. de dispositivos**: gailuan instalatutako administratzaileak ikusteko. Gailu-administratzaileei baimena eman diezaieke politika berriak zureari aplikatzeko.
- **Usar credenciales seguras**: ziurtagiriak eta kredentzialak erabiltzeko aukera ematen du, aplikazioak modu seguruan erabiltzen direla bermatzeko.
- **Instalar desde almac USB**: USB biltegiratzean dauden ziurtagiri kodetuak instalatzeko.
- **Definir contraseña**: kredentzialetara sartzeko pasahitza sortzeko eta berresteko.
- **Borrar almacenamiento**: gailuko kredentzialetako edukiak ezabatzeko eta pasahitza berrezartzeko.

## Aplikazioak

Instalatutako aplikazioak kudeatzeko doikuntzak aldatzeko balio du.

- **Fuentes desconocidas**: edozein iturritako aplikazioak deskargatzeko. Aukera hau hautatzen ez baduzu, Android Marketetik bakarrik deskargatu ahal izango dituzu aplikazioak.
- **Administrar aplicaciones**: gailuan instalatutako aplikazio-zerrendara sartu eta aplikazioari buruzko informazioa ikusteko.
- **Servicios en ejecución**: erabiltzen ari zaren zerbitzuak ikusi eta zerbitzu horietara sartu eta haiek kudeatzeko.
- **Uso de memoria**: aktibo dauden zerbitzuak ikusteko eta administratzeko.
- **Uso de batería**: gailuak kontsumitu duen energia ikusteko.
- **Desarrollo**:
  - **Depuración de USB**: gailua PC batera konektatzeko USB kable bat erabiliz. Aplikazioak garatzeko egiten da hori.
  - **Permitir ubicaciones falsas**: gezurrezko kokapenak eta zerbitzu-informazioa kokapenen administrazio-zerbitzu batera bidal daitezke, egiaztatzeko. Aplikazioak garatzeko egiten da hori.
- **Samsung Apps**: konexio bat hautatzeko (WiFia edo paketeka kommutatutako datuen sarea), Samsung Apps-eko aplikazio berrien inguruko jakinarazpenak eskuratzeko.

Baliteke funtzio hori erabilgarri ez egotea, herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.

## Kontuak eta sinkronizazioa

Sinkronizazio automatikoaren doikuntzak aldatzeko edo kontuak administratu eta sinkronizatzeko balio du.

- **Datos de fondo***:* sinkronizazio automatikoa erabiltzeko. Sinkronizazio automatikoko funtzioak bigarren mailan sinkronizatzen ditu datuak, aplikazioak ireki gabe.
- **Sincronización automática***:* gailua konfiguratzeko, kontaktuak, egutegia eta posta elektronikoa automatikoki sinkroniza ditzan.

## Mugimendua

Zure gailuaren mugimendua ezagutzeko funtzioa kontrolatzen duten doikuntzak aldatzeko balio du.

- **Activación de movimiento***:* mugimendua ezagutzeko funtzioa erabiltzeko.
- **Inclinar***:* zooma handitu edo txikitzeko galeriako irudiak ikustean edo web-orrietan nabigatzean. Horretarako, sakatu bi puntu zure hatzekin, eta mugitu aurrera eta atzera.
- **Panorámica***:* elementu bat beste orri batera mugitzeko. Horretarako, luze sakatu elementua, eta okertu gailua ezkerrera edo eskuinera.
- **Agitar***:* gailua astintzean beste bluetooth gailu batzuek gailua ikus dezaten konfiguratzeko.
- **Girar***:* sarrerak deiak, alarmak, musika eta FM irratia isiltzeko, gailua buruz behera jarrita.

# Pribatutasuna

Doikuntzak aldatzeko, eta, hala, doikuntzak eta datuak kudeatzeko balio du.

- **Hacer copia de seguridad de mis datos:** zure doikuntzen eta aplikazioetako datuen segurtasun-kopia egiteko Googleren zerbitzari batean.
- **Restauración automática:** gailuan berriro instalatzen dituzunean zure aplikazioetako doikuntzak eta datuak berrezartzeko.
- **Restablecer datos de fábrica:** fabrikan aurrez definitutako ezarpenak berrezartzeko, eta datu guztiak ezabatzeko.

# Biltegiratzea

Zure gailuaren eta memoria-txartelaren memoria-informazioa ikusteko balio du. Horrez gain, USB biltegiratzea eta memoria-txartel bat ere formatea ditzakezu.

Memoria-txartela formateatzen baduzu, datu guztiak ezabatuko dituzu.

# Teklatua eta hizkuntza

Testua idazteko doikuntzak aldatzeko balio du.

**> Hizkuntza hautatzea**

Pantailako hizkuntza hautatzeko aukera ematen du (menu eta aplikazio guztietarako).

**> Idazteko metodoa sartzea**

Testua idazteko teklatu lehenetsia hautatzeko balio du.

**> Swype**

- **Seleccionar Método de entrada:** teklatu-mota aldatzeko.
- **Cómo Swypear:** testua Swype teklatuarekin idazten ikasteko.
- **Diccionario personal:** zure hiztegia konfiguratzeko. Hiztegiko hitzak iradokizun gisa agertuko dira testu-sarreretarako.
- **Preferencias:**
  - **Sonidos:** gailua konfiguratzeko, idatzi duzu hitzarentzat alternatibarik ez dagoenean jakinaraz diezazun (hitz baten gainean bi aldiz klik egitean).
  - **Vibración del teclado:** teklak sakatzean telefonoak dar-dar egin dezan definitzeko.
  - **Mostrar sugerencias:** gailua definitzeko zure ekintzetarako aholkuak bistaratu ditzan eskuragarri daudenean.
  - **Espaciado automático:** gailua doitzeko, hitzen artean zuriuneak txerta ditzan automatikoki.
  - **Mayús. automáticas:** gailua konfiguratzeko, puntuazio-zeinu baten atzetik (adibidez, puntua, galdera-ikurra edo harridura-ikurra) lehen letra maiuskulaz idatz dezan.
  - **Mostrar trayecto:** teklatuan hatzak arrastatzean hatzen arrastoa ikusteko.
  - **Sugerencia de palabra:** gailua doitzeko, sakatzen dituzun tekletan hitzak iragar ditzan eta hitzen iradokizunak ager ditzan.
  - **Velocidad vs exactitud:** abiaduraren eta Swyperen iradokizunen zehaztasunaren arteko proportzioa definitzeko.
  - **Restablecer el diccionario de Swype:** hiztegira gehitu dituzun hitzak ezabatzeko.
  - **Versión:** bertsioaren informazioa ikusteko.
- **Opciones de idioma:** idatziko den testuaren hizkuntza aukeratzeko.

> **Samsung teklatua**

- **Tipos de teclados verticales**: testua idazteko lehenespenezko metodoa zehazteko, adibidez, QWERTY teklatua edo teklatu tradizionala.
- **Idioma de entrada**: idatziko den testuaren hizkuntza aukeratzeko.
- **Detección de lápiz**: gailua definitzeko eskuz idazteko panela ireki dezan eremua S erakuslearekin ukitzean.
- **XT9**: XT9 modua aktibatzeko, idazteko modu prediktiboan idazteko.
- **Configuración avanzada de XT9**: XT9 moduaren funtzio aurreratuak aktibatzeko, adibidez, zuzenketa automatikoa, ordezpen automatikoa eta automatikoki betetzea, eta zure hitz-zerrenda definitzeko.
- **Desplazamiento por el teclado**: teklatuko desplazamendu-funtzioa aktibatu edo desaktibatzeko testua idazteko moduan. Datuak sartzeko modua alda dezakezu, teklatua ezkerrerantz edo eskuinerantz lerratuta.
- **Uso de mayúsculas automático**: gailua konfiguratzeko, puntuazio-zeinu baten atzetik (adibidez, puntua, galdera-ikurra edo harridura-ikurra) lehen letra maiuskulaz idatz dezan.
- **Entrada de voz**: ahots bidez sartzeko funtzioa aktibatzeko testua ahotsaren bidez sartzeko Samsung teklatuan.
- **Punto automático**: gailua konfiguratzeko zuriune-barra bi aldiz sakatzean puntu bat txerta dezan.
- **Vista previa caracteres**: gailuak letra bakoitzaren irudi handi bat erakusteko zuk ukitu ahala.
- **Configuración de escritura a mano**: eskuz idazteko moduaren doikuntzak pertsonalizatzeko, hala nola ezagutzeko denbora, trazaduraren lodiera edo kolorea.
- **Tutorial**: testua Samsung teklatuarekin idazten ikasteko.
- **Restab todos los ajustes**: Samsung teklatuaren doikuntzak berrezartzeko.

# Ahotsaren sarrera eta irteera

Ahotsa ezagutzeko eta Texto para pronunciar funtzioa aldatzeko balio du.

**> Ahotsa ezagutzeko funtzioa**

Ahotsa ezagutzeko modu bat hautatzeko balio du.

**> Ahotsa ezagutzeko doikuntzak**

Samsungen ahotsa ezagutzeko funtzioa erabiltzeko, erabili aukera hauek:

- **Idioma**: hizkuntza hautatzeko ahotsa ezagutzeko funtziorako.
- **Motor de búsqueda en la Web**: Interneten bilaketa-motor bat hautatzeko.
- **Lanzamiento de transmisión de voz**: Voice talk martxan jartzeko hasierako tekla bi aldiz sakatuta.
- **Lanzar en Bluetooth**: Voice talk aktibatzeko bluetooth entzungailu bat konektatzean.
- **Escuchar a través de Bluetooth**: bluetooth entzungailu konektatu bat erabiltzean zure ahots-komandoak ezagutzeko.
- **Usar ubicación**: zure kokapen-informazioa erabiltzeko ahots bidezko bilaketaren emaitzetarako.
- **Esconder palabras ofensivas**: ahots bidezko bilaketaren emaitzetan hitz iraingarriak ezkutatzeko.
- **Conversación de voz ayuda**: Voice talk funtzioa erabiltzeko laguntza-informaziora sartzeko.
- **Acerca de**: bertsioaren informazioa ikusteko.
- **Marcado automático**: zenbaki bat automatikoki markatzeko gailua ziur badago sarrera ondo ezagutu duela.
- **Auto-encender altavoz**: bozgorailua automatikoki pizteko Voice talkekin dei bat egitean.
- **Mostrar cuerpo del mensaje**: gidatzeko moduan jasotako testu-mezu berri baten testua ikusteko.

- **Comando Activación:** ahotsaren ezagutza martxan jartzeko aktibazio-komando bat esanda Voice talk erabili bitartean.
- **Sólo encendido cuando esté carga:** aktibazio-komandoaren funtzioa kargagailu bat konektatuta dagoenean soilik aktibatzeko.
- **Movimiento Despierta:** ahotsaren ezagutza martxan jartzeko gailua bi aldiz ukituta Voice talk erabili bitartean.
- **Comprobar elem perdidos:** zure dei galduak, mezuak edo zereginak ikusteko Voice talk martxan jartzean, entzungailuaren botoia sakatuta.
- **Personalice los avisos principales:** hasierako mezua aldatzeko.
- **Domicilio:** zure helbidea sartzeko ahots-komandoan zure kokapen-informazioa erabiltzean.

Googleren ahotsa ezagutzeko funtziorako, erabili aukera hauek:

- **Idioma:** hizkuntza hautatzeko ahotsa ezagutzeko funtziorako.
- **SafeSearch:** gailua konfiguratzeko ahots bidezko bilaketako emaitzetan testu eta irudi esplizituak iragaz ditzan.
- **Bloquear las palabras ofensivas:** ahots bidezko bilaketaren emaitzetan hitz iraingarriak ezkutatzeko.

**> Ahotsetik testurako funtzioa konfiguratzea**

- **Escuchar un ejemplo:** entzun ozen irakurritako adibide bat.
- **Modo de conducción:** gidatzeko modua aktibatzeko, gailuak ozen irakurritako edukiak irakur ditzan.
- **Ajustes del modo de conducción:** gidatzeko moduan erabiltzeko aplikazioak zehazteko.
- **Usar siempre mi config.:** aplikazioetan zehaztutako hizkuntza-doikuntzak eta abiadura-indizea erabiltzeko aplikazioetan gordetako doikuntzetan zehaztuak erabili ordez.
- **Motor predeterminado:** ahots-sintesiko motorra konfiguratzeko ahozko testuarekin erabil dezan.
- **Instalar datos de voz:** ahots-datuak deskargatu eta instalatzeko, Texto para pronunciar funtzioa erabiltzeko.

- **Índice de velocidad***:* Texto para pronunciar funtzioaren abiadura hautatzeko.
- **Idioma***:* Texto para pronunciar funtzioaren hizkuntza hautatzeko.
- **Motores***:* gailuaren Texto para pronunciar funtzioaren motorrak ikusteko.

## Irisgarritasuna

Minusbaliotasun fisikoren bat duten pertsonentzako ezaugarri bereziak dira irisgarritasun-zerbitzuak. Sartu eta aldatu doikuntza hauek gailuaren irisgarritasuna hobetzeko.

- **Accesibilidad***:* deskargatu duzun irisgarritasun-aplikazio bat aktibatzeko, adibidez Talkback edo Kickback. Ahots-programa horiek ahots, melodia eta bibrazio bidezko erantzunak ematen dituzte.
- **Servicios de accesibilidad***:* irisgarritasun-aplikazio bat erabiltzeko hautatzeko.
- **Tamaño de fuente***:* planifikatzailearen aplikazioetan, posta elektronikoetan, agendan eta mezuetan letra-tamaina aldatzeko.
- **Luz de antorcha***:* flasharen argia pizteko edo itzaltzeko. Funtzio hau erabil dezakezu ikuspegi hobea izateko kamera erabiltzean.
- **Audio mono***:* audioa entzungailu batekin entzun behar bada soinu monofonikoa aktibatzeko.
- **Resp./fin. llamada***:*
  - **Tecla de respuesta***:* gailua konfiguratzeko hasierako tekla sakatzean sarrerako deiak erantzun ditzan.
  - **Respuesta automática***:* gailuak sarrerako dei bati erantzun aurretik itxarongo duen denbora definitzeko.
  - **Tecla encen. fin. llamada***:* gailua konfiguratzeko pizteko tekla sakatzean deiak buka ditzan.
- **Acc dir de accesibilidad***:* zuzeneko sarbide bat gehitzeko irisgarritasun-doikuntzei, pizteko tekla luze sakatuta bistaratzen den menu azkarrean.

## Dock-aren doikuntzak

**Modo salida de audio***:* konektatutako dock-aren entzungailua erabiltzeko, auto batera edo zure mahaigaineko dock batera konektatuta dagoenean.

## Eguna eta ordua

Sartu doikuntza hauetara, eta aldatu, zure gailuan data eta ordua agertzeko modua kontrolatzeko.

Bateria guztiz deskargatuta edo gailutik kanpo badago, eguna eta ordua berrabiarazi egingo dira.

- **Automático***:* ordua automatikoki eguneratzeko ordu-eremu batetik bestera joaten zarenean.
- **Definir fecha***:* data eskuz zehazteko.
- **Seleccionar zona horaria***:* tokiko ordu-eremua definitzeko.
- **Definir hora***:* data eskuz zehazteko.
- **Usar formato de 24 h***:* 24 orduko formatua hautatzeko, ordua ikusteko.
- **Formato de fecha***:* data-formatu bat hautatzeko.

## Arkatzaren doikuntzak

- **Mano dominante***:* zer eskurekin idazten duzun hautatzeko, eta, hala, S erakuslearekin egindako sarrerak hobeto ezagutzeko.
- **Ayuda del lápiz***:* S erakuslea erabiltzeko laguntza-informaziora sartzeko.

## Telefonoari buruz

Telefonoari buruzko informaziora sartzeko eta softwarea eguneratzeko balio du.

# Arazoak konpontzea

## Gailua pizten duzunean edo erabiltzen ari zarenean, kode hauetako bat sartzeko eskatzen dizu:

| Kodea | Arazoa konpontzeko, saiatu hau egiten: |
|---|---|
| Contraseña | Gailua blokeatzeko funtzioa aktibatuta badago, gailuari ezarri zenion pasahitza idatzi behar duzu. |
| PIN | Gailua lehen aldiz erabiltzean edo PIN kodearen eskaera aktibatuta dagoenean, SIM edo USIM txartelarekin batera emandako PIN kodea sartu behar duzu. Funtzio hori desaktibatzeko, erabili Bloquear tarjeta SIM menua. |
| PUK | SIM edo USIM txartela blokeatuta dago; normalean, PINa behin baino gehiagotan gaizki idazteagatik gertatzen da. Idatzi zerbitzu-hornitzaileak emandako PUK kodea. |
| PIN 2 | PIN 2 kodea eskatzen duen menu batera sartzen bazara, SIM edo USIM txartelarekin emandako PIN 2 kodea sartu behar duzu. Xehetasun gehiago jakiteko, jarri harremane-tan zure zerbitzu-hornitzailearekin. |

## Zure gailuan sare- edo zerbitzu-errorea ageri da

- Seinale edo harrera ahula dagoen eremuetan, harrera gal daiteke. Joan beste leku batera, eta saiatu berriro.
- Aukera batzuetara ezin da sartu harpidetu gabe. Informazio gehiago lortzeko, jarri harremanetan zure zerbitzu-hornitzailearekin.

## Ukipen-pantailak geldo edo modu desegokian erantzuten du

Gailuak aginduei zuzen erantzuten ez dien ukipen-pantaila badu, saiatu honekin:

- Kendu ukipen-pantailaren estalki babesleak. Baliteke estalki babesleek ez uztea gailuari aginduak ezagutzen, eta ez da gomendatzen halako estalkien erabilera ukipen-pantailak dituzten gailuetan.
- Egiaztatu eskuak garbi eta lehor dituzula ukipen-pantaila ukitzean.
- Berrabiarazi gailua softwarearen uneko erroreak ezabatzeko.
- Egiaztatu gailuaren softwarea bertsio berrienekin eguneratua dagoela.
- Ukipen-pantaila marratua edo kaltetua badago, eraman ezazu Samsungen zerbitzu teknikoen zentro batera.

## Gailuak ez du erantzuten edo errore larriak ditu

Gailuak ez badu erantzuten edo guztiz geldi geratzen bada, baliteke programa guztiak itxi eta gailua berrezarri behar izatea, gailuak berriz funtziona dezan. Gailua izoztu egiten bada edo ez badu erantzuten, sakatu pizteko tekla 10-15 segundoz. Gailua automatikoki berrabiaraziko da.

Arazoa ez bada ebazten, berrezarri fabrikatik ekarritako datuak. Pantaila nagusian, ireki aplikazioen zerrenda eta hautatu **Ajustes > Privacidad > Restablecer datos de fábrica > Restablecer teléfono > Borrar todo.**

## Deiak deskonektatu egiten dira

Seinale edo harrera ahula dagoen eremuetan, sarerako konexioa gal daiteke. Joan beste leku batera, eta saiatu berriro.

### Ezin da egin irteerako deirik

- Egiaztatu markaketa-tekla sakatu duzula.
- Ziurtatu sare mugikor egokian sartzen ari zarela.
- Ziurtatu markatu nahi duzun telefono-zenbaki hori ez duzula jarri deiak murrizteko aukeran.

### Ezin da deirik jaso

- Ziurtatu gailua piztuta dagoela.
- Ziurtatu sare mugikor egokian sartzen ari zarela.
- Ziurtatu telefono-zenbaki hori ez duzula jarri deiak murrizteko aukeran.

### Solaskideak ezin zaitu entzun deia egitean

- Ziurtatu ez zarela ari mugikorraren mikrofonoa estaltzen.
- Ziurtatu mikrofonoa zure ahotik hurbil dagoela.
- Entzungailuak erabiltzen badituzu, ziurtatu behar bezala konektatuta daudela.

### Soinuaren kalitatea txarra da

- Egiaztatu ez duzula blokeatzen gailuaren barneko antena.
- Seinale edo harrera ahula dagoen eremuetan, harrera gal daiteke. Joan beste leku batera, eta saiatu berriro.

### Ezin da deirik egin kontaktuetatik markatzean

- Ziurtatu kontaktuen zerrendan gordetako telefonoa zuzena dela.
- Behar izanez gero, idatzi eta gorde berriro zenbakia.
- Ziurtatu kontaktuaren telefono-zenbaki hori ez duzula jarri deiak murrizteko aukeran.

### Gailuak soinu bat egiten du, eta bateriaren ikonoa keinuka ari da

Materia-maila baxua du. Kargatu bateria edo jarri beste bat gailua erabiltzen jarraitzeko.

### Bateria ez da behar bezala kargatzen edo gailua itzali egiten da

- Baliteke bateriaren terminalak zikinak egotea. Garbitu urre-koloreko kontaktuak zapi garbi eta leun batekin, eta saiatu bateria berriro kargatzen.
- Bateria osoa kargatzen ez bada, bota bateria zaharra behar bezala, eta jarri berri bat (kontsultatu tokiko arauak behar bezala botatzeko).

### Zure gailua beroa dago

Gailua berotu egin daiteke gailuaren aplikazioak denbora luzez erabiltzen badira edo energia gehiago behar duten aplikazioak erabiltzen badira. Hori normala da, eta ez luke eraginik izan behar telefonoaren bizitza erabilgarrian edo errendimenduan.

### Errore-mezuak agertzen dira kamera abiaraztean

Samsungen gailu mugikorrak nahikoa memoria eta bateria izan behar du kameraren aplikazioa erabiltzeko. Kamera abiaraztean errore-mezuak agertzen badira, saiatu hau egiten:

- Kargatu bateria edo ordezka ezazu guztiz kargatuta dagoen batekin.
- Eraman datuak PC batera edo gailutik kendu, memorian tokia uzteko.
- Berrabiarazi gailua. Iradokizun hauei kasu eginda ere kameraren aplikazioarekin oraindik ere arazoak badituzu, jarri harremanetan Samsungen zerbitzu teknikoko zentro batekin.

### Errore-mezuak agertzen dira FM irratia abiaraztean

Zure Samsung gailu mugikorraren FM irratiaren aplikazioak entzungailuen kablea erabiltzen du antena gisa. Entzungailuak konektatzen ez badira, FM irratiak ezingo ditu irrati-kateen seinaleak jaso. FM irratia entzuteko, lehendabizi egiaztatu entzungailuak zuzen konektatuta daudela. Ondoren, bilatu eta gorde eskura dauden irrati-kateak.

Pauso horiek egin ondoren FM irratirik ezin baduzu entzun, saia zaitez irrati-kate hori hartzen beste gailu batekin. Beste gailuan irrati-katea entzun badezakezu, litekeena da zure gailuak zerbitzu teknikoak behar izatea. Jarri harremanetan Samsungen zerbitzu teknikoen zentro batekin.

### Errore-mezuak agertzen dira musika-fitxategiak irekitzean

Litekeena da hainbat arrazoirengatik musika-fitxategi batzuk ez erreproduzitzea Samsung gailu mugikorrean. Gailuan musika-fitxategiak irekitzean errore-mezuak agertzen badira, saiatu hau egiten:

- Eraman datuak PC batera edo gailutik kendu, memorian tokia uzteko.
- Egiaztatu musika-fitxategia ez duela babesten eskubide digitalen kudeaketa-sistema batek (DRM). Babestua badago, egiaztatu fitxategia erreproduzitzeko beharrezkoa den lizentzia edo gakoa duzula.
- Egiaztatu gailuak fitxategi-mota hori onartzen duela.

### Ezin da beste kokatu bluetootha darabilen beste gailurik

- Ziurtatu beste gailuan haririk gabeko bluetooth funtzioa aktibatuta dagoela.
- Ziurtatu haririk gabeko bluetooth funtzioa aktibatuta dagoela konektatu nahi duzun gailuan, beharrezkoa bada.
- Egiaztatu bluetootha darabilen bi gailuak bluetootharen gehienezko irismen-tartearen barruan daudela (10 metro).

Ohar horiei jarraitu ondoren, arazoak bere horretan badirau, jarri harremanetan Samsungen zerbitzu teknikoen zentro batekin.

### Ez da konexiorik ezartzen gailua PC bati konektatzean

- Egiaztatu erabiltzen ari zaren USB kablea gailuarekin bateragarria dela.
- Ziurtatu PCan instalatu beharreko kontrolagailu guztiak instalatuta eta eguneratuta dituzula.

# Segurtasun-neurriak

Gailua erabili aurretik, irakurri ondorengo informazioa, zuri edo beste norbaiti lesiorik ez eragiteko eta gailua ez hondatzeko.

**Oharra: saihestu deskarga elektrikoak, suteak eta leherketak.**

**Ez erabili elikatze-kable edo konektore hondaturik, ez eta entxufe solterik ere.**

**Ez ukitu elikatze-kableak esku bustiekin, eta ez egin tira kabletik kargagailua deskonektatzeko.**

**Ez tolestu eta ez hondatu elikatze-kablea.**

**Ez erabili gailua kargatzen ari den bitartean, eta ez ukitu esku bustiekin.**

**Ez eragin zirkuitulaburrik kargagailuan, ez eta baterian ere.**

**Ez kolpatu kargagailua eta bateria, eta ez utzi erortzen.**

**Ez kargatu bateria fabrikatzaileak onartu ez dituen kargagailuekin.**

**Ez erabili gailua tximista-ekaitza dagoenean.**

Zure gailuak huts egin dezake, eta deskarga elektriko bat jasotzeko arriskua areagotu egin daiteke.

**Ez manipulatu hondatuta dauden edo ihesak dituzten litio-ioizko bateriak.**

Litio-ioizko bateriak modu seguruan botatzeko, jarri harremanetan gertuen duzun baimendutako zerbitzu-zentroarekin.

**Kontuz erabili eta bota bateriak eta kargagailuak**

- Samsungek onartutako eta gailuarentzat bereziki diseinatutako bateriak eta kargagailuak soilik erabili. Bateragarriak ez diren bateriek eta kargagailuek lesio fisiko larriak eragin diezazkizukete zuri edo kalteak eragin diezazkiokete gailuari.
- Ez bota bateriak eta gailuak sutara. Erabilitako bateriak edo gailuak botatzean, bete tokiko arau guztiak.

- Ez jarri inoiz bateriak edo gailuak beroa ematen duten tresnen gainean (adibidez, labeak, mikrouhin-labeak, berogailuak edo erradiadoreak). Bateriak lehertu egin daitezke gehiegi berotuz gero.
- Inoiz ez zanpatu edo zulatu bateria. Saihestu goi-presioko tokietan jartzea; izan ere, barneko zirkuitulabur bat gerta daiteke eta gehiegi berotu daiteke.

**Saia zaitez telefonoari, bateriei eta kargagailuei kalterik ez eragiten.**

- Saia zaitez bateriak tenperatura oso altuetan edo oso baxuetan ez jartzen.
- Muturreko tenperaturek gailua deformatzea eragin dezakete, eta kargatzeko gaitasuna eta baterien bizitza erabilgarria murriztu dezakete.
- Saia zaitez bateria ez jartzen objektu metalikoak ukitzeko moduan; izan ere, bateriaren terminal positiboen eta negatiboen artean konexioa sor dezake horrek, eta bateria aldi baterako edo behin betiko hondatu.
- Ez erabili inoiz hondatutako kargagailurik, ez eta bateriarik ere.

**Kontuz: gailua gune murriztuetan erabiltzen baduzu, segi aholkuei eta segurtasun-arauei.**

**Itzali gailua erabiltzea galarazita dagoen tokietan.**

Eremu partikularretan, bete gailu mugikorren erabilera murrizten duten arau guztiak.

**Ez erabili gailua beste gailu elektronikoetatik gertu.**

Gailu elektroniko gehienek irrati-maiztasuneko seinaleak erabiltzen dituzte. Gailuak interferentziak sor ditzake beste gailu elektroniko batzuekin.

**Ez erabili telefonoa taupada-markagailuetatik gertu.**

- Ahal dela, erabili gailua taupada-markagailutik 15 cm-ra gutxienez, gailuak interferentziak sor baititzake.
- Erabili behar baduzu, eduki ezazu taupada-markagailutik 15 cm-ra gutxienez.
- Taupada-markagailuarekiko interferentziak ahalik eta gehiena gutxitzeko, erabili gailua taupada-markagailua ez duzun gorputzeko aldean.

**Ez erabili gailua erietxeetan, ez eta irrati-maiztasunaren ondorioz interferentziak sor ditzaketen ekipo medikoetatik gertu ere.**

Ekipo medikoren bat erabiltzen baduzu, jarri harremanetan fabrikatzailearekin ekipoak irrati-maiztasunetatik babestuta daudela ziurtatzeko.

**Audifono bat erabiltzen baduzu, jarri harremanetan fabrikatzailearekin irrati-maiztasunari buruzko informazioa eskuratzeko.**

Audifono batzuek interferentziak izan ditzakete gailuaren irrati-maiztasunak eraginda. Jarri harremanetan fabrikatzailearekin, audifonoa babestuta dagoela ziurtatzeko.

**Itzali gailua lehergaiak egon daitezkeen inguruetan**

- Lehergaiak egon daitezkeen inguruetan, itzali gailua bateria kendu beharrean.
- Bete beti lehergaiak egon daitezkeen inguruetako arauak, jarraibideak eta ohar-seinaleak.
- Ez erabili gailua erregaia hartzeko lekuetan (zerbitzuguneak), ez eta erregai edo gai kimikoen ondoan ere.
- Ez biltegiratu eta ez eraman suak har dezakeen likidorik, gasik edo leher daitekeen materialik gailua eta haren piezak edo osagarriak doazen leku berean.

**Itzali gailua hegazkin baten barruan zaudenean.**

Legez kanpokoa da gailua hegazkin baten barruan erabiltzea. Interferentziak eragin ditzake hegazkinaren nabigazio-tresna elektronikoetan.

**Baliteke ibilgailu motordun baten gailu elektronikoek behar bezala ez funtzionatzea gailuaren irrati-maiztasuna dela eta.**

Baliteke zure ibilgailuaren gailu elektronikoek behar bezala ez funtzionatzea gailuaren irrati-maiztasuna dela eta. Jar zaitez fabrikatzailearekin harremanetan informazio gehiago eskuratzeko.

**Bete itzazu ibilgailu bat gidatzean gailu mugikorrak erabiltzeari buruzko aholku eta arau guztiak.**

Gidatzen duzun bitartean, ibilgailua modu seguruan eramatea da zure ardura nagusia. Legez galarazita badago, ez erabili gailu mugikorra gidatzen duzun bitartean. Zure eta gainerakoen segurtasunerako, jokatu zentzuz, eta gogoratu aholku hauek:

- Erabili esku libreko gailu bat.
- Ezagutu gailua eta haren funtzio praktikoak, markaketa bizkorra eta berriro deitzeko funtzioa esate baterako. Funtzio horiei esker, laburtu egiten da gailu mugikorrarekin deiak egiteko edo jasotzeko denbora.

- Jarri gailua erraz har dezakezun toki batean. Jar ezazu errepidera begiratuz iristeko moduko toki batean. Egokia ez den une batean dei bat jasotzen baduzu, utzi zure ahots-postontziari erantzuten.
- Esan deitzaileari gidatzen ari zarela. Eten deiak zirkulazio handia edo eguraldi txarra dagoenean. Euria, elur bustia, elurra, izotza edo zirkulazio handia arriskutsuak izan daitezke.
- Ez idatzi edo bilatu telefono-zenbakirik. Zeregin bat idazteak edo agendan begiratzeak arreta galaraz diezazuke zure ardura nagusian, ziurtasunez gidatzean.
- Zuhurtziaz markatu, eta aztertu zirkulazioa. Mugitzen ari ez zarenean edo abiatu aurretik egin deiak. Saiatu autoa geldirik dagoela programatzen deiak. Dei bat egin behar baduzu, markatu zenbaki batzuk bakarrik, egiaztatu errepidearen egoera atzerako ispiluetatik, eta jarraitu markatzen.
- Ez izan arreta galaraz diezazukeen eta estresa edo emozioa eragin diezazukeen elkarrizketarik. Esan deitzaileari gidatzen ari zarela, eta eten errepideko arreta galarazten dizuten deiak.
- Erabili gailua laguntza eskatzeko. Sute, auto-istripu edo larrialdi medikoren bat gertatuz gero, markatu larrialdi-zenbakia.
- Erabili mugikorra larrialdi-egoeran dauden beste pertsonei laguntzeko. Auto-istripu bat, delitu bat edo larrialdi handi bat ikusten baduzu eta norbaiten bizia arriskuan badago, deitu tokiko larrialdi-zenbakira.
- Behar den kasu guztietan, deitu errepideetako laguntza-zerbitzuetara edo laguntza-zerbitzu berezi batera, hain larria ez den gertaeraren bat izan denean. Arriskurik eragiten ez duen eta matxuratuta dagoen ibilgailu bat, hondatutako trafiko-seinale bat, zauriturik izan ez den garrantzi gutxiko istripuren bat edo lapurtu egin dutela ziur dakizun ibilgailu bat ikusi baduzu, deitu errepideko laguntza-zerbitzuetara edo beste larrialdi-zerbitzu berezietara.

## Gailu mugikorraren zaintza eta erabilera egokiak

### Ez busti telefonoa.

- Hezetasunak eta likidoek gailuko piezak edo zirkuitu elektronikoak honda ditzakete.
- Ez piztu gailua bustita badago. Dagoeneko piztuta badago, itzali, eta kendu bateria berehala (ezin baduzu itzali eta ezin badiozu bateria kendu, utzi dagoen moduan). Gero, lehortu gailua toalla batekin, eta eraman zerbitzu-zentrora.

- Urak gailuaren barruan eragindako kalteak adierazten dituen etiketaren kolorea aldatzen dute likidoek. Urak gailuan kalteak eraginez gero, baliorik gabe gera daiteke fabrikatzailearen bermea.

**Ez erabili eta ez gorde gailua leku zikinetan edo hautsez betetakoetan.**
Gailuak ondo ez funtzionatzea eragin dezake hautsak.

**Ez utzi gailua inklinatutako gainazaletan.**
Erortzen bada, hondatu egin daiteke.

**Ez gorde gailua toki bero edo hotzetan. Erabili beti -20 °C eta 50 °C bitartean.**

- Gailua ibilgailu itxi batean utziz gero, baliteke lehertzea, barruko tenperatura 80 °C-ra irits baitaiteke.
- Ez utzi gailua denbora luzean eguzkiaren argiak zuzenean jotzen duela (adibidez, autoaren aginte-mahaiaren gainean).
- Gorde bateria 0 °C eta 40 °C bitartean.

**Ez gorde gailua metalezko objektuekin (txanponak, giltzak eta lepokoak, adibidez).**

- Deformatu egin daiteke, edo ongi ez ibiltzea eragin dezakete.
- Bateriaren terminalek metalezko objektuak ukitzen badituzte, sutea sor daiteke.

**Ez gorde gailua eremu magnetikoetatik gertu.**

- Gerta daiteke gailua gaizki funtzionatzen hastea eta bateria deskargatzea eremu magnetikoen ondorioz.
- Banda magnetikoak dituzten txartelak (kreditu-txartelak, telefono-txartelak, aurrezki-libretak eta ontziratze-txartelak) hondatu egin daitezke eremu magnetikoen ondorioz.
- Ez erabili itxiera magnetikoak dituzten kutxatilak edo osagarriak, eta ez utzi gailua eremu magnetikoekin kontaktuan denbora luzez.

**Ez gorde gailua berogailuetan, mikrouhin-labeetan, sukaldeko ekipo beroetan eta goi-presioko edukiontzietan, ezta horietatik gertu ere.**

- Bateriak ihesak izan ditzake.
- Bateria gehiegi berotu daiteke, eta sutea eragin.

**Ez utzi gailuari erortzen, eta ez eman kolpe handirik.**

- Pantaila hondatu egin daiteke.
- Tolesten edo itxuraldatzen baduzu, litekeena da gailua hondatzea eta piezek ondo ez funtzionatzea.

**Gailua berotu egiten bada, utzi gailua edo aplikazioak erabili gabe denbora batez.**

Azala denbora luzez gailu bero batekin kontaktuan egonez gero, tenperatura baxuko erredura-sintomak izan ditzake, hala nola orban gorriak eta pigmentazioa.

**Zure gailuak kamerarentzako lanpara bat edo flash bat badu, ez itzazu erabili pertsonen eta animalien begietatik gertu.**

Ikusmena aldi batez gal daiteke edo begiak kaltetu ditzake.

**Kontuz ibili argi keinukariekin.**

- Gailua erabiltzen duzunean, utzi gelako argiren bat piztuta, eta ez jarri pantaila begietatik gertuegi.
- Konbultsioak eta zorabioak gerta daitezke argi keinukarien eraginez, denbora luzez argi keinukariak dituzten bideoak edo jolasak erabiltzean. Ondoeza sentitzen baduzu, utzi berehala gailua erabiltzeari.

**Murriztu itzazu behin eta berriro mugimendu bera egiteagatik sortutako lesioak.**

Ekintza bera behin eta berriro egiten duzunean (esaterako, teklaka sakatzeak, karaktereak marraztea hatzekin ukipen-pantailan edo jolastea), baliteke mina sentitzea eskuan, lepoan, sorbaldan edo gorputzeko beste zati batean. Gailua denbora luzez erabiltzen duzunean, eutsi ezazu eskua erlaxatua duzula, kontuz sakatu teklak eta egin etenak sarri. Ekintza horiek egiten ari zarela edo egin ondoren ere mina sentitzen baduzu, ez egin gehiago, eta jarri harremanetan medikuarekin.

**Saiatu bateriak eta kargagailuak ahalik eta bizitza erabilgarri luzeena izan dezaten**

- Ez kargatu bateria astebete baino gehiago, gehiegizko kargak haren bizitza erabilgarria moztu baitezake.
- Denborarekin, bateriak deskargatu egiten dira erabiltzen ez badira, eta beharrezkoa da berriro erabiltzeko kargatzea.
- Erabili behar ez direnean, deskonektatu kargagailuak energia-iturrietatik.
- Erabili bateriak diseinatuta dauden helbururako bakarrik.

**Fabrikatzaileak onartutako bateriak, kargagailuak, osagarriak eta hornigaiak bakarrik erabili.**

- Bateria edo kargagailu generikoak erabiltzearen ondorioz, gailuaren bizitza erabilgarria laburtu egin daiteke, edo funtzionamendu okerra eragin daiteke.
- Samsung ez da erabiltzailearen segurtasunaren arduradun, markak onartutakoak ez diren osagarriak edo hornidurak erabiliz gero.

**Ez kosk egin edo miazkatu gailua edo bateria.**

- Gailua hondatu egin daiteke, edo leherketa bat eragin.
- Gailua umeek erabiltzen dutenean, ziurtatu behar bezala erabiltzen dutela.

**Ez sartu gailua eta harekin datozen osagaiak begietan, belarrietan eta ahoan**

Bestela, ito egin zintezke, edo lesio larriak izan.

**Telefonoz hitz egiten ari zarela:**

- Eduki ezazu bertikalean, betiko telefonoarekin egingo zenukeen bezala.
- Mikrofonotik hurbil hitz egin.
- Saiatu gailuaren barneko antenarekin kontakturik ez izaten. Antena ukitzen baduzu, deiaren kalitatea okerragotu egin daiteke. Behar baino irrati-maiztasun bidezko transmisio gehiago eragin dezake.

**Entzungailuak erabiltzen dituzunean, babestu entzumena eta belarriak.**



- Soinuen gehiegizko mailak entzumenari kalte egin diezaioke.
- Gidatzen ari zarela soinua altuegi izanez gero, arreta galaraz dezake, eta istripua eragin.
- Jaitsi bolumena entzungailuak audio-iturri batera konektatu aurretik, eta erabili behar duzun bolumen minimoa musika edo elkarrizketa entzuteko.
- Inguru lehorretan, baliteke elektrizitate estatikoa pilatzea entzungailuetan. Saiatu entzungailuak ez erabiltzen inguru lehorretan, edo ukitu metalezko objekturen bat entzungailuak gailura konektatu aurretik, elektrizitate estatikoa deskargatzeko.

**Ibiltzen edo mugitzen ari zarenean, erabili gailua arretaz.**

Arretaz begiratu inguruetara, zuri eta ingurukoei lesio fisikoak ez eragiteko.

**Ez eraman gailua kanpoko poltsikoetan edo gerriaren inguruan.**

Eroriz gero, min har dezakezu, edo gailua hondatu egin daiteke.

**Ez desmuntatu, aldatu edo konpondu gailua.**

- Gailuan aldaketaren bat eginez gero, fabrikatzailearen bermea bertan behera gera daiteke. Laguntza teknikoa jasotzeko, eraman gailua Samsungen zerbitzu-zentro batera.
- Ez desmuntatu edo zulatu bateria, horrek leherketa edo sute bat eragin baitezake.

**Ez margotu gailua, eta ez jarri eranskailurik**

Pinturak eta eranskailuek zati mugikorrei traba egin diezaiekete, eta baliteke gailuak behar bezala ez funtzionatzea. Pinturari edo produktuaren alde metalikoei alergia badiezu, baliteke azkura, ekzemak edo hanturak izatea azalean. Hori gertatzen bada, ez erabili gehiago produktua, eta galdetu medikuari.

**Telefonoa garbitzen duzunean:**

- Erabili eskuoihal bat edo trapu bat gailua edo kargagailua garbitzeko.
- Garbitu bateriaren terminalak kotoiaz edo eskuoihal batez.
- Ez erabili gai kimikorik, ez eta garbigarririk ere.

**Ez erabili gailua pantaila pitzatuta edo hautsita badago.**

Hautsitako beirak zauriak eragin ditzake eskuetan eta aurpegian. Eraman gailua Samsungen zerbitzu-zentro batera, konpontzeko.

**Ez erabili diseinatuta dagoen helbururako ez bada.**

**Gailua jendaurrean erabiltzen duzunean, saiatu ingurukoak ez molestatzen.**

**Ez utzi haurrei gailua erabiltzen.**

Gailua ez da jostailu bat. Ez utzi umeei mugikorrekin jolasten; min har dezakete, eta beste batzuei min egin, gailua honda dezakete, edo kontsumo-gastua areagotuko duten deiak egin ditzakete.

**Kontuz instalatu gailu mugikorrak eta gainerako tresnak**

- Ziurtatu gailu mugikor osoa eta zure ibilgailuak instalatutako lotutako tresnak modu ziurrean muntatuta daudela.
- Ez jarri gailua eta osagarriak airbagetik gertu edo airbaga zabaltzen den tokian. Ongi instalatuta ez dauden haririk gabeko ekipoek lesio larriak eragin ditzakete airbagak bizkor puzten direnean.

### Langile adituei soilik utzi gailuaren mantentze-lanak egiten

Baliteke kalteak sorraraztea eta fabrikatzailearen bermea bertan behera geratzea, baldin eta adituak ez diren langileei gailuaren mantentze-lanak egiten uzten badiezu.

### Kontuz erabili SIM txartelak eta memoria-txartelak

- Ez atera txartela gailua informazioa transferitzen ari den bitartean edo txartelera sarbidea duzunean; izan ere, datuak gal ditzakezu, eta txartela edo gailua hondatu.
- Babestu txartelak deskarga bortitzetatik, elektrizitate estatikotik eta beste gailu batzuek eragindako zarata elektrikotik.
- Ez ukitu urre koloreko kontaktuak edo terminalak hatzekin edo metalezko objektuekin. Txartela zikina badago, garbitu zapi leun batekin.

### Bermatu larrialdi-zerbitzuetarako sarbidea

Baliteke eremu edo egoera batzuetan larrialdi-deiak egiteko aukerarik ez izatea. Urruneko herrialdeetara edo garabidean daudenetara joan aurretik, planifikatu larrialdi-zerbitzuekin harremanetan jartzeko metodo bat.

### Gorde modu seguruan zure datu pertsonalak eta datu garrantzitsuak.

- Gailua erabiltzean, ziurtatu datu garrantzitsuen segurtasun-kopiak egiten dituzula. Samsungek ez du bere gain hartzen datuak galtzearen ardura.
- Gailua botatzen duzunean, egin datu guztien segurtasun-kopia bat, eta, gero, berrezarri gailua zure informazio pertsonala ez dadin modu desegokian erabili.

### Ez zabaldu egile-eskubideekin babestutako materialik.

Ez zabaldu egile-eskubideekin babestutako materialik, baldin eta eduki horien jabeen baimenik gabe grabatu baduzu. Hori eginez gero, baliteke egile-eskubideen legeak urratzea. Fabrikatzaileak ez du bere gain hartzen erabiltzaileak materialaren legez kanpoko erabilera egitea.

## Absortzio espezifikoaren tasaren ziurtagiriari buruzko informazioa (SAR, Specific Absorption Rate)

Irratien eta telekomunikazio-tresnen irrati-maiztasunaren energiarekiko esposizioa mugatzen duten Europar Batasuneko (EB) arauak betetzen ditu gailuak. Arau hauek gehienezko esposizio-maila (absortzio espezifikoaren tasa edo SAR deitua), hau da, 2,0 W/kg, gainditzen duten gailu mugikorren salmenta eragotzi egiten dute. Probetan, modelo honetarako gehienezko SAR balioa 0,256 W/kg izan zen. Erabilera normalarekin baliteke benetako SAR maila baxuagoa izatea, hurbileneko estaziora seinalea igortzeko beharrezkoa den irrati-maiztasuneko energia soilik igortzeko diseinatuta baitago telefonoa. Ahal izanez gero automatikoki maila txikiagoak igortzen dituenez, gailuak murriztu egiten du erabiltzaileak jasotzen duen irrati-maiztasuneko energia. Erabiltzailearen eskuliburu honen atzealdeko adostasun-deklarazioak frogatzen du gailuak betetzen duela irrati eta telekomunikazioko ekipo terminalei buruzko Europako direktiba (R&TTE). SARi eta horren inguruko EBko arauei buruzko informazio gehiago eskuratzeko, ikus Samsungen webgunea.

## Produktu hau behar bezala botatzea



(Gailu elektriko eta elektronikoen hondakinak)

(Europar Batasunean eta hondakinen gaikako bilketako sistemak dituzten Europako beste herrialde batzuetan)

Produktuan, osagarrietan edo harekin batera doan material informatiboan ikur hori agertzen bada, horrek esan nahi du produktuaren edo haren osagarri elektronikoen (kargagailua, entzungailuak, USB kablea) bizitza baliagarria amaitzean ez direla bota behar etxeko gainerako hondakinekin. Hondakinak kontrolik gabe botatzeagatik ingurumenari edo osasunari sor dakizkiokeen kalteak saihesteko, bereizi produktu horiek gainerako hondakinetatik, eta birziklatu behar bezala. Horrela, baliabide materialen berrerabilpen jasangarria bultzatzen da. Erabiltzaile partikularrak produktua erosi zuten saltokiarekin edo tokiko agintariekin harremanetan jar daitezke, modu ekologiko eta seguruan birziklatzeko nora eraman dezaketen jakiteko.

Enpresa erabiltzaileak hornitzailearekin harremanetan jar daitezke, erosketa-kontratuaren baldintzen berri jakiteko. Produktu hau eta berekin dakartzan osagarri elektronikoak ez dira bota behar enpresako gainerako hondakinekin.

## Produktu honen bateriak behar bezala botatzea



(Europako Batasunean eta baterien gaikako bilketako sistemak dituzten Europako beste herrialde batzuetan). Produktuaren baterietan, eskuliburuan edo paketean marka hau badago, horrek esan nahi du baterien bizitza erabilgarria amaitzean ez direla bota behar etxeko beste hondakinekin batera. Markatuta badaude, Hg, Cd edo Pb ikur kimikoek esan nahi dute bateriak merkurioa, kadmioa edo beruna dituela EBren 2006/66 Direktiban erreferentziatzat jarritako balioen gainetik. Bateriak behar bezala botatzen ez badira, substantzia horiek norbaiten osasuna edo ingurumena kaltetu dezakete. Baliabide naturalak babesteko eta birziklatzea bultzatzeko, bereizi bateriak gainerako hondakinetatik, eta birziklatu zure herriko doako bilketa-sistemaren bidez.

## Erantzukizunetatik salbuesteko klausula

Gailu honen bidez erabil ditzakezun zenbait eduki edo zerbitzu beste hirugarren batzuenak dira, eta egile-eskubideen, patenteen, marka erregistratuen eta/edo jabetza intelektualeko beste zenbait legeren babespean daude. Eduki eta zerbitzu horiek erabilera pertsonalerako soilik ematen dira, ez enpresetan erabiltzeko. Baliteke edukiak edo zerbitzuak erabiltzerik ez izatea edukiaren jabeak edo zerbitzu-hornitzaileak baimendu ez duen moduren batean. Aurrez esandakoa alde batera utzi gabe, gailu honen bidez erakusten diren edukiak edo zerbitzuak ezin dira inolaz ere aldatu, kopiatu, berrargitaratu, kargatu, argitaratu, transmititu, itzuli, saldu, eratorritako obrarik sortu, ustiatu edo banatu, edukiaren jabeak edo zerbitzuen hornitzaileak espresuki baimena ematen ez badu behintzat. EDUKIA ETA HIRUGARRENEN ZERBITZUAK “BERE HORRETAN” EMATEN DIRA. SAMSUNGEK EZ DU EMATEN EMANDAKO EDUKIEN NAHIZ ZERBITZUEN BERMERIK, EZ ESPRESUKI, EZ INPLIZITUKI, HELBURUA EDOZEIN DELA ERE. SAMSUNGEK ESPRESUKI EGITEN DIE UKO BERME INPLIZITU GUZTIEI; BESTEAK BESTE, MERKATURATZE-BERMEEI ETA XEDE JAKIN BATERAKO EGOKITASUNARI. SAMSUNGEK EZ DU BERMATZEN GAILU HONEN BIDEZ ERABIL DAITEKEEN INONGO EDUKI EDO ZERBITZUREN EGIAZKOTASUNIK, BALIOZKOTASUNIK, ERREPRODUKZIORIK, LEGEZKOTASUNIK EDO OSOTASUNIK; HORREZ GAIN, SAMSUNG EZ DA INOIZ IZANGO EZ KONTRATU BIDEZ, EZ BIDEGABEKERIAZ (EZ ETA ZABARKERIAGATIK GERTATZEN DENEAN ERE), ZUZENEKO KALTEEN, ZEHARKAKOEN, ISTRIPUENGATIKOEN, BEREZIEN, ONDORIOZKOEN, ABOKATUEN ORDAINSARIEN, GASTUEN EDO HEMEN AGERTZEN DEN INFORMAZIOAREN ERABILERAREN ONDORIOZKO KALTEEN EDO HORRI LOTUTAKOEN ARDURADUN. BESTALDE, EZ DA IZANGO ZURE EDO HIRUGARREN BATEN ERABILERAREN ONDORIOZKO KALTEEN ARDURADUN, EZ ETA KALTE HORI GERTA ZITEKEELA OHARTARAZI BAZEN ERE.

Hirugarrenen zerbitzuak noiznahi amaitu edo eten daitezke, eta Samsungek ez du eskaintzen edukia edo zerbitzua inongo denbora-epetan erabilgarri egoteko ordezkaritzarik nahiz bermerik. Edukia eta zerbitzuak transmisio-sareen eta -instalazioen bidez helarazten dituzte hirugarrenek, eta Samsungek ez du kontrolik horietan. Klausula honen orokortasuna mugatu gabe, Samsungek berariaz uko egiten dio gailu honen bidez erabil daitekeen edozein eduki edo zerbitzu eteteari edo amaitzeari. Edukiari eta zerbitzuei lotutako bezeroarentzako arreta-zerbitzuaren ardurarik ez du Samsungek. Edukiari edo zerbitzuei lotutako galdera edo eskaeraren bat izanez gero, zerbitzuen eta edukiaren hornitzaileei bidali behar zaie, zuzenean.

# Aurkibidea


**ahots-deiak**

aukerak erabiltzea 59

egitea 57

erantzutea 58

**ahots-oharrak**

erreproduzitzea 109

grabatzea 109

**ahots-posta 67**

**alarmak**

desaktibatzea 138

gelditzea 138

sortzea 138

**albisteak eta eguraldia 121**

**AllShare 129**

**argazkiak**

animazio-moduan ateratzea 79

argazki panoramikoak ateratzea 78

ateratzea 74

edertasun-moduan ateratzea 77

ekintza ateratzea 79

eszenako argazki bat ateratzea 76

ikustea 87

irribarre bakoitzeko ateratzea 77

kliskatze automatikoaren bidez ateratzea 77

partekatzeko moduan argazkiak ateratzea 78

**ataza-kudeatzailea 147**

**automatikoki ez onartzea 63**

**bateria**

instalatzea 8

kargatzea 10

**bideoak**

erreproduzitzea 85, 88

grabatzea 82

**bideo-deiak**

aukerak erabiltzea 62

egitea 59

erantzutea 60

**bideo-editorea 90**

**bideo-egilea 90**

**bideo-erreproduzitzailea 86, 88**

**bilgarria kentzea 9**

**bluetootha**

aktibatzea 123

beste gailuak bilatzea eta haiekin lotzea 124

datuak bidaltzea 124

datuak jasotzea 125

**data eta ordua zehaztea 28**

**deia zain 65**

**deiak desbideratzea 64**

**deiak murriztea 64**

**deiak**

ahots-deiaren aukerak erabiltzea 61

askotarikoak 61

desbideratzea 64

entzungailuak erabiltzea 60

erantzutea 60

ez onartzea 60

galdutako deiak ikustea 62
murriztea 64
nazioarteko zenbakiak 60
zain 65
**deien erregistroa 65**
**deskargak**
aplikazioak 37
fitxategiak 38
kudeatzea 141
**distira, pantaila 30**
**DLNA**
ikus AllShare
**doikuntzak**
ahotsaren sarrera eta irteera 163
aplikazioak 158
arkatzaren laguntza 166
biltegiratzea 160
data eta ordua 166
deiaren doikuntzak 151
Dock-en doikuntzak 166
energia aurreztea 155
haririk gabeko konexioak 149
irisgarritasuna 159
kokapena eta segurtasuna 156
kontuak eta sinkronizazioa 159
mugimendua 159
pantaila 154
pribatutasuna 160
soinua 153
teklatua eta hizkuntza 160
telefonoari buruz 166
**egunkari txikia 143**
**fitxategi-administratzailea 144**
**FM irratia**
entzutea 96
irrati-kateak gordetzea 98
**gailua**
diseinua 18
doikuntzak 149
ikono adierazleak 19
jakinarazpen-panela 24
pertsonalizatzea 28
piztea edo itzaltzea 17
teklak 19
**galeria**
argazkiak ikustea 87
bideoak erreproduzitzea 88
fitxategien formatuak 86
**Google Latitude 117**
**Google Mail 68**
**Google maps 116**
**Google Talk 72**
**Googleko bilaketa 142**
**hegazkin-modua 17**
**Internet**
ikus web-nabigatzailea
**irudi-editorea 89**
**kalkulagailua 141**
**kamera**
argazkiak ateratzea 74
bideoak grabatzea 82
bideokamera pertsonalizatzea 84

kamera pertsonalizatzea 80

**Kies air 142**

**konexioak**

bluetootha 123

DLNA 128

PCa 133

VPN 136

WLAN 125

**kontaktuak**

bilatzea 101

inportatzea edo esportatzea 104

kontaktuak bilatzea 101

kontaktuak sortzea 100

kontaktu-txartela sortzea 102

kopiatzea 103

markaketa bizkorra zehaztea 101

sortzea 100

taldeak sortzea 103

**kronometroa 139**

**mapak**

hurbileko lekuak bilatzea 118

jarraibideak eskuratzea 116

kokapenak bilatzea 116

lagunekin kokapenak partekatzea 117

nabigazioa erabiltzea 118

**markaketa finkoko zenbakien modua 63**

**memoria-txartela**

formateatzea 16

kentzea 15

sartzea 14

**menu-pantaila**

aplikazioak antolatzea 26

karpetak edo panelak eranstea 27

sarbidea 25

**mezuak**

ahots-postara sartzea 67

mezu elektronikoa bidaltzea 70

multimedia bidaltzea 66

posta elektronikoko kontuak konfiguratzea 70

testua bidaltzea 66

**modu isila 29**

**multimedia-mezuak**

bidaltzea 66

ikustea 67

**munduko erlojua 139**

**music hub 96**

**musika-erreproduzitzailea**

erreprodukzio-zerrendak sortzea 94

fitxategiak eranstea 93

musika erreproduzitzea, 93

**nabigazioa 118**

**nire mugikorra aurkitzea 32**

**pantaila nagusia**

elementuak gehitzea 23

panelak eranstea 25

**pantailaren hizkuntza 12**

**PCra konektatzea**

biltegiratze masiboa 135

Samsung Kies 134
Windows Media-ren erreproduzitzailea 134

**PINa blokeatzea 31**

**Polaris Office 145**

**posta elektronikoa**
bidaltzea 70
ikustea 71
kontuak konfiguratzea 70

**readers hub 121**

**S antolatzailea**
ikuspegiaren modua aldatzea 55
ikustea 107
sortzea 56, 105

**S erakuslea 40**

**S oharrak**
editatzea 109
ikustea 109
sortzea 51, 108

**Samsung Apps 120**

**Samsung Kies 134**

**sarbide-kodeak 167**

**SIM txartela**
blokeatzea 31
instalatzea 10

**sinkronizazioa**
web-kontuekin 38
Windows Media-ren erreproduzitzailearekin 133

**Social Hub 73**

**testua idaztea 33**

**testu-mezuak**
bidaltzea 66
ikustea 67

**ukipen-pantaila**
blokeatzea 23
erabiltzea 22

**USIM txartela**
blokeatzea 31
instalatzea 10

**voice search 147**

**VPNrako konexioak**
konektatzea 137
sortzea 136

**web-nabigatzailea**
gogokoenak gehitzea 114
web-orrietan nabigatzea 112
Windows Media-ren erreproduzitzailea 134

**WLAN**
aktibatzea 126
sareak bilatzea eta horietara konektatzea 126
WPS erabiltzea 127

**YouTube**
bideoak ikustea 119
bideoak kargatzea 120

SAMSUNG
ELECTRONICS

# Adostasun-deklarazioa (R&TTE)

Guk, Samsung Electronicsek produktu hau ziurtatzen dugu:

**GSM WCDMA Wi-Fi: GT-N7000 telefono mugikorra**

Horri egiten dio erreferentzia deklarazio honek, eta bat dator estandar hauekin eta/edo beste arautegi batzuekin.

| | |
|---|---|
| Segurtasuna | EN 60950-1: 2006 +A11:2009 |
| SAR | EN 50360: 2001 / AC 2006 |
| | EN 62209-1 : 2006 |
| EMC | EN 301 489-01 V1.8.1 (04-2008) |
| | EN 301 489-07 V1.3.1 (2005-11) |
| | EN 301 489-17 V2.1.1 (2009-05) |
| | EN 301 489-24 V1.5.1 (10-2010) |
| Radio | EN 301 511 V9.0.2 (03-2003) |
| | EN 300 328 V1.7.1 (10-2006) |
| | EN 301 908-1 V4.2.1 (03-2010) |
| | EN 301 908-2 V4.2.1 (03-2010) |
| | EN 300 440-1 V1.6.1 (08-2010) |
| | EN 300 440-2 V1.4.1 (08-2010) |
| | EN 301 893 V1.5.1 (12-2008) |

Honen bidez adierazten da [oinarrizko irrati-probak egin direla, eta] aurrez aipatutako produktuak betetzen dituela 1999/5/EE Direktibaren oinarrizko eskakizunak.

1999/5/EE Direktibaren 10. artikuluan eta [IV.] eranskinean aipatutako adostasun-balorazioaren prozedura jakinarazitako erakunde hauen parte-hartzearekin egin da:

BABT, Forsyth House,
Churchfield Road,
Walton-on-Thames,
Surrey, KT12 2TD,
Erresuma Batua*.
Identifikazio-marka:
0168

Dokumentazio teknikoa hemen dago:

Samsung Electronics QA Lab. eta aurrez eskatuta emango da.
(EBn duen ordezkaria)

Samsung Electronics Euro QA Lab.
Blackbushe Business Park, Saxony Way,
Yateley, Hampshire, GU46 6GG, UK*

2011.09.23

Joong-Hoon Choi / Lab Manager

(igorpen-lekua eta -data) (pertsona baimendunaren izena eta sinadura)

* Hori ez da Samsungen zerbitzu-zentroaren helbidea. Samsungen zerbitzu-zentroaren helbidea edo telefono-zenbakia eskuratzeko, begiratu berme-egiaztagiria edo jarri harremanetan zure produktu-hornitzailearekin.